15 egun Urgain' eneko egoera misteriotsuaren ardatza identifikazio prozesua da: nor den nor jakitea. Izan ere, kontakizunaren harian poliki-poliki ohartzen gara pertsonaiek ez dutela benetan ezagutzen inguratzen dituen jendea. Bizitza bikoitzaren gaia detektibe nobela klasikoetako hilketa askoren arrazoia da, gizataldearen oreka apurtzen duena. Detektibearen lana oreka berreskuratzea da, azalpen logiko bat eskainiz kezkatan dabilen gizataldeari. Hori dela eta, Garaidiren eginkizun nagusia gizatalde baten inguruan dagoen sekretua isilpean gordetzea da, pribatutasunaren mugak zainduz. Horrela, Egurmendi aberatsaren izen ona gordetzen da, eta isilpeko itun bat dela medio, gizataldearen botere harremanak lehen bezala gelditzen dira. Agatha Christiek ere taldearen hitzarmena erabili zuen *Orient Expresseko hilketa* eleberrian, non amaieran taldekideek sekretu bat gorde behar duten pertsonaia desegoki bat gizataldetik kanpo bota ondoren¹⁴.

Alde horretatik, Loidik generoaren konbentzioak bere erara erabiltzen ditu hibrido bat sortzeko. Genero herrikoen kritikoek aipatu dutenez, halako generoek herri bakoitzaren kultura ulertzeko baliabideak eskaintzen dituzte. Izan ere, kultura nazionalak nazioarteko formulak beren erara egokitzen dituzte eta ez dute kultura homogeen bat sortzen, Adornok kontrakoa uste bazuen ere (Pyrhonen 86).

Ez da zaila ikustea itzulpen prozesu baten bidez jaso zituela Loidik bere eleberrirako teknika eta osagaiak, eta horri esker gainditu zituela berez aurkezten zitzaizkion arazoak¹⁵. Nolanahi ere, Loidi ez zen mugatu kanpoko

¹⁴ Horregatik, ez da harrigarria Garaidik hildakoaren arazoa isilpean gorde nahi izatea, polizia ezer esan gabe. Izan ere, polizia gerraondoko errealitateari atxikitako osagai negatibo bat zen. Euskal nobela batean agertzekotan, «etsaien» sailean agertu beharko luke (eta hala agertuko zen Saizarbitoriaren *100 metron*, adibidez).

¹⁵ Loidik Simenon, Agatha Christie eta Conan Doyle aipatzen ditu eredu gisa. Ikertzekoa litzateke, adibidez, Frantziako «Série noire»ko eleberrien eragina Loidirengan, urte haietan eskuragarri

ereduak bere hartan imitatzeraz edo euskarara itzultzeraz. Aitzitik, eleberrian ageri denez, Loidik esku artean zeukan materiala birsortu egin zuen, harik eta bere gogoko narrazioa eraiki arte. Emaizta, bistan dago, ez da adaptazio gazbako bat, baizik eta euskal nobelagintzaren bilakaeran bere txokoa aurkitu zuen eleberri bat.

Langintza horretan, Loidik zenbait oztopo gainditu zituen, besteak beste, hizkuntzaren «kamustasuna», Iñaki Aldekoak euskal nobelagintzaren kasuan aipatzen duenez, (12). Gure ustez, Loidiren heziketa zientifikoak egin-kizun horretan lagundu zion, euskara bizitza modernorako tresna gisa aise erabiliz, zenbait zalantza gorabehera.

Gerraondoko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, nagusi zegoen dikotomia dugu: gaztelera hizkuntza modernoa, hiritarra eta zientifikoa da, eta euskara hizkuntza zaharra, baserritarra eta espresio lirikorako edo erlijiosorako egina. Publikotasunaren esparruan, erdararen mundu publiko eta agerikoa dugu, politikoki eta sozialki indartsu. Euskararen mundua, berriz, itxia eta isilpekoa zen, politikoki eta sozialki indargabe. Beraz, errepresentazio errealista bat erabiliz gero, gerraondoko euskal nobela bat pertsonaiaren barne gogoetara mugatuta egongo zen. Hala ere, oso modu bitxian, detektibe nobela klasikoaren eskemak erabilia, paradigma hori iraultzen da eta euskarak hizkuntza moderno, hiritar eta zientifikoaren lekua hartzen du Loidiren eleberrian.

Eleberriaren barneko egitura ideologikoari begira, hauze galdetu beharko genuke: nongo gizartearen apologia egiten ari da Loidi? Ez, hain zuzen ere, Espainia frankistaren apologia, jakina. Eleberria euskal hiztunen bilera jai-antzeko batekin amaitzen da, non iragartzen baitzaigu gizatalde horren ordezkariak (goiko eta beheko mailakoak) harmonian biziko direla. Azkenburu gisa, bi bikote elkartzen dira Garaidirenean, korapilo sentimentala ere nolabait askatuz. Amaiera zoriontsua, beraz, detektibe nobela klasikoetan bezala. Loidik klase ertaineko gizarte euskaldunaren apologia egiten du bere nobelan, hain zuzen ere, lan zintzoa eta balio tradizionalak azpimarratuz,

izango baitzituena Iparraldeko liburu-dendetan. Nolanahi ere, Loidiren irakurzaletasunak Britainia Handiko detektibe nobelara bultzatzen zuen, batez ere.

hilketarik gabekoa balitz bezala¹⁶. Diglosia bortitzean bizi zen euskal irakurleari errealtateko giroa inolaz ere erakutsi ezin zitzaionez, Loidik genero irreal batez jantzi zuen bere mundu euskalduna¹⁷.

Loidiren eleberria salbuespena da: lehiaketa baten ondorioz, mimetismoari erantzunez sortu zen. Euskarazko lan bat idatzi eta genero poliziakoa lantzeko gogoia uztartuz, Loidik Euskaltzaindiaren lehiaketaren aitzakia aprobetxatu zuen bere lana balioztatzeko. Jon Etxaidek irabazi zuen lehenengo saria, eta Loidiren eleberriak merezimenduzko aipamen bat jaso zuen. Ondoren, argitalpenaren eta banaketaren kostuak bere gain hartuta, Loidik bere kabuz argitaratu zuen lana. Garai hartan liburuaren dendetan salterik ez zegoenez, ahoz aho helarazi zitzairen euskal irakurleei Loidiren eleberriaren berri. Liburuaren argitalpen baldintzak kontuan hartuta (esaterako, zuzentzailerik zein aholkulari literariorik gabe), emaitza nahikoa duina lortu zuen Loidik.

Urte haietan agertu ziren lehenengo literatura liburuak baldintza berezietan ekoiztu ziren, sistema kultural baten oinarririk gabe¹⁸. Loidiren eleberria ondo kokatzeko, azpimarratu beharko genuke nolako eragina izan zuen euskal irakurleengan lehenengoz argitaratu zenean. Izan ere, irakurleek testuak nola erabiltzen dituzten ikustean argitzen dugu testuen eragin ideologikoa (Pyrrhonen 107). Hori dela eta, ez da ahaztu behar nobela oso irakurria izan

¹⁶ Loidiren eleberrian, behe mailako emakume bat dugu biktima eta gizon aberats bat gorpu-trukearen eragilea (hilketarik ez badago ere). Azken batean, eleberriaren gizartearen balio-sisteman, honako balore hauek azpimarratzen dira: Txominen zein Pirminen lan nekazina, Iñaxi andreaken zuhertasuna eta Garaidiren beraren joan-etorri eta tratuak. Nolanahi ere, ez da gaitzesten gizatalde horretatik kanpo dagoen pertsona batekin harremanak izatea, ez eta atzerriko eragina ere, euskal nobela kostunbristetako egileen gaitzespenaren ordez, begirada irekiagoa eskainiz.

¹⁷ Ez da harritzekoa Loidiren kasuan, hezkuntza zientifikoa jasotako idazlea izanda, detektibe nobela klasikoaren formulak agertzea. Jon Etxaidek, berriz, behinolako garaietara eraman zituen bere pertsonaiak Loidiren garaian idatzitako *Alos torrea* eta *Joanak joan* eleberrietan.

¹⁸ Garai hartako euskarazko produkzio kulturalak beheko mailan zeuden espazio sozialean interakzio linguistikoei begira. Dena den, datu zehatzagoak beharko genituzke literaturaren inguruko eragileen inguruan: irakaskuntza, inprimategiak, argitaletxeak, komunikabideak eta irakurleak. Halaber, gogora bedi kultura herrikoiaeren adierazpenak nolako baldintzetan gertatzen ziren, besteak beste, bertsolaritzaren jardunak.

zela. Lehenengo argitalpena laster agortu zen, eta hainbat idazlek aitortu dute Loidiren nobela izan zela euskaraz irakurri zuten lehen nobela.

Gerraondoko euskal kulturak bere gisako ereduak behar zituen bizirik zegoela egiazatzeko, eta beharbada horregatik onartu zuen hain sutzuki Loidiren nobela. Gerraondoan argitaratu ziren lehenengo liburuetakoa bat izanda, gainbalio bat hartu zuen Loidiren eleberriak, gaur arte ondo atxiki duena. Atenporalitatea bere alde dauka eleberriak, zeren iragan lauso baitean kokatuta egotean ez baitago iraganarekiko kontraste nabarmenik kontakizunean. Alde horretatik, detektibe nobela klasiko gehienak, aukeran, «anakronikoak» dira, urteak igaro arren lehen bezain irakurgarri dira (Grella, 101). Nazioarteko parametroen arabera, Loidiren eleberria ez da moderno, jakina, ez ditu modernitatearen zantzuak, baina agian horregatik eutsi dio bere lekuari euskal eleberrien bilakaeran esperimentu gisa.

Esan dezagun, bada, *15 egun Urgain'en* lan polibalentea dela gaurko ikuspegitik begiratuta: alde batetik, euskarazko idazlan bat sortzeko asmoaz egin, hau da, ia-ia idazlearen ariketa gisa euskara ikasteko, euskal literaturan tarte txiki bat egin zuen garai hartan¹⁹. Misterioz blaitutako puzzle bat atontzean, Loidik detektibe nobela klasikoaren artifizialtasuna baliatu zuen²⁰. Emaizta, bistan dago, nahikoa arrakastatsua izan zen: Loidi mundu literario bat euskaraz adierazteko gauza izan zen, nazioarteko parametroen arabera. Denboraren poderioz, Martin Garaidi euskal detektibe nobelaren pertsonaia klasiko bihurtu da. Dirudenez, oraindik ere irakurle dezente dauzka nobelak, batez ere, irakaskuntzaren eraginez.

Lan honetan saiatu gara Loidik sortutako pertsonaia detektibe nobela klasikoaren parametroetan kokatzen, euskal literaturara egokitze ahale-

¹⁹ Ikus E. Masen aitzin-solasa eta egiten dituen egileen aipamenak: alde batetik, Cervantes eta abar, bestetik, Poe, Txekhov. Loidiren eleberria halako ingurunean kokatzean, lanaren literatura maila goratzen zuen kritikariak, tradizio baten abaroan ezarrit.

²⁰ Behin baino ez da aipatzen inguruko gizartean gerta zitekeen jazoeraren bat, eta hori greba hitza eta poliziaren parte hartzea esplizituki erabili gabe: «urrengo egunean, nik entzun nuenez beintzat, langille-arteko egundalako zarata izango zala Urgain'en noski; tiroak ere izango zirala noski...» (167). Bestelako osagai politikoak prozedura metonimiko baten bidez azaltzen dira eleberrian: Belgika aldean suertatzen dira torturak eta jazarpenak, ez Euskal Herrian.

ginak ikusita. Aipatu dugunez, egokitzapen horretan azpigeneroaren arauak zaindu zituen Loidik, baina, aldi berean, efektu bereziak lortu zituen, besteak beste, euskararen unibertso literarioa apur batez zabaltzea. Kontuak kontu, bakoitzak bere irakurketa egin dezake, eleberriak beste azterbide asko eskaintzen dituelako: emakumeen rola²¹, azterketa formalak eta egiturazkoak, polisistemen teoriaren araberakoa, hizkuntzaren inguruko ideologia... Hortik abiatuta, beste batzuek esango dute nola kokatu edo birkokatu behar den Loidiren nobela eta nolako sintomak adierazten dituen euskal literatura sistemaren ikuspuntutik begiratuta. Nolanahi ere, hirurogei urte pasa eta gero Martin Garaidik bizirik dirau euskal irakurleen gogoan eta oraindik ere zeresanik eman lezake.

Bibliografia

ALDEKOA, I. *Mendebaldea eta narraziogintza*. Donostia: Erein, 1998.

BILBAO, J. «Exposición sobre la actual posición de las autoridades españolas respecto de la lengua vasca». *VIIème Congrès d'Etudes Basques / Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua / VII Congreso de Estudios Vascos* (7. 1948. Biarritz). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003. 847-852.

CAWELTI, J. «The Study of Literary Formulas», *Detective Fiction: A Collection of Critical Essays*. Ed. Robin W. Winks. Woodstock, Vermont: A Foul Play Press Book, 1988. 121-143

CILLERO GOIRASTUENA, F.J. *The Moving Target: A History of Basque Detective and Crime Fiction*. Ann Arbor, MI: UMI, University Microfilms International, 2005.

COLMEIRO, J.F. *La novela policiaca española: teoría e historia crítica*. Barcelona: Anthropos, 1994.

²¹ Horiek horrela, eleberrian bere ahotsaz mintzo ez diren pertsonaia bi azpimarratu ahal dira: kontrabandisten familiako emakume tirokatua eta andre atzerritarra. Izan ere, ahotsik gabe daude emakume horiek agerpen publikoetan, eta bai bizia, bai nortasuna galtzen dute sinbolikoki irakurlearen aurrean. Biek bat egiten dute hilerriko gorpu horretan, bata bestearen lekua hartuta.

ETXANIZ, X. «Euskal literaturaren historia; begirada berriaz», *Euskera* 55, 2 (2010): 823-839.

FREEMAN, R. «*The Art of the Detective Story*» *Nineteenth-Century and After*, (1924) 713-721.

GARATE, G. «Euskal polizia eleberrien hasiera», *Jakin* 105 (1998): 53-69.

GRELLA, G. «The Formal Detective Novel», *Detective Fiction: A Collection of Critical Essays*. Ed. Robin W. Winks. Woodstock, Vermont: A Foul Play Press Book, 1988. 84-102.

HERNANDEZ ABAITUA, M. «Nobela beltza eta polizi nobela klasikoa», *Jakin* 25 (1982): 51-67.

LOIDI, J.A. Elkarrizketa. 1998ko abuztuaren 19koa.

———, *Amabost egun Urgain'en*. [Oñate]: Arantzazu, 1968.

LÓPEZ GASENI, J.M. «Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan», *Euskera* 55, 2 (2010): 841-852

MANDEL, E. «A Marxist Interpretation of the Crime Story», *Detective Fiction: A Collection of Critical Essays*. Ed. Robin W. Winks. Woodstock, Vermont: A Foul Play Press Book, 1988. 209-219.

OLAZIREGI, M.J. «Un siglo de novela en euskera», *Historia de la literatura vasca*. Ed. Patricio Urquizu. Madrid: UNED, 2000. 504-588.

PYRHÖNEN, H. *Murder from an Academic Angle: An Introduction to the Study of the Detective Narrative*. Columbia, SC, USA: Candem House, 1994.

SYMONS, J. *Historia del relato policial*. Barcelona: Bruguera, 1982.

VÁZQUEZ DE PARGA, S. *La novela policiaca en España*. Barcelona: Monsel, 1993.

VÁZQUEZ MONTALBÁN, M. «Sobre la inexistencia de la novela policíaca», *Antípodas*, XVIII (2007): 23-37.



Literatura konparatuaren lehen agerpenak euskal literaturan: Lauaxetatik Pott Bandara

Primeras apariciones de la literatura comparada
en la literatura vasca: de Lauaxeta a la banda Pott

Premières apparitions de la littérature comparée
dans la littérature basque : de Lauaxeta au groupe
littéraire Pott

The first appearances of comparative literature
in Basque literature: from Lauaxeta to the Pott group

SARASOLA, Beñat

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2016-08-25

Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 485-513. Bilbo
ISSN 0210-1564

Literatura konparatua edo literaturaren ikuspegi konparatista XIX. mendean sortu bazen ere, euskal literaturan ez zen garatu ia mende bat beranduagora arte, tarteko salbuespenen bat kenduta. Artikulu honetan, literatura konparatuaren ezaugarritzetik abiatuta, haren lehen euskal saiakerak aztertuko dira, Lauaxetatik hasita Bernardo Atxagaren lehen urteetaraino: nola gauzatu ziren, ze eztabaidetan garatu, nola kokatzen diren literatura konparatuaren debate orokorretan.

Hitz gakoak: Literatura konparatua, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Pott Banda, Itzulpen-gintza.

La literatura comparada o la visión comparativa de la literatura surgió en el siglo XIX, pero no se desarrolló en la literatura vasca, salvo alguna rara excepción, hasta un siglo después. En este artículo, partiendo de las características de la literatura comparada, se estudiará los primeros intentos que se dieron en las letras vascas en este ámbito, comenzando por Lauaxeta y hasta los primeros años de Bernardo Atxaga: como se concretaron, en que contexto se desarrollaron, que posición ocupan en el debate general de la literatura comparada.

Palabra clave: Literatura comparada, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Banda Pott, Arte de la traducción.

La littérature comparée, ou vision comparative de la littérature, apparut au XIX^e siècle mais ne toucha la littérature basque, sauf rare exception, qu'un siècle plus tard. On étudiera dans cet article, à partir des caractéristiques de la littérature comparée, les premières tentatives faites dans ce domaine pour la littérature basque, en commençant par Lauaxeta jusqu'aux premiers pas dans la littérature de Bernardo Atxaga : comment elles se concrétisèrent, dans quel contexte elles se développèrent et quelle position elles occupent dans le débat général sur la littérature comparée.

Mots-clés : Littérature comparée, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Pott banda, Art de la traduction.

Comparative literature or the comparative view of literature emerged in the 19th century, but did not develop in Basque literature, with rare exceptions, until a century later. This paper sets out from the features of comparative literature to consider the first attempts in this respect in Basque writing, ranging from Lauaxeta to the earliest years of Bernardo Atxaga: how they were implemented, in what context they developed and what place they hold in the general debate on comparative literature.

Keywords: Comparative literature, Lauaxeta, Bernardo Atxaga, Pott Group, Art of translation.

Sarrera

Literatura konparatua diziplina XIX. mende amaieran eta XX. mende hasiera artean ezarri zen Europan; orduan argitaratu ziren lehenengo monografiak, lehenengo aldizkariak eta sortu ziren lehenengo unibertsitateko katedrak. Hitza bera, testuinguru frankofonoan –garai hartako kultur potentzia handienean, alegia– sortu eta garatu zen¹, baina berehala zabaldu zen Europako beste nazioetara eta baita Estatu Batuetara² ere. Iberiar penintsulara, ordea, geroago iritsi zen; Pulido Tirado-ren arabera, adibidez, Espainian literatura konparatua ez zen garatu XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadak arte (2001, 11-20). Orduan sortu ziren, besteak beste, estreinako lizentziatura ikasketak eta katedrak.

Euskal Herrian ezin esan daiteke literatura konparatua askoz lehenago zabaldu zenik. Ikasketei dagokionez, Espainiako egoera baino are eskasagoa izan dela esan daiteke, ez baita egon ez literatura konparatuko lizentziatura edo gradurik ezta katedradunik ere. Boloniako erreformaz gero, «Literatura konparatua eta literatur ikasketak» masterra eskaintzen du EHUK, baina aztertu beharko litzateke, izenaz harago, hor lantzen den ikuspuntua konparatistikoa denetz. Literatur aldizkarietara dagokienez, ostera, esan daiteke 80etan agertu zela estreinakoz ikuspegi konparatistikoa zuen literatur aldizkari bat. Artikulu honetan azalduko dugun gisara, *Pott* izan zen aldizkari hori.

1. Literatura konparatua

Literatura konparatua zer den eta ikuspegi konparatistiko hori zertan datzan zehaztea, alabaina, ez da lan sinplea. Esparruaren definitze zailtasunei buruz mintzatu izan dira ikerlari asko. Claudio Guillén-ek lausotasun hori azpimarratu zuen bidenabar: «Por Literatura Comparada –rótulo con-

¹ Sainte-Beuve jotzen da 1868 aldera behin-betiko «literatura konparatua» hitza ezarri zuen idazletzat (Vega, 1998)

² 1903an sortu zen *Journal of Comparative Literature*.

vencional y poco esclarecedor— suele entenderse cierta tendencia o rama de la investigación literaria que se ocupa del estudio sistemático de conjuntos supranacionales» (2005, 27). René Wellek-ek ere antzeko zerbait adierazi zuen urte batzuk lehenago: «The term ‘comparative’ literature is troublesome and doubtless, indeed, one of the reasons why this important mode of literary study has had less than the expected academic success» (1963, 46). Edonola ere, literatura konparatua literatura nazionalen esparru murriztaren gainditze moduan ulertu dela esan daiteke. Literatura nazionalak (Europakoek behinik behin) tradizio komun bat dutela edo haien artean sare konplexu bat osatzen dutelako ideian oinarritzen da. Haren aurrekari garbiena Goethe-k 1827an plazaratutako *Weltliteratur* kontzeptua jotzen da, zeina «munduko literatura» edo «literatura unibertsala» moduan itzuli ohi den. Kontzeptu hori azaltzerakoan zera dio Goethek.

Cada vez me doy más cuenta de que la poesía es un bien común de la humanidad que se manifiesta en todos los lugares y épocas y en cientos de personas (...) Hoy en día la literatura nacional ya no quiere decir gran cosa. Ha llegado la época de la literatura universal y cada cual debe poner algo de su parte para que se acelere su advenimiento. (Eckermann, 2005, 267)

Intuzio horri tiraka eta literatura nazionalak auzitan jarriz osatu zen, honenbestez, literatura konparatua, eta lausotasun arazoak gorabehera, Remak-ek 1961ean eman definizioa hartu ohi da definizio kanonikotzat.

La literatura comparada es el estudio de la literatura más allá de las fronteras de un país particular y el estudio de las relaciones entre la literatura y otras áreas del conocimiento o de opinión, como las artes (i.e., pintura, escultura, arquitectura, música, la filosofía, la historia), las ciencias sociales (i.e., política, economía, sociología), las ciencias naturales, la religión, etc. En resumen, es la comparación de una literatura con otra u otras y la comparación de la literatura con otros ámbitos de la expresión humana. (1998, 89)

Literatura konparatuak, beraz, ezinbestean, munduko literatura diferentetikiko sentsibilitatea eskatzen du, haiak aintzakotzat hartzea eta elkarren arteko dialektika lantzea. Horregatik dio Guillének literatura konparatua bata eta askotarikoaren (lo uno y lo diverso) arteko erlazioan zertzen dela. Hala, beste

bide bat suposatzen du literatura aztertzeiko ikuspegi tradizionalarekiko³, zeinak literatura tradizio literario bakoitzaren begi estuetatik ikertzen zuen. Literatura konparatua adiera murriztaileagoan ulertzen da gaur egun ere, literatur ikerketarako metodologia zehatz gisa, baina Goetheren *Weltliteraturtik* hasten den ildo luzeak metodologia bat baino zerbait sakonagoari egiten dio erreferentzia, literatura bera ulertzeko moduari besteak beste⁴. XX. mendeko 50eko hamarkada bukaeran garatutako «literatura konparatuaren krisia» delakoan, hain justu, literatura konparatuaren izaera egon zen auzitan, eta besteak beste arestian aipatu Wellek eta Remakek parte hartutako eztabaidak (Vega, Carbonell 1998: 69-133) argi uzten du auzi metodologiko batek baino erro sakonagoak dituen arazoa dugula literatura konparatuarena. Ez alferrik, Susan Bassnett-ek azaltzen du nola XX. mendeko 60ko hamarkada aldera teorikoen kexa nagusienetakoa zen hain justu literatura konparatuak ez zuela metodologia koherente zehatzik (1998: 92). Literatura konparatuak literaturaren sakoneko auziei eragiten diela ikusteko, aski da literatura konparatuak eta ikuspegi filologistak literatura definitzeko duten modu ezberdinari erreparatzea. Remaken definizioan ikusten denez, literatura konparatuak, literaturtasuna zentzu zabalagoan ulertzen du, hala beste arte diziplina batzuekin harremanetan, nola zenbait ezagutza esparrurekin elkarreraginean⁵. Gainera, literaturaren ondareari dagokionez ere, ezberdintasuna errotikakoa da, literatura konparatuak mundu osoko ondare literarioa hartzen baitu bere (idealki bederen), eta ez soilik tradizio edo esparru literario batekoa. Horregatik, literatura konparatua, ikerketa molde bat izatetik harago, ezagutza esparru edo diziplina oso bat dakegu. Arestian aipatu berri dugun ikuspegia legoke haren oinarrian, eta balio edo proiektu orokorragoekin egongo litzateke hertsiki loturik. Esate baterako, egungo zenbait ikerlarik Europaren ideia eta izaerarekin estuki loturik ikusten dute literatura konparatuaren problematika (Martí, 2005).

³ Ikuspegi filologista ere deitu izan zaio.

⁴ Literatura konparatuko unibertsitate-sail, katedra, lizentziatura eta masterrak egoteak, esaterako, metodologia bat baino gehiago den zerbaiten arrastoa jartzen gaitu, esate batera.

⁵ Ildo honetatik tiraka, literatura konparatutik sortutako zenbait ikuspegi «literatura» kontzeptua bera zalantzan jartzera edo ezandaraztera iritsi dira, eta nahiago dute «kultura konparatuaz» edo «ikasketa kultura konparatuaz» hitz egin, Steven Totosy de Zepetnek-ek «From Comparative Literature Today Toward Comparative Cultural Studies» artikuluan egin bezala.

Horregatik guztiagatik, artikulu honetan literatura konparatua⁶ ulertuko dugu diziplinaren oinarrian dagoen ikuspegi moduan, eta ez ikerketa-metodologia huts gisa. Ikuspegi hori «literatura nazionala»ren ideia hertsia gainditzen ahaleginduko litzateke eta literatura beste hausnarbide moderno batzuetatik pentsatzen; hala nola, filosofia, ideien historia, soziologia eta abar. Euskal literaturaren historiari erreparatuta, euskal kultura eta literaturaren garapen prekarioak etengabe bultzatu zuen literatura ikuspegi aberztaletik begiratzera, non literatura proiektu nazional handiago baten zati baino ez zen (paradigmatikoki Aitzolen egitasmoan ikusten denez). Bestetik, eliza eta erlijio katolikoaren zamak ere, apenas utzi zuen zirrikiturik arestian aipatu hurbilpen modernoago batzuk egiteko, eta literatura beste zientzia eta pentsamendu esparru zein kanon garaikideekin lotzeko. Hala, XX. mendeko 30. hamarkada arte, nekeza da euskal literaturan ikuspegi konparatistikoaren zantzuarekin topo egitea.

2. Literatura konparatua euskal literaturan

2.1. Aurrekariak

Euskal Herrian, literatura konparatutzat har litezkeen lehen lanak nahiko berandu agertzen zaizkigun arren, XX. mendeko lehen erdian topatzen ditugu argiki jada diziplinak planteatzen dituen zenbait problematika. Berezi Euskal Pizkundean, literatura konparatuaren erdigunean kokatzen diren zenbait eztabaida garatu ziren, zeinetan Orixe eta Lauaxeta izan ziren protagonista nagusi.

Hala ere, aurretik, Luis Jauregi Jautarkol-en *Biozkadak* poema liburuaren argitaratzean jada ageri zaigu garaiko eztabaida estetikoaren erdigunean egongo den gaietako bat, eta literatura konparatuarekin erlazioa duena: herri poesia vs. kanpoko olerkigintza. Liburuaren hitzaurre egile Damaso Intza-ren aburuz, euskal poeta berriak kanpoko erreferenteei begira ari ziren, Euskal Herriko literatur tradizio herritarra bazter utziz. Hori, Intzaren ustez, beren poesia-

⁶ «Ikuspegi konparatistikoa» ere deituko diogu.

ren kaltetan zen, eta horren kontrapuntu, berriz, Jautarkolen poesiagintza: «Luis Jauregi poeta da, aita Intzaren ustez, euskal usaina duen herri-poesiaren eredu nagusia» (Iztueta, 2002, 50). Orixek, bestetik, liburuari egindako iruzkinean, kontrakoa leporatzen zion Jautarkoli, hots, kanpoko ereduak imitatu edo moldatu izana, alegia, eta ez zela Zaldubi-ren gorentasunera iristen, haren «euskal nerbioa» falta duelako (Iztueta, 2002, 52). Hau da, garaiko zenbait kritikarirengan errotua zegoen ideia komunaren arabera, bikaintasun poetikoa Euskal Herriko nortasuna islatuz lortzen da, eta ez kanpoko ereduak imitatuz edo moldatuz, nahiz eta printzipio horren balorazioan, Jautarkoli dago-kionez, Intza eta Orixe desados egon. Balio literarioa, haien ustez, euskal tradizio estetiko propioan oinarritzen zen.

Eztabaida hori bereziki agerian geratu zen 1931n, Lauaxetaren *Bide-barririk* poema liburu argitaratzearekin. Orduan, aurreko ideia horiek garatuz, argi eta garbi uzten du Orixek zein den bere literatur ideien sakonean dagoen teoria estetikoa. Klasizismoari jarraiki, haren arabera, balio estetikoak eternalak dira, eta ondorioz, modernitateak bultzatzen dituen arau tradizionalen haustura bazterten du.

Orixerentzat garrantzitsuena ez da ideietan edo hizkuntzaren erabileran modernoak izatea; aitzitik, pentsamenduaren eta afektuaren arteko ezkontza harmoniatsua lortzean datza literaturaren handitasuna. Horixe da, hain zuzen, literatura modernoari, frantsesari eta areago oraindik espainolari, falta zaiona: harmonia, neurria, batasuna. Literatura modernoan pentsamendua eta bihotza dibortziatuta dabilta eta horregatik dituzu hain ahulak, hain kaskarrak, hain hutsalak oraingo hainbat poesia. Hori horrela, eredu poetikoaren bila abiatzeko orduan, hobe da beste aro eta beste literatura batzuk arakatzea. (Iztueta, 2002, 59)

Lauaxetaren erreferentzia garrantzitsuenetakoa Frantziako poesia sinbolista izan zen, eta hori arazotzat ikusten zuten hala Orixek nola Aitzolek⁷. Modernitatearen kontrako jarrera hori, bereziki markatua da Orixerengan 1932ko «Maitale kutuna» artikuluan, zeinak Lauaxeta beraren erantzuna

⁷ Aitzolek «Poesia purua» deitzen dio eta Orixek «Poesia kontzeptista» poesia molde horri (Iztueta, 2012).

ekarriko duen –«Erantzuna» (1982) izeneko idazkian hain zuzen ere–. Eragin frantsesari dagokionez, Kortazarrek azaltzen duenez, ez dago askorik eztabaidatzeko, Lauaxetak berak onartu baitzuen eragin hori (Kortazar, 1986, 29). Orixerengan moda kontua zena, ordea, Lauaxetarentzat klasiko garaikide zen, eta horretan zetzan poesia sinbolistari buruzko ezbaia. Orixerentzat nekez izan zitekeen autore garaikide bat klasiko; Lauaxetarentzat, aitzitik, klasikotzat jo behar ziren poeta garaikideak egon baziren. Artikulu gurutzaketa horretan, bada, poesia klasikoa zertan datzan eztabaidatu zuten funtsean.

Orixek klasikotasunaren ikuspegi zehatza du, batez ere Biblia (Dabid), klasiko greko-latindarrak (Sofocles, Virgilio, Platon) edo, gehienez ere Berpizkundeko autoreak (Luis Leongoa) jotzen baititu klasikotzat⁸. Lauaxetarentzat autore moderno eta garaikideak ere klasiko izan litezke, adibidez Frantziako poeta sinbolistak beraiek eta, bereziki, Paul Valéry. «Valery jaunari Nobel saria emongo deustoe⁹. Orixek gura leunken moetakoa dogu Valery? Inondik bere ez! Euzkadin jaio balitz, Orixeren zigorkadea lepoan eroango eban, baiña Francen bere kritikoak sortuko ziran klasikoetan aziak ta Valery jaunari saria emoten deustoe» (Lauaxeta, 1982, 135). Orixek eta Lauaxetaren arteko eztabaida hori aztertzerakoan, ez dira bat etorri beren kritiko nagusiak, Paulo Iztueta eta Jon Kortazar, hurrenez hurren.

Kortazarrek dio biek klasizismoa modu berean definitzen dutela, forma eta edukiaren arteko oreka moduan, *sophrosyne* moduan, alegia: «Esa armonía entre fondo y forma, fórmula que enunciada así no dice demasiado es lo que los dos escritores proponen» (Kortazar, 1986, 30). Diferentzia, baina, hemen legoke: oreka hori zertan datzan edo nola gauzaten den. Orixek oreka hori modu prezeptiboan ikusten du, lege iraunkor moduan, klasizista on gisara: «Hay leyes filosóficas eternas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida, y sobre todo, la unidad

⁸ Iztuetak dioen bezala (2002, 66) Orixek onartu zuen inon klasiko garaikide izateko aukera teorikoa, baina egiazki, praktikan, antzinako autoreen adibideak baino ez zituen ematen, eta poesia sinbolista gutxiesten.

⁹ Azkenean Valeryk ez zuen Nobel saririk jaso.

artística, que hoy tanto se descuida» (Orixe, 350). Lauaxetaren klasiko kontzeptua dinamikoagoa da Kortazarren ustez.

Para Lauaxeta el concepto clásico depende del tiempo, es diacrónico. Con el tiempo no sólo cambia la forma de entender el concepto «clásico» sino que evoluciona también la forma de «componer» la clasicidad, la literatura clásica. Para Lauaxeta, clásico es aquél que exprese mejor el mundo de su tiempo; cada época tiene su clásico y su forma de hacer clasicismo; ellos, Lauaxeta y Orixe debían, según el primero, usar en su poesía de las técnicas del cine y la fotografía, por ejemplo. El concepto de «lo clásico» es evolutivo, no inmutable. (Kortazar, 1986, 30)

Iztueta bat dator Kortazarrekin bi autoreek klasiko kontzeptua *sophrosyne* gisara ulertzen dutelako iritzian, eta baita bien arteko diferentzia printzipio horren aplikazioan dagoelakoan ere. Lauaxetaren kontzeptua, Orixere-na baino zabal eta eklektikoagoa (Iztueta, 2002, 68) da, eta horretan oinarritzen da desadostasuna. Iztuetaren ustez, ñabardura kontua da, ez dago Kortazarrek azaltzen duen bezainbateko alderik.

Hemendik zer ondorioztatu behar den? Klasikotasunaren eta modernotasunaren arteko eztabaidan Orixek lehen aukera eta Lauaxetak bigarrena ordezkatzeko dutela? Lauaxetak, Orixek ez bezala, euskal literatura aurreiritzi klasizistatik askatzen duela? Hala pentsatzen duela dirudi Jon Kortazarrek dioenean Lauaxetak poetika berri bati ateak irekitzen dizkiola, «klasiko» kontzeptuari objektibitatea eta normatibitatea ukatuz gero, poesiaren funtsa edertasun eta egiaren baitan ezartzen duenean. Nik ez dut uste Orixeren eta Lauaxetaren artean halako diferentziarik dagoenik, ez bederen klasikotasunaren eta modernotasunaren artean egon daitekeen adinakorik. (Iztueta, 2002, 71)

Egiazki, Iztueta eta Kortazar ez daude lehenengoak dioen bezain desados, biek ezartzen baitute debatea modu antzekoan, klasikotasunaren inguruan. Kortazarrek Lauaxetaren klasiko kontzeptuan zer dagoen ondo adierazten du, baina ez du garatzen kontzeptio horrek zer suposatzen duen; ez du garatzen, Iztuetak ondo intuitzen duen bezala (nahiz eta desados egon), kontzeptio hori ez dela ezbaia terminologiko bat soilik; aldiz, hondoan Orixeren

eta Lauaxetaren poetiken arteko errotiko ezberdintasun bat dagoela dio, estetika klasiko eta estetika moderno baten arteko aldea, hain zuzen ere.

Garaiko euskal literaturako ideologia kritiko dominante klasikozelean, ziur aski, Lauaxetak ezin izan zuen esplizituki modernoago azaldu, baina bere argudiatzean, funtsean, estetika moderno bat topatzen ahal dugu. Kontua da estetika hori klasizismoaren inguruko eztabaida batean mozorrotzen duela Lauaxetak, hau da, estetika moderno bat agerian defendatu beharrean, Orixeren terminoetan eztabaidatzen saiatzen dela, eta kontuak debate terminologiko baten itxura hartzen duela (Iztuetak uste duen moduan). Alde horretatik, Lauaxetak ohi baino gehiago luzatzen du klasikotasunaren kontzeptua, hain justu berak benetan maite dituen autore modernoak bertan kabiarazteko, eta garai klasikotik (ondare greko-latindarretik) harago klasikoak egon litezkeela aldarrikatzen du. Diferentzia hori dirudien baino muntakoagoa da, modernitateak ezartzen duen ondare klasikoarekiko askapena suposatzen baitu. Adibideak ematerakoan erakusten du Lauaxetak poesia modernoarekiko bere jaidura hori modu agerikoenean. «Virgili begiko jat, baiña Goethe begikoago. Teokrito ez da neure lan etsaia, Maragall adiskideago. Horatius zeuretzat emongo deusut Keats, Novalis edo beste bategaitik» (Lauaxeta, 1982, 135). Horiei beste zenbait autore erromantiko eta modernoren aipamenak gehitu behar zaizkie, esaterako, Giacomo Leopardi, Alphonse de Lamartine, Hölderlin, Heinrich Heine, Charles Baudelaire. Bistan denez, segida horrek poesia erromantikotik poesia sinbolistarako bidea erakusten digu, hots, poesia modernoaren bidea (Poe, 2010).

Azpimarratzekoa da, esate baterako, Novalisen aipamena, zeina klasizismoaren lehen kritiko garrantzitsuenetakoa dugun. Jenako Erromantizismo-kide, Erromantizismo apurtzaile eta iraultzaileenaren adibidetzat jo daiteke, zeinak bidea ireki zuen modernitatera. Bereziki, ordura arte erdigunean zegoen ondare klasikoarekiko harremana irauli zuen Erromantizismoak, eta zehazki, Novalis berak. Erromantizismoaren hausturatik aurrera, ondare klasikoaren berreskurapenak bazterrekoak bilakatuko dira eta berritasunak hartuko du artearen erdigunea (Llovet, 2005). Izan ere, Erromantizismoaren etorrera arte, ondare klasikoa zen neurri estetiko funtsezkoa, non poe-

tikek ezartzen zuten jarraitu beharreko araua¹⁰. Erromantizismotik aurrera, bada, eta bereziki modernitatean, aurrez ezarritako arau estetiko edo poetika klasiko horiekin hautsiko da, neurri estetiko egonkor ororekin (Adorno, 2004). Sormenerako iturria kanpoko poetika klasiko batean egotetik indibiduoaren barrenera egotera igarotzen da, eta, ondorioz, askoz ere dinamikoago eta askeago bihurtzen. Hala, indibiduoaren sormenerako abilezia hori adierazteko, *witz* terminoa bihurtuko da erromantizismoko kontzeptu nagusienetakoa, euskaraz «grazia» moduan itzul daitekeena¹¹. Biraketa hori ongi aski adierazi zuen Lauaxetak aipatutako Novalisek berak; iraganean baino orainaldian eta indibiduoarengan dago eternitatea haren aburuz. «En ningún otro lugar, sino en nosotros, se encuentra la eternidad con sus mundos, el pasado y el porvenir» (Novalis, 1987, 49). Historiaren eta klasikoaren zama kentzeari eta indibidualtasunarekin kontrajartzeari dagokionez, aski esplizitua izan zen halaber: «El individuo sólo interesa, por ello nada de lo clásico es individual (51)». Izan ere, Novalisek zirriborratzen duen arte teoriak modernitatea iragartzen du, bere erdigunean prezeptiba klasiko bat ipini beharrean indibiduo eta munduaren arteko lotura mekanismo bat jartzen baitu: «L'art de estranyar¹² d'une manera *agradable*, de fer un objet *estrany* i tot i això conegut i atractiu, això és la poètica romàntica» (Novalis, 1998, 187).

Ez da ahaztu behar, halaber, eztabaida hori testuinguru jakin baten abarogan garatu zela, zehazki Aitzolek gidaturiko pizkunde nazionalaren egitasmoaren estalpean. Lourdes Otaegik aztertu duenez, Aitzolek «herriarengan eragina izango duen literatura» hobesten zuen, eragin hori azkarra izango zena gainera, eta horretarako poesia ikusten zuen genero behinena (Otaegi 1996: 503). Hala, ezagun denez, Frédéric Mistral-ek proventzeraz idatzitako

¹⁰ Bi poetika klasiko ezagun dira, esate batera, Horacio-ren *Ars Poetica*, K.a lehen mendekoa, eta neoklasizismoko *L'art poétique*, Nicolas Boileau-rena.

¹¹ Terminoa aurretik sortua bada ere, batez ere lehen erromantizismo alemaniarrean hitz giltzarria izan zen. Ingelesez «wit», espainieraz «ingenio» eta frantsesez «esprit» hitzekin itzuli izan da.

¹² Ez da aipatu gabe utzi behar Novalisen arrotz egite hori (*befremden*) XX. mendean Viktor Shklovski formalista errusiarrak, literatur teoria modernoaren gurasoetako batek, proposatutako urruntze kontzeptuaren oso kideko dela.

Mireio eta finlandierazko Elias Lönnrot-en Kaleva zituen eredutzat, eta horien kide litzatekeen poema nazionala egiteko enkargua egin zion Orixeri. *Euskaldunak* dugu enkargu horren emaitza. Testuinguru horretan, bada, Aitzolek eta Orixek bat egiten dute poesia molde nazional baten beharriaz, zeina kontzientzia nazionala piztera deituko duen.

Modernitateari buruzko eztabaida, eta zehazki, Lauaxetaren posizioa, literatura konparatuaren aurrekaritzat har litekeela ulertzeko, modernitatearen eta literatura konparatuaren arteko harremanaz jabetu beharra dago. Ez alferrik, ikuspegi historiko batetik, hala modernitate literarioa nola literatura konparatua garai berean garatzen dira, XIX. mendeko bigarren erditik aurrera. Ez da kasualitatea literatura konparatuaren lehen kritikotako bat, Sainte-Beuve, eta lehen idazle modernoak (Baudelaire¹³ eta Flaubert, esaterako) garaikideak izatea. Izan ere, ikusi dugun moduan, modernitateak, besteak beste, kanon klasizistarekin haustea suposatzen du, eta ondorioz, kanonaren ideia zurruna malgutzeta. Kanonaren irekitze horrek eragiten du tradizio greko-latindarretik harago dauden testu eta autoreen aintzatzea, hots, literatura nazional diferenteetako¹⁴ erreferentzia berriak balioestea. Kanon klasiko itxi bakarra ez dagoela eta «berritasun» kontzeptu modernoak kanon berrietarako aukerak irekitzen dituela ohartzea ezinbestekoa da literatura konparatuaren agerpenerako. Kanon aberastasun hori gabe ezinezkoa bailitzateke ikasketa konparatistikorik; kanon klasiko greko-latindarraz harago beste kanon nazionalik egon gabe, ezinezkoa litzateke literatura konparatua. Bada, kanonaren inguruko eztabaida hori da azaleratzen dena hain justu Orixe eta Lauaxetaren artean, ez Iztueta ezta Kortazarrek ere antzematen duten diferentzia errotikoa.

Izan ere, Lauaxetak beste literatur tradizio batzuetako erreferentziak aldarrikatzen ditu *de facto* debatean: idazle frantziar sinbolistak oroz gain, baina baita beste zenbait alemaniar, ingeles, italiar, kataluniar ere. Orixeren kanonaren aurrean, funtsean latindarra eta espainiarra dena, Lauaxetarena

¹³ Horrek ez du esan nahi Sainte-Beuvek eta Baudelairek ikuspegi estetiko bera zutenik. Ikus M. Proust, *Contre Sainte-Beuve*.

¹⁴ Egiazki, kritika postkolonialak esango du gerora ez direla tradizio horiek hain diferenteak, funtsean Europako literaturak hartzen baitira kontuan. Ikus, E. Said.

dezente aberatsagoa da, eta hala, ikuspegi konparatistikorako aukera irekitzen du. Bi tradizio ezberdin horien aldarrikapenaren sakonean azalean dirudien baino desadostasun funtsezkoagoa dago, arestian aipatu legez. Hori bai, egiazki, ezin esan liteke Lauaxetak literatura konparatua egin zuenik, baina dudarik gabe, hark defenditutako ideia estetiko modernoek, nahiko lotsati eta herabeak izanagatik, literatura konparaturako ildoak markatu zuten, nahiz eta, jakina, Lauaxeta bera horren kontziente ez izan.

2.2. Modernitatea eta literatura konparatua

Aurretik argudiatutakoaren ildotik, modernitatearen agerpena arrasto egokia izan daiteke literatura konparatuaren presentzia identifikatzeko. Euskal literaturaren kasuan ere halaxe gertatzen dela esan daiteke, euskal literatura modernoaren agerpena eta lehen aldarrikapen konparatistikoak garaikideak direlako.

Euskal literatura modernoaren jaiotzaren inguruan dezente idatzi izan da (Sarasola, 1975; Apalategi, 2015), batez ere nobelagintzari dagokionean. Edonola ere, euskal literaturaren historia gehienetan, zaharxeagoetan (Sarasola, 1971) zein berriagoetan (Urkizu, 2000; Lopez Gaseni, 2002; Aldekoa, 2004; Olaziregi, 2012), gutxi-asko 60-70. hamarkaden bueltan kokatzen dute euskal literaturaren aro modernoaren hasiera bete-betekoa. Modernitate horren baitan estreinako urratsa izan ez arren, hastapeneko garrantzizkoenetakoa izan zen Atxagaren lan literario zein teorikoa –azken hori aski ezezagunagoa–. Lan teoriko horri jarriko diogu arreta, zeina Pott Banda sortu aurretik hasi zen baina bereziki *Pott* aldizkarian gorpuztu zen, eta literatura konparatuaren lehen aldarrikapen argizatzen jo daitekeen.

2.2.1. Bernardo Atxaga

Bernardo Atxaga izan zen *Pott* aldizkarian ikuspegi teorikotik artikulatu eta sakonena idatzi zituen kidea. Egiazki, kulturari eta literaturari buruzko artikulua elaboratu eta polemikoak idazteko joera aurretik zetorkion. Artikulu horietako gai garrantzitsuenetako bat zen hain justu Euskal

Herriaren eta munduko herrialde eta kulturen arteko harremana, eta jarrera ikusiko dugun eran, hor agertuko da estreinakoz euskal literaturan ikuspegi konparatistikoa.

Artikulu horien arteko lehenengoa *Anaitasuna* aldizkarian argitaratu zuen 1974ko hastapenetan, bitan zatituta 268 eta 269 zenbakietan. «Euskal Theatro Berriaren bila» izenburua jarri zion eta NHI (Nazional Herriko Iraultzailea) antzerki bat sortzeko argibideak ematen zituen. Izan ere, gaur egungo ikuspuntutik arraroa irudi dakigukeen arren, Atxaga bertsolaritzari eta antzerkiari buruzko artikulekin hasi zen argitaratzen prentsan. Antzerkiari dagokionez, kontuan izan behar da artikulu hori argitara eman baino bi urte lehenago publikatu zuela *Borobila eta puntua* lana Gabriel Arestik apailatutako *Euskal Literatura 72* liburu kolektiboan¹⁵. «Euskal Theatro Berriaren bila» artikuluan nabaria denez, antzerkiarekiko zaletasun handia zuen garai hartan Atxagak, eta neurri batean, antzerkia izan zen euskal literaturarako Atxagaren sarbidea.

Harentzat, NHI antzerkia bi habetan oinarritzen zen.

Gauzak honela, NHI-k bi zutabetan oinharriturik eraikiko du bere etxea, hots, bere teatro lengoaia:

- munduan eman diren teoriak aztertuz, konprenituz, eta, kome-nigarri iruditzen bada, gure kasurako aplikatuz.
- euskal kulturaren erantzunak (gai honi buruz, noski) aztertuz eta erabiliz. (Atxaga, 1974)

Atxagarentzat, euskal kulturaren berritzeak ezinbestean egon behar zuen mundu mailan egiten ziren ekarpenei loturik. Antzerkiaren berritzearen bi zutabeetako batek horri egiten zion erreferentzia hain justu, eta hori zen euskal antzerkiaren atzerapenaren bi kausa nagusietako bat: «Bada, guri iruditzen zaigunez, Euskal Herrian orain arte eman den teatroak, alde ba-tetik, ez die batere jaramonik egin Europa eta mundu osoan nagusitu diren teatro teoria horiei (kalitatea lortzeko posibilitateak urrituz, jakina)»

¹⁵ Lan horretaz gain *Oskar* ipuina ere argitaratu zuen liburu berean. Horiexek dira Atxagak inoiz publikatutako lehenengo literatur lanak.

(Atxaga, 1974). Horrek ez du esan nahi, haatik, euskal antzerkiak kanpoaren imitazio hutsa izan behar duenik, beste zutabeak barrura begiratzen baitio, euskal kulturaren tradizioa¹⁶. Munduko teoriari begiratzeko aldarri hori, gainera, ez zuen plano teoriko hutsean uzten. Artikuluan zehar zenbait erreferentzia eskaintzen zituen. Nabarmenenak, Peter Brooks eta Bertold Brecht, baina horiekin batera, baita beste zenbait antzerkigile moderno edo garaikide ere: Alfonso Sastre¹⁷, Jean Genet, Konstantin Stanislavsky, Roy Hart, Jerzy Grotowski, Antonin Artaud eta Japoniako No antzerkia.

Atxaga ikuspegi konparatistikoa ezarian lantzen joan zela ohartzen gara artikulu hori geroagoko beste batzuekin erkatzen badugu. Munduko literatura eta teoriak sormenerako zutabe bat izan arren, itzulpenari ez zion oraindik (geroago ez bezala) garrantzi handirik ematen. Euskal antzerkiko garaiko obra gehienak «metafisiko eta eskas»tzat zituen, eta gabezia horri aurre egiteko proposatzen zen bide bakarra Espainiako belaunaldi errealistaren (Sastre, Lauro Olmorena) lanak itzultzea zen. Atxaga, baina, oso adierazkorra zen puntu horretan: «Guretzat, itzulpenak bigarren mailako soluzioak dira» (Atxaga, 1974). Jakina, horrek ez du esan nahi Atxagak itzulpenak erabat gutxiesten zituenik, baina agerikoa denez, orduan itzulpen-gintza ez zitzaion iruditzen euskal literaturako hutsuneak betetzeko soluzio egokia.

2.2.2. *Pott eta literatura konparatua*

Atxagari lehenagotik bazetorkion ere munduko literaturaren eta euskal literaturaren arteko harremanen inguruko kezka, Pott izan zen kezka horri garai hartan emandako erantzun argiena. Proiektuak hasieratik bi

¹⁶ Interesgarria da ikustea Atxagaren tradizioaren ikuspegia, haatik, dinamikoa dela, «bizia» bere hitzetan: «Tradizio biziduna, guretzat, historian zehar funtzionalitate desberdinak eduki ditzakeen hura da» (Atxaga, 1974). Hau da, euskal kulturak barnera begiratu behar badu ere, ez du modu estatiko klasikoan begiratu behar, baizik eta euskal tradizioa berrirakurritik eta berrereabiliz.

¹⁷ Aldizkari berean argitaratutako hiru urte ondorengo antzerki kritika batean, Sastreren *Miguel Servet* obraren *El Buho* kolektiboaren moldaketaren kritika egin zuen. Obra originala goraiatzat bazuen ere, moldaketarekin oso kritikoa izan zen.

helburu nagusi izan zituen: batetik, zenbait literatur lan (poemak, ipuinak...) eta artikuluko argitaratzea, eta bestetik, euskal literaturaren ikuspegia zabaltzea, bereziki munduko literaturaren barnean kokatuz. Bigarren helburu horri lotuta ageri zaigu literatura konparatuaren ikuspegia. Bide batez, aipagarria da orobat Lauaxetak lekua izan zuela aldizkarian. Azkeneko alean, *Pott Tropikalan*, Lauaxetari buruzko bi artikuluko argitaratu zituzten, Jon Kortazarrek idatziak; bata, poetak Alea taldearekin¹⁸ izan zuen harremanari buruzkoa, eta bestea, *Langile eraildu bati* poemari buruzkoa.

Potten ikuspegi ireki eta konparatista horretan garrantzitsua izan zen Joxemari Iturralde, Potten sustatzaile nagusienetakoa, nahiz eta aldizkariari egin zion ekarpena ez den aski aintzat hartua izan. Izan ere, Atxagarekin batera, bera izan zen aldizkariaren sortze lanetan, ekoizpen eta enparauetan gehien inplikatu zen kidea (Sarasola, 2015). Iturralde izan zen, bestetik, aldizkarian munduko literaturari eskaini zieten tartetan ere lan gehienetarikoa egin zuena. *Pott Tropikala* hartzea besterik ez dugu, non Pragako literaturari buruzko atal monografikoko zazpi testuetatik gutxienez hiru bereak diren; ipuin bat, itzulpen bat (Johannes Urzidil-en kritika lan bat) eta olerki bat (Iturraldek inoiz argitaratutako bakarrenetakoa). *Pott Tropikala*-ko Pragari eskainitako atal monografikoaz gain, beste zenbait ondu zituzten beste aleetan. *Pott bandaren blaga*-n (bigarren zenbakian) eta *Pott 3n* poloniar literatura izan zuten ardatz, baina beste leku batzuetakoak ere ekarri zituzten: literatura mexikarra (Juan Jose Arreola), literatura beltza (Ross McDonald), literatura irlandarra (poesia klasikoa eta James Joyce), literatura galegoa (Xose Luis Mendez Ferrin) eta literatura katalana (Pere Gimferrer). T.S. Eliot-en poesia izan zuten hizpide *Pott bandaren braga*-n (lau garren zenbakian)n, zeinetik gerora liburu bat aterako zen, *T.S. Eliot euskaraz*, Hordago argitaletxeak argitaratua 1983an. Gabriel Aresti, Joxemari Iturralde, Jon Juaristi eta Joseba Sarrionandiaren itzulpenez osatu zuten liburua, eta hastapenetan, Pott bandak sortu nahi zuen argitaletxean publikatzeko asmoa zuten. Horretaz gain, aurreko aletik zetorren poesia

¹⁸ Asociación Libre de Ensayos Artísticos izeneko idazle eta intelektualetan taldea, artearekin eta literaturarekin erlazioz atutako hainbat jardunaldi antolatu zituzten.

irlandar klasikoaren ildotik ekarritako beste poema baten itzulpena ere argitaratu zuten *Pott bandaren bragan*: egile anonimoa duen *Agur Irlanda*. Azkenik, *Pott bandaren praka*-n (bosgarren zenbakian) ez zuten munduko literaturatik ezer berezik ekarri, ezpada Euskal Herriko erdal literaturatik (batez ere Nafarroatik) eskuratutako zenbait idazleren lanak: Pablo Antoñana, Javier Aguirre, Ramon Irigoyen eta Miguel Sanchez Ostiz-enak. Monografiko horietaz gain, aipagarriak dira ale guztiak zeharkatzen dituzten Hego Amerikako literaturaren erreferentziak, eta horien artean, oroz gain, Jorge Luis Borges¹⁹.

Zenbaki monografiko horiek itzulpenek eta artikulu kritikoek osatzen zituzten gehienbat. Itzulpenak, beraz, giltzarri izan ziren, eta hori dela eta sortu zen, esaterako, Elioten poesia euskaraz edukitzeko egitasmo handiagoa. Kontuan izan behar da garaian apenas itzultzen zela ezer munduko literaturatik euskarara, are gutxiago literatura garaikidetik. 70. hamarkadan Kriselu eta Lur argitaletxeek zenbait liburu interesgarri itzuli zituzten: Kafkaren *Itxuraldaketa* Xabier Kintanak itzulia, Aldous Huxley-ren *Bai mundu berria* Xabier Amurizak euskaratua, Nazim Hikmet-en *Lau gartzelak* Arestik itzulia, Voltaire-ren *Kandiko* Ibon Sarasolaren eskutik, Alfonso Castelao-ren *Kristalezko begia: eskeleto baten oroimenak* Koldo Izagirrek itzulia, Mark Twain-en *Tom Sawyerren abenturak* eta Jack London-en *Oihanaren deia* biak Gillermo Etxeberriak euskaratua eta Lewis Carrol-en *Alizia herrialde harrigarrian* Cruz Mujika-k ekarria. Justu orduantxe hasi zen Elkar argitaletxe sortu berria zenbait lan argitaratzen, baina, gainontzean, aldizkarietan baizik ez ziren argitaratzen itzulpen solteak²⁰. Horiei gehitu zitzairen, bada, Pott, baina berau izaki literatur aldizkari bakarra. Bestalde itzulgaiei zegokienez, alde batetik, aire moderno eta garaikideago bat ekarri zuten besteekin alderatuz, eta bestetik, kanonaren ertzei ere egin zieten jaramon (Poloniako literatura, poesia gaeliko klasikoa, hegoamerikar literatura...).

¹⁹ Lehenago aipatutako Arreolaz gain, Gabriel Garcia Marquez.

²⁰ Horien artean nabarmendu beharra dago Sabin Muniategiren lana, zeinak batez ere *Oleri*, *Karmel*, *Goiz-argi* eta *Esparavel* aldizkarietan poesia itzulpen mordoak argitaratu zuen.

2.2.2.1. Autonomia

Literatur autonomiaren gaia Atxagaren garaiko gai nagusienetakoa zen, nagusia ez bada. Jada *Anaitasuna* eta *Hitz* aldizkarietako artikulua banatan kartsuki polemizatu zuen gaiaren inguruan Joxe Azurmendirekin. Hala ere, literatur autonomiaren defentsan Atxagaren hastapeneko testu garrantzitsuena Koldo Izagirrekin batera *Panpina ustelan* argitaratu zuena izan zen: «Ez dezagula konposturarik gal, halere». Testu hartan esaldi aski esanguratsu bat zegoen, autonomiaren defentsa esplizitua egiten zuena: «Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa ta berezia» (Atxaga, Izagirre, 1975). Testu horixe da euskal literaturako autonomiaren estreinako aldarrikapen argia hainbat ikertzailereren arabera (Torrealdai, 1997; Apalategi, 2000).

70. hamarkada hartan ugariak ziren, besteak beste, alderdi eta antolakunde politikoaren argitalpenak, eta literatur aldizkariak, hain justu, haiekiko aparte osatu ziren, haiekiko independentzia lortu nahian. Garai ultrapolitizatu haietan, literaturaren autonomia aldarrikatzea ekintza politikoa zen dudarik gabe (Sarasola, 2015).

Potten, hala, ildo berean jarraitu zuen Atxagak, batez ere lehenengo aleetan argitaratu zituen lan kritiko aski landuetan. Horietan proposatu zuen Euskadi Ofiziala terminoa, euskal kulturaren erdigunean zeuden pertsona, gune eta diskurtsoak kritikatzeko. Atxagak eta bere kideek Euskadi Ofizial horretatik at kokatzen zuten beren burua, euskal kulturaren periferian. Hain justu Euskadi Ofizialak literaturaren autonomia errespetatzen ez zuela kritikatzeko zuen Atxagak *Pott* aldizkariaren lehenengo zenbakian. Literatur kritika autonomo baten beharrak kezkatzen zuen: «Gure kritika, kritika arbitrario bat da, mafia (eta ez magia) arazo bat. Balore literarioak bost axola, ideologia edo arrazoi taktikoak edo elkarrekin egindako bazkariko autobonboak» (Atxaga, 1978a). Hori arazo orokorrago baten sintoma baizik ez zen harentzat, izan ere, euskal literatura osoa zegoen literaturaz kanpoko motiboek gidatuta. «Literatura moeta asko hedatu bada, arrazoi extraliterario —eta gainera, boterea dagoela tartetik jakina— bategatik izan da (...) Literatu pila bat, txar askoak, erori zaizkigu —izurrite baten moduan— alderdi politiko konkretu bati apartenitzen zutelako, edo ziotelako» (Atxaga, 1978a).

Literatur autonomiaren aferak badu zerikusirik literatura konparatuaren agerpenarekin. Historikoki, artearen autonomiaren debatea eta literatura konparatuari buruzkoa garai bertsuan garatu ziren, XIX. mendean. Izan ere, batetik, Bordieuk erakutsi duenez, literaturaren autonomiaren kontzientzia ezinbestekoa da literatur esparruen osaeran. Zentzu horretan, Flaubert eta Baudelaireren²¹ autonomiaren aldeko jarrera ezinbestekoa izan zen Frantziako literatur esparrua egituratzeko. Kontua da literatur esparru nazionalak osatzeak egin zuela posible literatura konparatuaren agerpena; haiek gabe, literatura ezberdinen arteko ikerketak ezinezko ziratekeen eta. Hala, literaturaren autonomiaren aldarria funtsezkoa izan zen heinean euskal literaturaren esparruaren osaeran, literatura konparatuaren agerpenerako elementu aipagarri bilakatzen da.

2.2.2.2. Itzulpengintza

Esan dugu dagoeneko *Pott* aldizkariak jaidura berezia izan zuela kanpoko literatura Euskal Herrira ekartzeko, besteak beste itzulpenen bidez. Alderdi praktiko horretatik ez ezik, teorikoki ere itzulpengintzaren defentsa egin zuen Atxagak *Potten* hirugarren zenbakian, akaso zenbaki guztietako artikulua mamitsuena dugun «Itzulpena eta traizioaren praktika»-n. Artikulua Pottugalet euzenarekin sinaturik badago ere, Atxagarena dela ziurta dezakegu (Sarasola, 2015). Gai konplexu askoak jorratu zituen testuan –batez ere kontuan izanik ordura arteko euskal esparruko literatur teoria urria–, eta esan daiteke literatura konparatuaren estreinako aldarri argia dugula. Izan ere, itzulpengintza ikasketak literatura konparatuaren sailtzat hartzen dituzte zenbait autorek (Gramuglio, 2006), nahiz eta historikoki bi esparruen arteko harremanak ez diren beti errazak izan (Carbonell, 1998, 143). Hain justu, Atxagaren testu hori adibide egokia da bi diziplinen arteko loturaz jabetzeko.

Itzulpengintzaren teoriaren ikuspegitik, lanaren garrantzia Aiora Jaka-k aztertu du *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionan-*

²¹ Baita poeta parnasianoetan ere, beren *art pour l'art*-arekin.

diaren lanean izeneko tesian²². Jakak postmodernotzat definitzen duen itzul-pengintza teoriaren baitan kokatzen ditu Sarrionandiaren ideiak zein artikulu horretan argudiaturikoak. Literatura konparatuari dagokionez, interesgarriena «literatura nazional» kontzeptuari artikuluak egiten dion kritika da, eta baita nola ezaugarritzen dituen halaber literatura ezberdinen arteko transferentziak (eta hor sartzen dira itzulpenak).

Artikuluaren oinarrian, bada, literatura ikuspegi nazional itxitik begiratzeari egindako kritika gogorra dago, zeinak, ikusi dugun bezala, bete-betean egiten duen bat literatura konparatuaren ideia oinarritzekoetako batekin. Literatura eta hizkuntza ezberdinen arteko hartu-emanak etengabeak direla eta, ez da zuzena espazio geografiko zehatz bateko produkzio literarioa hortik kanpoko obrekiko erabat aparte aztertzea. Juan Goytisoloren hitz batzuk hartu zituen Atxagak oinarri ideia hori indartzeko.

Un análisis, incluso superficial, de la historia literaria nos muestra sin lugar a dudas que el impulso motor de su evolución lo constituye ante todo la interacción e influencia de unas obras sobre otras. Sería ocioso recordar que toda creación artística se produce en un ámbito cultural ya atestado de obras cuya existencia reitera, modifica o niega... (Atxaga, 1978b-k aipatua)

Azken batean, «nazio bat-hizkuntza bat-literatura bat» eredu kritikatzen du, zeina oraindik ere eredu oso indartsua den ikasketa literarioen eremuan. Joseba Gabilondok (2016, 49) dio ikuspegi nazionalista-filologiko hori, «esklusibitate linguistikoan» (linguistic exclusivity) oinarritzen dena, Iberiar penintsulako orain arteko literaturaren historia guztietan presente dagoela. Hark proposatzen duen historia hain justu eredu horretatik aldentzen ahalegintzen da, hurbilpen «subalterno-postnazional-diferentzial» (55) bat proposatuz. Zentzu horretan, Atxagaren kritika hori aski goiztiarra dela esan dezakegu, eta gaurkotasunik ez duela galdu: «Hona hemen funtsean dagoen argudio ezkutua: herri batek hizkuntza propio eta berezi bat behar du, nazio bezala existitu nahi badu behintzat, eta hizkuntz bizitasunaren garantiatzat literatura bernakulo bat ere. Honelako literatura batean, sobe-

²² Jakak ez du zehazten Atxagarena dela artikulua, eta taldeko sei kideei egotzen die egileta.

raz daude itzulpenak» (Atxaga, 1978b). Eredu horren gabeziak euskal literaturaren historiari berari erreparatuz ikusten ahal zirela azpimarratzen zuen artikuluak, testu kanoniko ugarik beste literatur tradizioetako testu eta autoreekin harreman handia zutelako.

Julio de Urquijok «Gero» eta Fray Luis de Granadaren «Guía de Pecadores»-en arteko kointzidentzia harrigarriak seinatu zituen, Tartasen «Onsa Hilceco Vidia» XVgn mendeko best-seller baten bertsi berankor bat besterik ez zen izan... eta halako zerbait gertatzen da paraliteraturaren alorrean: Zuberoko pastoralen gaiak (Aymonen lau semeak, Roberto Deabrua, Karloman eta Hamabi Pareak, etab.), Katamiako Santa Agedak eta Brabanteko Genobebak Europako herri literaturaren altxor komunean parte importante bat osatzen dute. (Atxaga, 1978b)

Hori literatur tradizio guztiarekin gertatzen dela gaineratzen zuen, tradizio guztiak elkarloturik zeudela Europaren baitan behinik behin. Ideia horren giblean testuartekotasunaren kontzeptua dukegu, nahiz eta Atxagak ez duen esplizituki aipatzen. Julia Kristeva-k proposatu zuen terminoa 1966an, eta filologiako «eragin» kontzeptu klasikoarekin bereizi. Haren arabera, testu guztiak testu sare edo mosaiko handi baten parte gisa ulertu behar dira: «Tout texte se construit comme mosaïque de citations, tout texte est absorption et transformation d'un autre texte. A la place de la notion d'intersubjectivité s'installe celle d'intertextualité, et le langage poétique se lit, au moins, comme double» (Kristeva, 1969, 146). Zentzu horretan, literatura konparatuaren ikuspegia, bereziki haren garapenaz gero, testuartea kontzeptuarekin bat dator, eta horregatik garatu dute kontzeptua urteen poderioz hainbat konparatista eta kritikok²³. Jakina, neurri batean, testuartea (edo hobeki, «eragina») Mendebaldeko tradizioan antzinatetik azaltzen zaigu, baina Kristeva eta beste zenbait teorikok ez dute berau baliabide erretoriko edo testual huts gisa ulertzen. Testuartearen kontzepzio horrek literaturaren izaeraren muinari eragiten dio, literatura ulertzeko eta definitzeko beste modu bat ekartzen baitu harreraren ikuspegia txertatuz (hortik «era-

²³ Hala nola Claudio Guillén, Ulrich Weisstein, Michael Riffaterre, Gerard Genette eta Harold Bloomek.

gin» kontzeptu klasikoarekiko distantzia). Zentzu horretan, literatura testu-arte-kotasunetik ulertzea literatura konparatuaren ideian bete-betean txertatzen da.

La intertextualidad es tanto el nombre para referirse a la relación de una obra con determinados textos previos, como la afirmación de que leer una obra es ubicarla en un espacio discursivo en el que se relaciona con varios códigos formados por un diálogo entre textos y lectura. El estudio de las fuentes y la influencia, tal y como tradicionalmente fue concebido bajo cierta presión teórica, ha sido reconsiderado como el estudio de la intertextualidad y amplía su ámbito para incluir las anónimas prácticas discursivas de una cultura, que permiten a una obra producir efectos de significación. (...)

La teoría de la naturaleza diacrítica del significado y la noción de intertextualidad nos permite decir, transformando el famoso título, que *raison, c'est comparaison*, o por lo menos que *raisonner, c'est comparer. Littérature comparée*, literatura comparada, se convierte en el término apropiado para el estudio de la literatura (leer un texto frente a otro, leer un texto como una relectura de otro, leer un texto en el espacio intertextual de una cultura). (Culler 1998, 114-116)

Atxagak ere tradizioaren ideia testu mosaiko (Kristeva), sare, edo bere hitza erabiltzearen, «kate» modu horretan ulertzen zuen. «Tradizioa textoinguru historiko bat dugu, hau da, texto kate bat zeinean texto bakoitzak aurrekoa itzultzen eta traizionatzen du, zeren, nahiz eta texto orijinalaren mamiari irauterazi nahi izan, ezin baitezake zerbait berri baten agerketa eragotz» (Atxaga, 1978b). Traizioa zentzu positibo eta sortzailean ulertu behar da kasu horretan, Atxagarentzat itzulpenaren traizio hori funtsezkoa baita zerbait berriaren agerpenerako. Hala, Jakak azaltzen duenez, adiera horretan, «traizioa, lehenik eta behin, itzulpenaren epistemologia modernoari egiten zaio, sorburu-testuaren eta itzulpenaren arteko desberdintasunak akats, imperfekzio, huts eta arazo gisa hautematen dituen diskurtso atzerakoiari» (Jaka, 2012, 223). Traizioaren ideia hori oso gertu dago 70. hamarkada hartan bertan, testu-arte-kotasunaren inguruko debatean, garrantzitsua izan zen Harold Bloom-en «irakurketa makurra» (misreading) kontzeptuarengandik. Irakurketa makurra poeta gazteago batek aurreko

poeta kanonikoari egiten diona da, zeinarengandik baliatzen den obra berritzaile bat sortzeko. Irakurketa makur hori, bada, funtsezko elementu da sormen prozesuan, eta zentzu aktiboa hartzen du, Atxagaren traizio kontzeptuak egiten duen bezalaxe itzulpenaren kasuan. Irudi luke Bloomek poesiaren esparruan kokatzen duen kontzeptuaren itzulpengintzarako moldaketa bat dela Atxagak egiten duena «traizio» terminoarekin. Edozein kasutan, garbi dago testuarterkotasunaren kontzepzio sortzaile hori dagoela «Itzulpena eta traizioaren praktika» artikulua gibelean, zalantzarik gabe literatura konparatutik baino eduki ezin daitekeen kontzepzioa.

Auzi hori guztia kontuan izanik, hobeki uler liteke artikuluan bertan «literatura nazionala» kontzeptuari Atxagak egin zion kritika gogorra, garaiko haren testu gehienak bezalaxe ahoan bilorik gabe jaulkitakoa.

Ze hostiak pintatzen ditu adjetibo maradikatu hark? Ene eritziz, «nazional» kalifikatiboak ez du beste funtziorik betetzen Estatu eta herriaren arteko nahasketa, literatur mailan ere, mantentzekoa baizik. Eta, honen ondorioz, literaturgintza akademikoak deituriko nekrofago mafia horren inkisiziopean sartzekoa ere. (Atxaga, 1978b)

Kritikaren erdigunean literatura nazional kontzeptua ipintzeak jada argi eta garbi kokatzen du Atxaga tradizio konparatistaren barruan. Jonathan Culler kritiko eta konparatista handiak ere oso arazki adierazi zuen, Atxagaren testuaren argitalpena baino urtebete geroago, zertan oinarritu behar zen literatura konparatua: «Si la literatura comparada quiere abrirse camino en las universidades y en el mundo de las organizaciones profesionales, ha de iniciar un debate teórico que ponga en duda el principio según el cual las literaturas nacionales son las unidades legítimas para el estudio de la literatura» (Culler, 1998, 105). Atxagaren kasuan itzulpengintza ikasketen eta literatura konparatuaren arteko lotura ondo ikus daiteke, harentzat hain justu itzulpena delako literatura nazionalaren eredu hori zartzeko modua: «Zentzu honetan itzulpen eskubidea defendatzea «literatura nazionala» den taifa-ko erreguloen belaueskubideak zalantzan jartzea dateke» (Atxaga, 1978b).

Tradizio eta traizio kontzeptuen arteko hitz-jokoaren bidez ere gauza bera egiten zuen, literatura nazionala tradizio partikular eta itxi batean oinarritzen baita, kanpoko eraginetatik libre edo ia isolaturik. Itzulpenaren trai-

zioaren aldarrikapenak, bada, tradizioaren ideia hori arrakalatzen du, eta beste kontzeptio zabalago batera eramanez, non tradizioa, nazionala izan beharrean, «Europako herri literaturaren altxor komuna» litzatekeen.

Ez alferrik, *Pott Tropikalako* «Haikeberkua da, benetan» artikuluan ere, ildo beretik jo zuten Potteko kideek²⁴. Lehenago Euskadi Ofizialaren bidez euskal abertzaletasuna kritikatu bezala, kasu horretan «Euskoabertzaleak» terminoa erabiltzen zuten gauza bera egiteko. Ordukoan, gainera, literatur kontuekin erabat loturik: «Joan zaitez euskoabertzale batengana eta galde iezaiozu zer iruditzen zaion Beckett, adibidez, eta agudo erantzungo dizu: «Eskolan bere 'Rimas' liburua askotan irakurtzen nuen, bai, asko gustatzen zait»» (Pott, 1980). Kasu horretan, bidenabar, ikuspegi hispaniko itxia kritikatzeko zuten –Orixek berak ere bazuena arestian ikusi dugunez– zeina, Frantziako luzearen ondoren, nagusi zen baita euskal literaturan ere. Horren aldean, Mendebaldeko, eta bereziki, Europako literatur tradizioa aldarrikatzen zen testuan: Joyce, Hemingway, Beckett, Pound, Eliot, Gombrowicz, Camus, Proust, Pavese, Celine, Quevedo, Shakespeare, Mallea. Berriro ikusten da, Lauaxetaren kasuan bezalaxe, tradizioaren ikuspegi ezberdin baten atzean literaturaren inguruko ikuspegi osoki ezberdin bat gordetzen ahal dela. *Potten* idazle horiek guztiak aldarrikatzen dituztenean ez dute tradizioaren ikuspegi zabaltzen bakarrik, hari buruzko ikuspegi errotiko berri bat eskaintzen dute halaber, eta horrexek irekitzen die bidea literatura konparaturantz.

Egiari zor, ikuspegi hori ere zalantzan jarriko da orobat literatura konparatuaren baitan kritika postkolonialaren argitan, batez ere 70. hamarkadatik aurrera Edward Saïden lanei esker. Gaur egun, hala, literatura konparatuaren eta teoria postkolonialaren arteko harremanak oso estuak dira; hain da horrela, ezen Armando Gnisci-rentzat literatura konparatuaren erdigunean kokatzen baita kritika postkoloniala.

Si para los países que se descolonizan de Occidente la literatura comparada representa una manera de comprender, estudiar y realizar la descolonización, para todos nosotros, especialistas europeos, re-

²⁴ Horrek ere Atxagarena izateko traza guztia du, baina ziurtasunez esan ezin dezakegunez, ez dut autoretza erabat baieztatu.

presenta una forma de pensamiento, autocrítica y educación, o dicho de otro modo, la disciplina para descolonizarnos de nosotros mismos. Esto es cierto si nos consideramos verdaderamente parte de un «mundo poscolonial» donde los ex-colonizadores deben aprender a vivir como los ex colonizados, y con ellos. (Gnisci,1998, 192)

Egungo ikuspuntutik, bada, Atxaga eta Pott bandaren ideiak koska bat gehiago estutzen ahal dira, haien eurozentrismoa kritikatzuz²⁵, baina garaiko testuinguruan kokatuta, nabaria da literatura konparatutik euskal literaturari egin zioten ekarpena.

3. Ondorioak

Literatura konparatuaren agerpena euskal literaturan aski berantiarra izan dela baieztatu dezakegu. XX. mendearen hastapenetan bereziki Lauaxetaren eskutik haren zantzuren bat antzeman daitekeen arren, 70. hamarkada arte ezin esan dezakegu ikuspuntu konparatistikorik egon zenik euskal literaturan. Dударik gabe, euskararen egoera minorizatuak zein euskal literaturaren esparruaren existentzia ezak eragin berebizikoa izan zuen gertaera horretan. Horretaz gain, hala euskal kulturaren eta estetikaren tradizio aski kontserbadore eta klasizistak zein ideologia nazionalista tradizionalaren hedapenak ez zuten batere lagundu literatura konparatuaren agerpenean. Gauzak horrela, elementu horien kontrako erreakzioan suma ditzakegu literatura konparatuaren ikuspegiaren lehen agerpen argiak. Izan ere, diziplina konparatua modernitatearekin loturik agertzen zaigu nolabait, hain justu arestian aipatutako poetika klasizisten kontrastean. Testuinguru horretan, Atxagak sutuki defendaturiko literaturaren autonomiaren aferak, esaterako, berebiziko garrantzia hartzen du, eta hura gabe nekez pentsa liteke euskal literaturaren zinezko esparru bat. Horretaz gain, baina, euskal nazionalismo tradizionalarekiko aldentzea argi eta garbi zertu zen Pott bandaren proiektuan. Atxagak Euskadi Ofizialari egindako kritika zuzenak gisa

²⁵ Egiazki, guztiarekin, Europako literatur erdiguneetatik kanpo ere jarri zuten arreta Potten. Besteak beste, Hegoameriketako literaturak, Poloniakoak eta gaelikoz idatzitako literaturak lekua izan baitzuten aldizkarian.

horretan ulertu behar ditugu, eta baita itzulpengintzaren alde egindako lana ere, maila teorikoan zein praktikoan.

Itzulpengintza eta haren inguruko teoria modernoa²⁶, testuartekotasunaren ideia proteiko horrekin, ezinbesteko elementu bilakatzen da, beraz, literatura nazionalaren ideia hertsia erroitik kritikatzeko. Kritika hori, era berean, literatura konparatuaren ideia muinean dugu, konparatismoak hain justu XIX. mendeko literatura nazionalaren ideia nazionalista tradizionala gainditu nahi duen heinean eta literatura nazional diferenteen arteko harremanak bezala munduko literaturaren ondare komuna aintzat hartu nahi duen heinean.

Gaur egun ere, neurri batean behinik behin, literatura konparatua literatura ikasketen baitan ikuspegi bazterrekoa da. Unibertsitate ikasketei begiratzea besterik ez dugu jabetzeko oraindik ere literatura nazionalen perspektibatik diseinaturiko ikasketak ditugula. Literatura konparatuarekin erlazionatzen diren zenbait teoria berriren bidez –teoria sistemikoak, postkolonialismoa– ikuspegi hori urtetan zartatzen joan bada ere, oraindik indar handia izaten jarraitzen du. Horregatik, are garrantzi handiagoa hartzen dute euskal literaturaren baitako literatura konparatuaren ikuspegiaren lehen agerpenek. Zer esanik ez Lauaxetaren kasuan, zeina bere ikuspegi modernoa nolabait ezkutatzen ahalegindu zen, eta baita Atxagaren kasuaren ere, zeinaren 70etako ideia zenbait gaur egun ere aski ausart eta indartsuak izaten jarraitzen duten. Gerora han defendatutako puntu batzuk kritikatzeko ahal badira ere, mugarriak izan ziren euskal literaturaren teoriaren hastapenetan zein modernizazioan.

Bibliografia

ADORNO, T., 2004, *Teoría estética*. Madrid: Akal.

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.

²⁶ Jakak kontzepzio horri postmoderno deitzen badio ere, nire ustez zuzenagoa da modernotzat jotzea.

APALATEGI, U., 2000, *La naissance de l'écrivain basque. L'évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*. Paris: L'Harmattan.

APALATEGI, U., 2015, «Noiz hasten da modernitatea euskal literaturan? Galdera zahar baten aktualitatea», in *Ibon Sarasola. Gorazarre*. Bilbo: EHU, 77-95.

ARESTI, G., 1972, *Euskal Literatura 72*. Donostia: Lur.

ATXAGA, B., 1974, «Euskal Theatro Berriaren bila (I)», in *Anaitasuna*, 268.

ATXAGA, B., 1977, [Izenbururik gabe], in *Anaitasuna*, 344.

ATXAGA, B. (Pott bandako apatrida), 1978a, «Poema liburu baterako hitzaurre-gai bat», in *Pott*, 1.

ATXAGA, B. (Pottugalete), 1978b, «Itzulpena eta traizioaren praktika», in *Pott bandaren blaga*.

ATXAGA, B. eta IZAGIRRE, K., 1975, «Ez dezagula konposturarik gal, halere», in *Panpina ustela*.

BASSNETT, S., 1998, «Qué significa literatura comparada hoy?», in *Orientaciones en literatura comparada*. Madrid: Arco.

BLOOM, H., 1997, *The Anxiety of Influences. A Theory of Poetry*. Oxford: Oxford University Press.

CARBONELL, N. eta VEGA, M.J., 1998, *La Literatura Comparada: principios y métodos*. Madrid: Gredos.

CARROL, L., 1979, *Alizia herrialde harrigarrian*. Donostia: Lur.

CULLER, J., 1998, «Literatura comparada y teoría de la literatura», in *Orientaciones en literatura comparada*. Madrid: Arco.

CASTELAO, A., 1976, *Kristalezko begia: eskeleto baten oroimenak*. Donostia: Kriselu.

ECKERMANN, J.P., 2005, *Conversaciones con Goethe*. Barcelona: Acantilado.

GABILONDO, J., 2016, *Before Babel: A History of Basque Literatures*. USA: Barba-roak.

GRAMUGLIO, M.T., 2006, «Tres problemas para el comparatismo», *Orbis Tertius*, [04/08/2010], <<http://www.orbistertius.unlp.edu.ar/numeros/numero-12/2-gramuglio.pdf>>

GNISCI, A., 1998, «La literatura comparada como disciplina de desconolización», in *La Literatura Comparada: principios y métodos*. Madrid: Gredos.

GUILLÉN, C., 2005, *Entre lo uno y lo diverso. Introducción a la Literatura Comparada (ayer y hoy)*. Barcelona: Tusquets.

HIKMET, N., *Lau gartzelak*. Donostia: Lur.

HUXLEY, A., *Bai mundu berria*. Donostia: Lur.

IZTUETA, P., 2002, *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IZTUETA, P., 2002 b, *Testu hautatuak euskal estetikaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

JAKA, A., 2012, *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanean*. Bilbo: Euskaltzaindia.

KAFKA, F., 1970, *Itxuraldaketa*. Bilbo: Kriselu.

KORTAZAR, J., 1986, *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*. Bilbo: Editorial Desclee de Brouwer.

KRISTEVA, J., 1969, «Bakthine, le mot, le dialogue et le roman» in *Critique*, 239, 438-465.

LAUAXETA, 1982, *Azalpenak 1931-1935*. Bilbo: Labayru.

LLOVET, J. et alii, 2005, *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Ariel.

LONDON, J., 1979, *Oihanaren deia*. Donostia: Lur.

LOPEZ GASENI, M., 2002, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Acento.

MARTÍ, A., 2005, «Literatura comparada», in *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Ariel.

NOVALIS, 1987, in *Fragmentos para una teoría romántica del arte*. Madrid: Tecnos.

NOVALIS, 1998, *Fragments. A cura de Robert Caner-Liese*. Barcelona: Quaderns Crema.

OLAZIREGI, M.J. (ed.), 2012, *Basque literary history*. Nevada: Center for Basque Studies.

ORIXE, 1991., *Idazlan guztiak. III, Artikulu eta saiakerak*. Donostia: Etor.

- OTAEGI, L., 1996, «Aitzol eta Euskalzaleak» in *Euskera* 41, 499-507.
- POE, E.A. *et alli*, 2010, *Matemática niebla. Genealogía de la poesía moderna*. Barcelona: Círculo de Lectores.
- POTT, 1980, «Haikeberkua da, benetan» in *Pott Tropikala*. Andoain: Pott.
- PROUST, M., 1987, *Contre Sainte-Beauve*. Paris: Gallimard.
- PULIDO TIRADO, G., 2001, «Introducción: la literatura comparada en España», in *La literatura comparada: fundamentación teórica y aplicaciones*. Jaén: Universidad de Jaén, 11-29.
- REMAK, H., 1998, «La literatura comparada: definición y función», in *La literatura comparada: Principios y métodos*. Madrid: Gredos.
- SAID, E., 1994, *Culture and Imperialism*. New York: Vintage.
- SARASOLA, B., 2015, *Bainaren belaunaldia*. Bilbo: Labayru
- SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: 1971.
- SARASOLA, I., 1975, *Txillardegi eta Saizarbitoriaren Nobelagintza (irakurlearentzat gidaria)*. Donostia: Lur.
- TORREALDAI, J.M., 1997, *Euskal kultura gaur, liburuaren mundua*. Donostia: Jakin
- TOTOSY DE ZEPETNEK, S., 1999, «From Comparative Literature Today Toward Comparative Cultural Studies» in *Comparative Literature and Culture*, 1. 3.
- TWAIN, M., 1979, *Tom Sawyerren abenturak*. Donostia: Lur.
- URQUIZU, P. (Dir.), 2000, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: UNED.
- VEGA, M.J. eta Carbonell, N., 1998, *La literatura comparada: Principios y métodos*. Madrid: Gredos.
- VOLTAIRE, 1972, *Kandido*. Donostia: Lur.
- WELLEK, R. eta WARREN, A., 1963, *Theory of Literature*. London: Penguin Books.



**Maskulinitate berriak Euskal Haur
eta Gazte Narratiban: *Matias Ploff-en
erabakiak, Alex eta Kea airean bezala*
eleberrietako pertsonaiak biluzten**

**Nuevos modelos de masculinidad en la Narrativa
Infantil y Juvenil Vasca: desnudando los personajes de
las novelas como *Matias Ploffen erabakiak, Alex y Kea
airean bezala***

**Nouveaux modèles de masculinité dans le récit en
basque pour enfants et pour la jeunesse : en mettant à
nu les personnages des romans *Matias Ploffen
erabakiak, Alex et Kea airean bezala***

**New models of masculinity in Basque children's
and young people's stories: undressing the characters
in the novels like *Matias Ploffen erabakiak, Alex
and Kea airean bezala***

LASARTE, Gema

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

SERRANO, Amaia

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2016-09-12

Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 515-549. Bilbo
ISSN 0210-1564

Lan honen helburua euskal haur eta gazte literaturako hiru eleberritan ageri diren maskulinitate motak arakatzea da. Pertsonaien hainbat alderdi aztertuz maskulinitate hegemonikoetatik kanpo maskulinitate alternatiborik planteatzen den ikusteko, Lizardi Saria irabazi duten hiru obra hautatu dira: Patxi Zubizarretaren *Matias Ploff-en erabakiak* (1991), Mariasun Landaren *Alex* (1994 [1990]), eta Imanol Azkueren *Kea airean bezala* (2006). Hiru eleberriek antzeko ezaugarri testualak dituzte: nitasunetik kontaktzen dizkigute pertsonaiek bere kezak; protagonistak genero eta adin bertukoak dira; eta bizitzan aurrera egiteko eragozpen fisiko-psikologikoak dituzte. Gaien trataera eta pertsonaien eraikuntza, baina, ez da beti berbera, eta ñabardura horietan sakonduz ondorioztatuko dugu zer maskulinitate mota aurkezten diguten.

Gako hitzak: maskulinitate hegemonikoa, maskulinitate alternatiboak, euskal haur eta gazte eleberrigintza, estereotipoak.

El objetivo de este trabajo es analizar los tipos de masculinidad que aparecen en tres novelas de la literatura infantil y juvenil vasca. Se examinarán varios aspectos de los personajes para observar si se plantean masculinidades alternativas alejadas de la masculinidad hegemónica. Para ello se han elegido tres obras ganadoras del Premio Lizardi: *Matias Ploff-en erabakiak* (1991) de Patxi Zubizarreta, *Alex* (1994 [1990]) de Mariasun Landa, y *Kea airean bezala* (2006) de Imanol Azkue. Las tres novelas tienen características textuales similares: los personajes nos cuentan sus inquietudes en primera persona, desde su yo; son del mismo género y tienen una edad parecida; y los tres tienen problemas físico-psicológicos a los que deben enfrentarse para avanzar en la vida. El tratamiento temático y la construcción de los personajes, sin embargo, no siempre son iguales y, profundizando en esas matizaciones, concluiremos qué tipos de masculinidades se nos presentan.

Palabras clave: masculinidad hegemónica, masculinidades alternativas, novela infantil y juvenil vasca, estereotipos.

L'objectif de ce travail est d'analyser les types de masculinité qui apparaissent dans trois romans de la littérature basque pour enfants et pour la jeunesse. On examinera plusieurs aspects des personnages pour voir si se dessinent des masculinités alternatives éloignées de la masculinité hégémonique. On a pour cela choisi trois œuvres lauréates au Prix Lizardi : *Matias Ploff-en erabakiak* (1991) de Patxi Zubizarreta, *Alex* (1994 [1990]) de Mariasun Landa, et *Kea airean bezala* (2006) de Imanol Azkue. Ces trois romans ont des caractéristiques textuelles similaires : les personnages nous font part de leurs inquiétudes à la première personne ; ils sont du même genre et ont le même âge ; ils ont tous les trois des problèmes physico-psychologiques auxquels ils doivent faire face pour avancer dans la vie. Le traitement thématique et la construction des personnages ne sont pourtant pas toujours iden-

tiques et, en étudiant ces nuances de façon plus approfondie, nous pouvons en déduire de quels types de masculinité il s'agit.

Mots-clés : Masculinité hégémonique, masculinités alternatives, roman pour enfants et pour la jeunesse, stéréotypes.

The aim of this paper is to consider the types of masculinity that appear in three Basque novels for children and young people. Attention will be given to different aspects of the characters to see whether they posit alternative masculinities, distinct from the hegemonic form of masculinity. To do this, three Lizardi prize winners were chosen: *Matias Ploff-en erabakiak* (1991) by Patxi Zubizarreta, *Alex* (1994 [1990]) by Mariasun Landa, and *Kea airean bezala* (2006) by Imanol Azkue. All three novels have similar textual features: the characters tell us about their concerns in the first person, from their I; they are the same sex and of similar age; and all three have physical/psychological problems to overcome to get on in life. The thematic approach and the construction of the characters are, however, not the same in all cases, and these nuances will be discussed before concluding what kinds of masculinity they present.

Keywords: Hegemonic masculinity, alternative masculinities, Basque children and young people's novels, stereotypes.

1. Sarrera

Lan honetan euskal haur eta gazte narratiban ageri diren maskulinitate motak arakatuko ditugu. Horretarako, lehenik, marko teorikoa eraikiko dugu. Gaiaren inguruan zertzelada batzuk emateko, historia apur bat gogoratu eta maskulinitate berrien kontzeptualizaziora hurbilduko gara. Ondoren, metodologiari dagokion alorrean, zerrenda bat osatuko dugu aztergai izango ditugun maskulinitateen *item*-ak aukeratuta. Hirugarrenik, azterketa erreminta eskuan, hiru narrazioak osaturiko corpusa izango dugu ikergai¹: Patxi Zubizarretaren *Matias Ploff-en erabakiak* (1991), Mariasun Landaren *Alex* (1994 [1990]), eta Imanol Azkueren *Kea airean bezala* (2006).

Corpusa aukeratzeko orduan, bi irizpide mota erabili ditugu. Lehena, es-tradiegetikoa, Lizardi Saria jaso duten obrak baitira. Alde batetik, erakunde batek babestutako sari hauetan epaimahai jakin bateko kideek erreferentziatzat hartu dituzten lanak izan direlako (eta, beraz, kalitate literario handiko lan gisa aurkezten direlako), eta, bestetik, zabalkunderako bidea errazten zaielako (eta, ondorioz, haien oihartzuna gizarteko hainbat hezkuntza eremutara heltzeko aukera handiagoa delako²). Bigarren irizpidea diegetikoa da, hiru ezaugarri jakin dituzten narrazioak baititugu hizpide:

- 1) Diskurtsoaren forma antzekoak dituzten narrazioak dira: lehen pertsonako narratzaile-protagonistak bere barneko kezka nitasunetik kontatzen dizkigu, dela eguneroko formatuan (*Alex*), gogoeta gisa (*Kea airean bezala*), edota egunerokoa izan ez arren, memoria ariketatik eta hausnarketatik asko duen narrazioan (*Matias Ploff-en erabakiak*).

¹ Oso corpus murrizta denez, zaila izango da teorian agertzen diren alderdi guztiak bertan aurkitzea. Gaira hurbiltzeko saio bat da, etorkizunean sakondu beharrekoa. Hala ere, ez da oso ohikoa maskulinitate berriak aurkitzea haur eta gazte literaturan. Horregatik, gure irizpideen araberako bilaketan obra horiek iruditu zaizkigu aztertzeko egokienak.

² Idurre Alonsok aipatzen duen bezala, eskoletan liburuak aukeratzeko unean irakasleek erabiltzen duten irizpideetako bat obrak saria jaso izana da: «(...) salmentei eta sariei ere erreparatzen zaie, azken batean, «salduena» eta «saritua» izatea erakargarri zaie ikasle zein irakasleei» (2010: 42).

- 2) Pertsonaia nagusien generoa eta adina antzekoa da: guztiak dira mutilak eta haur edo gazteak.
- 3) Eragozpen fisiko-existentzialak dituzte: pertsonaia horiek guztiak dute haien bizitza oztopatzen duen zerbait (Matiasek bere itxura fisikoak baldintzatutako bizitza du; *Kea airean bezala*-ko Lionelek familia baten gertutasun eta babes falta dauka; eta Alexek bere gurasoen ulerkortasun eza).

Gaia teorikoki jorratzerakoan bi lan hauek oso lagungarriak izan zaizkigu: Àngels Carabí eta Josep M. Armengolek koordinatutako *La masculinidad a debate* (2008) liburua, eta Iratxe Retolazak eta Isabel Castillok koordinatutako *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak* (2013) artikulua bilduma. Bestalde, esan behar dugu literatur pertsonaiak narratologiaren ikuspegitik aztertzeak berebiziko garrantzia duela gisa honetako ikerketa batean, batez ere narrazioko aktanteak ekintzei loturik daudenean, hau da, pertsonaiak paradigma aktantzialean kokatuta ikusten direnean (Greimas, 1966). Pertsonaiak, orobat, erreminta ezin interesgarriago bilakatzen dira, zeren eta, narrazioko ekintzaileak eta funtzio nagusiak zeintzuk diren argi uzteaz haratago, haiekin eraiki eta garatzen diren ezaugarri eta eremuak arakatzeko balia daitezkeelako (Bobes, 1994), kasu honetan maskulinitate berriei antzemateko. Esan nahi da pertsonaiek, egitura sintaktikoaz gain (cfr. Greimas), esanahi semantikoa dutela (cfr. Bobes), hots, narrazioan funtzio bat betetzeaz gain, funtzioek berek esanahi bat edo beste hartzen dutela, eta pertsonaiei buruzko informazio zabala eskaintzen. Horren harira, euskal narratiba garaikidean idazle emakumezkoek sorturiko literatur pertsonaia protagonista femeninoak azertu ziren Mari Jose Olaziregik zuzendutako doktorego tesian (Lasarte, 2011). Orain, berriz, euskal haur eta gazte narratiba garaikidean agertzen diren protagonista maskulinoei helduko diegu.

Brígida M. Pastorrek (2015: 302) dioen bezala, literaturak haurren bizitzetan rol garrantzitsua betetzen jarraitzen du, herri kulturako beste zenbait mediok (hala nola telebistak edota zineak) baino gehiago. Gainera, gizarteko balio eta arauen transmisiorako bitarteko ere bada eta, zentzu horretan, eragiteko gaitasun handia du, bai eskatzen duen inbertsio pertsonalagatik, baita haren izaera iraunkorrak irakurria eta berrirakurria izateko aukera eskaintzen

duelako. Azken batean, haur eta gazte literaturak (HGL) haurrek bestelako testuinguruetan zer-nolako jarrerak dituzten ezagutzea ahalbidetzen du. Hori horrela izanda, berebiziko garrantzia du literatura honek zein maskulinitate eredu transmititzen duen ikusteak, horrek neurri batean irakurlearen identitate-aukerak zabaltzen dituelako : «El exponer a los niños a historias donde los personajes masculinos muestran un comportamiento que se aleja del estereotipo tradicional les permite más autonomía y oportunidades para la auto-expresión» (Pastor, 2015: 305-306).

Azkenik, badago maskulinitatearen inguruko literatura bat maskulinitatearen kontua mito bat dela esaten duena, estereotipo bat, feminitatearena izan den bezalaxe. Esan ohi da, halaber, maskulinitatea ez dela esentzia bat, ideologia bat baizik: gizonezkoen agintea justifikatzera bideratuta dagoen ideologia (Bourdieu, 2000; Cortés, 2003, Vila eta Solbes, 2015). Azterketa honetan mitotik, estereotipotik, haratago joan gara, Bourdieurekin bat egin: ideologia bat giza konstrukto bat dela diogu guk ere, are gehiago maskulinitate tradizionalen³ inguruan ari garenean.

2. Esparru teorikoa

2.1. Kontzeptualizaziora hurbilduz

Maskulinitate hegemonikoaren kontzeptua Raewin Connell-i (1995) zor zaio. Gramsci-ren boterearen ikuspegian oinarrituta dago, eta gizatalde baten bizitza sozialean aginte posizioa bere egin eta horri eusteko beharrezko duen kultura dinamikari dagokio.

Maskulinitate hegemonikoak heroismo puntu bat edo ausardia erakutsi behar du, emaztea edota bere kargu dauden pertsonak babesteko. Ezin dio arriskuari ihes egin, ezin du borroka ekidin; lehiakorra eta arrakastatsua izan behar du. Horrek autosufizientzia, eraginkortasuna eta laguntzarik behar ez izatea inplikatzan du, ezberdina den horren –bestearen– deabru-

³ Maskulinitate hegemonikoei maskulinitate klasiko edo tradizional ere deitu izan zaie. Guk, hemendik aurrera, *maskulinitate hegemoniko* izendapena lehenetsiko dugu, iruditzen zaigulako tradizioan zehar izan direla hegemoniatik aldendu nahi izan diren maskulinitateak ere.

tzea eta alboratzea, hierarkiak errespetatzea eta araua betetzea, eta, azkenik, emakumezkoen aurrean nagusitasuna erakutsi behar du, eremu publikoaren monopolioa berea dela uste duelako (Bonino, 2000). Maskulinitate eredu hori horrela laburtzen du Gabarrók:

En resumen, los hombres «de verdad» tienen que cumplir lo siguiente: ser distintos y superiores a las mujeres (...), en ciertas ocasiones –y bajo su propio criterio– tienen que usar la violencia para demostrar la virilidad (...). Los deseos y/o comportamientos etiquetados como femeninos deben ser inhibidos, negados o escondidos. (...) la dureza, la valentía y el control de las emociones son valores viriles. Competir y ganar es una forma masculina de demostrar el éxito y el valor como hombres. (...) deben sostener su entorno familiar (...) La sexualidad sirve para demostrar la propia virilidad (...). Hay que evitar la intimidad incluso con las amistades (...) deben ser independientes, seguros y el punto de apoyo sólido de su entorno (Gabarró, 2009: 55-56).

Gabarrók aipatzen duen elementu garrantzitsua potentzia sexualarena da: «Se trata del mito del hombre puramente erecto» (Carabí eta Armengol, 2008: 165). Gizontasuna neurtzeko tresna bilakatzen da: «El hombre tiene que ser sexualmente potente, lo que llamamos en Nueva York «semental». El varón debe ser sexualmente agresivo y, obviamente, la mujer es el objeto de la conquista» (Gilmore, 2008: 34).

Victoria Sau-ren (1981) hitzetan, maskulinitasuna elementu femeni-noen absentsian datza. Maskulinitatea gurtzen den kulturetan ohikoa da, bestalde, gizonek emaztea eta sendia mantentzea, sendiaren ekonomiaz arduratzea; beste hitz batzuetan, ogia ekartzea etxera: «En consecuencia, el varón es el responsable de la alimentación, del vestido y del éxito económico de la familia. Así que tenemos tres elementos: protección, provisión y potencia, es decir, las tres P» (Gilmore, 2008: 34).

Kontzeptuaren ñabarduren atal hau amaitzeko, Segarra eta Carabík (2000) esaten dute boterea, besteak beste, izendatzeko, aurkitzeko eta defintzeko gaitasuna dela, misoginia eta sexismoa identitate maskulinoaren moduak direla, historikoki lehenengo emakumearen ukazioan eta, ondoren, gutxiespenean eraikiak. Hori horrela, feminismoak ezinbestekotzat jo izan du gizontasunaren azterketa jendartea eraldatzeko; izan ere, patriarkatua-

ren subjektua ez bada aldatzen eta berak eraikitako maskulinitatearen kontzeptua ez bada zalantzan jartzen, ez da ia ezer aldatzen (Valcuce del Río eta Blanco López, 2003). Genero ikerketek, beraz, ezinbestekotzat dute gizonaren transformazioa eta maskulinitateen ikerketa. Horren harira, hainbat teoriagilek pentsatzen dute maskulinitateen ikuspegi hegemonikoak oinarri esentzialista batean dutela abiapuntua, gizonezkoak ez direlako ikeritu genero perspektibatik, eta deus deseraikitzen hasi baino lehen ezinbestekoa dela nola eraiki diren jakitea. Halaxe, teoria feministan hainbat bider aldarrikatu dena esan dezakegu: ikasia den oro desikas daitekeela, eta, beraz, maskulinitate hegemonikoak ere deseraiki daitezkeela.

Hasiera-hasieratik, maskulinitatearen inguruko azterketek zerikusi handia izan dute genero ikerketekin, eta, hein batean, ikerketa feministekin (Azpiazu, 2012; Aresti, 2010, Martín, 2007; Kimmel et al., 2005). Batetik, gizon batzuk patriarkatuaren biktima sentitu dira, eta, feministekin bat eginik, emakumeen askapenaren aldeko borrokari ekin diote. Egoera horretan galdera bat baino gehiago sortzen da. Zein dira sexismoaren aurkako borrokan gizonen parte-hartzearen ondorio teoriko-praktikoak? Are gehiago, zein da azken hamarkadetan feminismoa gogoetatzen ari denaren subjektu politikoa? Whittierren arabera (1995) mugimendu batek bizirik dirau bere identitate kolektiboaren inguruan eztabaida dagoenean. Gizonezkoek bat egiten badute emakumeen askapenaren aldeko borrokan, eta, gainera, transfeminismoak⁴ subjektu feministaren aniztasuna aldarrikatzen badu, orain arteko feminismoaren subjektu politikoa kolokan geratzen da: zein litzateke, bada, egungo feminismoaren subjektu politikoa?

Historikoki eztabaida sortu izan du mugimendu feministaren baitan transexualitateak. Bere garaian eztabaida ugari izan ziren trans emakumeak kolektibo batzuetan integratzeko, nahiz eta gaur egun

⁴ Geure egiten dugu Amaia Alvarezen definizioa: «Transfeminismoa subjektu feministaren aniztasunaz jabetzeko behar politikoa da. Halaber, feminismoa bizirik eta martxan dagoen praktika eta teoria sorta bat dela erakutsi nahi du, zapalkuntza eta egoera ugari salatzeraz datorrena. Hortaz, «*transgeneroa eta feminismoa*» adieraztera datorren transfeminismoa batuketara hutsa baino harantzago doan egitasmoa da; feminismoaren erronka berriak eta *gorputza*, *generoa* eta *desiraren* inguruko diskurtso hegemonikoaren aurreko erresistentziak elkarrekin eta aliantzen bidez antolatuzko proposamena egiten du, horretan diharduten beste kolektibo batzuekin batera» (2013: 139-140).

badirudien nahikoa onartua dagoela. Gaur egunean, ordea, trans gizon bezala bizi diren feminista sentitzen direnen inklusioan legoke eztabaida (Azpiazu, 2012: 16).

Transfeminismoa subjektu feministaren aniztasunaz jabetzeko behar politikoa bada ere, eta, hein handi batean, oso berritzailea eta aberasgarria irizten badiogu ere, Teresa Maldonadoren (2010) hitzekin amaituko dugu subjektuaren inguruko galdera, eta eztabaida irekita utziko. Haren ustez esentzialismo baztertzaila guztietatik ihes egin behar dugu, biologizismoak ere alboratuz, «pero sin llegar tan lejos por ese camino que disolvamos el propio sujeto del feminismo (y, por tanto, la posibilidad del mismo). La lucha de las mujeres sigue siendo necesaria» (Maldonado, 2010: 65).

Horregatik azalduko ditugu ondorengo atalean maskulinitate alternatiiboak, askapen prozesu horretan laguntzen duten subjektuak izan direlako.

2.2. Gaiaren inguruko hainbat zertzelada

Jasotako arau eta jarrera multzo gisa definitzen dira genero rolak. Bete-kizun eta itxaropen multzo bat, zeina talde edo gizarte sistema jakin batean gizonezkoei eta emakumezkoei atxikitzen zaien. Gizonezkoak rol maskulinoarekin lotzen dira, hau da, jendartean prestigioa duen rol batekin eta alor publikoarekin identifikatzen dira. Ikuspegi hegemonikoaren arabera, gizonak sendoak, aktiboak, independenteak eta ausartak izatea espero da. Bestalde, emakumeak rol femeninoarekin lotu ohi dira, eta eremu pribatura (etxeko lanetara edota zaintzara) mugatzen diren prestigio gutxiko rolak izaten dituzte. Emakumeak sentiberak, pasiboak, mendekoak eta beldurtiak izatea espero da (Emakunde, 2008). Kontzeptu horietatik dator, hain zuzen, *feminitatea-maskulinitatea* dikotomia.

Kontzeptualizazio hori munduko lekurik gehienetan halaxe garatu da historian zehar, batez ere herrialde aurreratuetan; baina generoari⁵ atxikiri-ko binarismo sexual horretan, beste adiera askotan bezala, egiturazko arra-

⁵ Alvarez Uriaren definizioa geureganatzen dugu, zeinak generoa «sexuaren maila anatomiko eta fisiologikoen esangura sozial» gisa definitzen duen (2013: 288).

kalak agertzen hasi dira handik eta hemendik, alegia, rol horietatik espero zena hausten eta nahasten ari da:

A lo largo de la última década y definitivamente a comienzos del año 2000, los medios de comunicación se han hecho eco de un fenómeno sociológico que, si no es nuevo en el curso de la historia, sí que resulta novedoso por el alcance masivo y la atención que está recibiendo. El varón y la masculinidad están en crisis (Segarra eta Carabí, 2000:17).

Balirudike *homo faber* delakoak⁶ (Segarra eta Carabí, 2000) panorama berri horretan funtzionatzeko zailtasunak dituela: «Los hombres cuando no tienen medios para poder sentirse hombres «como es debido», intentan reafirmar su masculinidad a través de la violencia, y también experimentando ellos mismos situaciones de extrema violencia» (Carabí eta Armengol, 2008: 184).

Hala, alde batetik, testuinguru honek neomatxismoaren sorrera ekarri du, hau da, agintzeko ideologian jendarteak, komunikabideek eta hezkuntzak eraikitako gizasemearen haserre. Neomatxista ikusten ari da agindu zaionaren eta gertatzen ari denaren arteko iruzurra, batez ere feminismoaren gorakadak emakumeen aukera berdintasuna ahalbidetu duelako. Gale-
ra horren ondorioetako bat izan da, kasu askotan, genero indarkeriaz baliatzea 'bestea' desagerrarazteko: «Cuando los hombres no tienen éxito o están oprimidos, o son incompetentes de algún modo, la masculinidad se convierte en una cuestión más importante, central, crucial. Y, claro está, las mujeres son las que sufren por ello» (Gilmore, 2008: 43).

Bestalde, ordea, maskulinitate hegemonikoaren krisiaz haraindi doan krisia da maskulinitateena. Izan ere, maskulinitate berriek eta genero ikerketek⁷ bat egiten dute, batez ere, kontu honetan: biek diote krisiaren oinarrian gizonezkoek patriarkatuan, eurek ere, beren burua biktima gisa ikusten dutela. Eta krisi horretan krisi epistemologikoa dago. Gizonezkoak nahitaez boterearen esperientzian gizarteratzen dira. Generoaren ikuspegi

⁶ «Munduaren jabe den gizakia» esan nahi du, sortu edo egin egiten duena.

⁷ Jokin Azpiazuk ondo esplikatzan du garapen hau bere masterreko lanean (2012).

eta egiturak 5 urte bete baino lehen finkatzen dira umeen baitan; arrosaren eta urdinaren kodeak martxan dabilta. Arroza, zaintzarako, eta urdina, lanerako. Mutilek gutxi ikusiko dute arrosatik; erabat deabrutua egongo da; neskek, aldiz, lan mundura hurbiltzeko, beharrezkoa izango dute urdintzea. Beraz, botere kontu hauetan gizonaek ezingo dira feminizatu; hobeto ikusia dago emakumeak maskulinizatzea. Halaber, gizonaek 0 joerako heziketa emozionala dute, hau da, sentimenduak ezkutatzera, ukatzera eta erlatibizatzerara bideratutako heziketan haziko dira, bakardade maskulinoan (Lomas, 2004).

Gorago aipatu ditugun ezaugarri psikosozial horietan edota mikromatxismoetan (Bonino, 1995) eroso sentitzen ez diren maskulinitate berri alternatiboak sortu dira azken urteotan (Bonino, 2000; Bergara, Riviera eta Baccate, 2008). Neomatxismoari aurre eginez eta emakumeen borrokarekin bat etorrira, aitatasun berriak, zaintza partekatuak eta etxeko lanak bere egiten hasi diren maskulinitate berriak agertzen hasi dira. Maskulinitate horiek ez dira sexistak, ezta arrazistak, ezta homofoboak ere, emakumeekin, arraza gutxituekin eta homosexualekin nahiz lesbianekin hitz eginez eraikiak dira: maskulinitatearen kode tradizionalak berrirakurtzearen eta birpentsatzearen ondorio dira. Maskulinitate berri horiek argi daukate genero simetriak, emakumeentzat ez ezik, gizonaentzat ere onura besterik ez duela ekarriko: «Se identifican con las causas feministas y han luchado al lado de las mujeres porque han reconocido que ese modelo de masculinidad no sólo las oprime a ellas sino también, a ellos» (Valdés eta Olavarría *apud* Martorell 2012: 188).

Chodorow-ek (1984) seme-alaben zaintza partekatua proposatzen zuen estrategia politiko gisa, genero asimetria gainditzeko eta berdintasuna bermatzeko; sinetsia zegoen emakume berria aitatasun berrien ondorioa izango zela. Hona hemen David Leverenzek hitzak: «Me di cuenta de que la paternidad me estaba cambiando y me alejaba del modo en que la masculinidad me había conformado, especialmente de manera competitiva en el ámbito público» (Leverenz *apud* Carabí eta Armengol, 2008: 71).

Maskulinitate berri horiez gain, beste batzuk ere badira, maskulinitate disidente deritzenak, zeinak *gay* maskulinitateetan (Azpiazu, 2012) edota

maskulinitate femeninoetan (Halberstam, 2008; Platero, 2009) oinarritzen diren. Maskulinitate disidente hauek inperialismo kulturalari aurre egiteko sorturiko *queer* gizarte mugimenduaren eremuan ulertu behar dira; *marikoi*, *joxe-joxepa*, *arraroa* kontzeptuaren barruan, alegia⁸. Eta, hala, binarismoa, hau da, feminitatea eta maskulinitatea, bi mutur izan ordez, *continuum* bateko erreferentzia bilakatuko lirateke⁹, non identitate anitz eta nahastuak ikusteko aukera sortuko litzatekeen:

Mientras exista la distinción entre lo doméstico y lo público, lo privado y lo público, mientras tengamos ese binomio, el espacio seguirá siendo femenino y masculino. Por lo tanto, uno de los objetivos del feminismo y de los estudios de las masculinidades tiene que ser la destrucción de esas oposiciones, no tan sólo integrar a los hombres en la esfera doméstica y a las mujeres en la pública, sino crear más opciones (Carabí eta Armengol, 2008: 94).

Beraz, batetik, maskulinitate hegemonikoak ditugu eta, bestetik, horren krisiaren ondorioz emakumearen askapenaren aldeko borrokarekin bat egingen duten maskulinitate berri alternatiboak¹⁰. Artikulu honetan gizontasun hegemonikoaren eredu horretan gertatu diren arrakalak aztertuko ditugu.

⁸ *Queer* kontzeptuaz gehiago jakiteko jo Javier Sáezen (2013: 203-220) artikulura, eta horren garapena euskal literaturan ezagutzeko, ikus Ibon Egañak koordinatutako *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz* (2010) artikulua bilduma.

⁹ Bide horretan, feminitatearen eta maskulinitatearen bi muturrak deseraikitze aldera, genero ariketa ezin interesgarriago bat eskaintzen digu Virginie Despentesek (2007), zeinak alderdi itsusitik hitz egiten duela dioen, hots, emakume itsusientzat, zaharrentzat, mari-mutilentzat, pottor-lehorrentzat, larrua jotzeko inork nahi ez dituen *infolable*entzat, histerikoentzat: neska onaren merkatutik baztertutako guztientzat. Baina Despentesek gizezkoentzat ere hitz egiten du, inor babesteko gogorik ez daukatenentzat, babestu nahi baina asmatzen ez dutenentzat, borrokan ez dakitenentzat, negar erraz egiten dutenentzat, anbizio handikoak edo lehiakorak ez direnentzat, zakil handia ez daukatenentzat, erasotzaileak ez direnentzat, lotsatuentzat, hauskorrentzat, lanera joan baino etxeko lanak egin nahiago dutenentzat, burusoilentzat, gustatzeko pobreegi direnentzat, atzetik hartzeko gogoz daudenentzat.

¹⁰ Azken talde horretan, maskulinitate heterosexualak, gay maskulinitateak eta maskulinitate femeninoak bereizi ditugu. Esan behar da kontzeptualizazio hau oso modu diferentean uler daitekeela, baina guk gisa honetara planteatu nahi izan dugu, ikerketa tresnak errazago proposatzearen, literatur testuen azterketa emankorragoa izango delakoan.

3. Metodologia

Sarreran aipatu bezala, Lizardi Saria jaso duten narrazioak aztertzean pertsonaiengan jarriko dugu arreta, haien bidez transmititzen zaizkigun jokabideak eta izaerak hobeto ezagutzeko.

Pertsonaiaren trataera nolakoa izan den azaltzeko hiru joera nagusi bereiz daitezke literatur kritikaren historian: bata, diskurtsoaren barruko ikuskera (joera formalistak eta estrukturalistak); bigarrena, diskurtsoaz haraindikoa (joera psikologikoak eta soziologikoak); eta, hirugarrena, ikuskera semiotikoa, aurreko bi muturren erdibideko planteamendua egiten duena (Gutiérrez, 2002: 101-114).

Gure ustez, pertsonaiak testuko kategoria huts bezala aztertzeak ez du zentzurik, ez eta irakurketa psikologiko edota soziologiko soilak egiteak ere. Horregatik, alderdi metodologikoan pertsonaiak aztertzeko hiru alderdi hauek hautatu ditugu: batetik, pertsonaiek ekintzan duten funtzioaren araberako paradigma aktantziala (sintaxia), bestetik, pertsonaiek istorioan hartzen duten esanahia (semantika) eta, azkenik, pertsonaien erlazio sarean haien arteko harremanak nola garatzen diren ikusita, beren jarrera motak (pragmatika).

3.1. Paradigma aktantziala

Lehenik, paradigma aktantziala aztertuko dugu, narrazioak aurrera egiteko ekintza horretan parte hartu duten pertsonaiek edo indar abstraktuek zer funtzio betetzen duten jakin nahi dugulako. Ezagun denez, Greimasek garaturiko aktanteen eskemak sei eragile proposatzen ditu: subjektua, objektua, laguntzailea, aurkakoa, eragilea eta hartzailea. Horrela azaltzen du Lasartek:

Funtziorik nagusiena subjektuak garatuko du, beste funtzio guztiak subjektuaren baitan mugitzen baitira. Subjektuak zerbait nahi du beti. Nahi edo helburu hori objektu bat da; bai pertsona bat, bai zerbait abstraktua. Eragileak subjektua objektua aurkitzera bultzatzen du. Horrela, laguntzailea azal daiteke, objektua lortzen lagun-

tzeko; edo aurkakoa azal daiteke, bideak nekezago bihurtzeko. Era-gileak objektu hau kasurik gehienetan subjektuarentzat bilatzen du. Hartzailea, beraz, kasu gehienetan subjektu bera da (2011: 46).

Guk eskema aktantzial horren aplikazioa egingo dugu, hiru narrazioetatik ondorioztatzen den egiturak maskulinitate berririk ote dagoen arakatzeko balioko digulakoan.

3.2. *Gizon* kategoría

Haur eta gazte literaturak bere produkzio sinbolikoaren bidez genero identitateak eta jarrerak bultzatu ditzake. Horretarako bi bide har ditzake: bata, errealitatean aurkitzen diren jokabideen erreproduktzioa eta, bestea, horien eraldatzea. Brígida M. Pastorek dioen bezala, sistemak egokitzen izan duen ereduaren balioak transmititu eta gorde dituzte haurrentzako kontakizunek denbora luzean zehar, genero bakoitzarentzat naturaltzat hartu izan diren irudiak bultzatuz, baina 90eko hamarkadatik aurrera eta batik bat milurteko berrian haurren imajinarioa birdefinitzen duten produktu testualak ere sortu dira (espainiar) haur eta gazte literaturan (2015: 306-308).

Gure corpuseko hiru obretan hori nola gauzatzen den ikusteko *gizon* kategoriaren trataera semantikoki aztertzea nahitaezkoa da, eta horretarako pertsonaien ezaugarriak *item* batzuen bidez neurtzea proposatzen dugu. Sarreran esan bezala, aldagai guztiak aukeratutako corpusean azalduko ez bada ere (protagonistak haurrak direnez, azken sei itemak ez ditugu aztertuko, agertzen ez direlako), iruditzen zaigu beste obra batzuetan maskulinitate motak aztertzeko baliagarriak izan daitezkeela.

Fitxa hau sortzeko unean, maskulinitate hegemonikoaren ezaugarriak izan ditugu gogoan, fikziozko pertsonaiek zein bide hartzen duten ikusteko. Maskulinitatearen eredu hori hartu dugu oinarri, alde batetik, tradizio literarioan halako pertsonaiak izan direlako nagusi eta, bestetik, maskulinitate mota eta jarrera ezberdinak horiekin konfrontazioan sortu direnez, horien jokamoldea neurtzeko baliagarria iruditzen zaigulako. Ikus dezagun, proposatzen ditugun *item* hauen bidez, ea maskulinitate hegemonikoaren jokamoldeak errepikatzen diren ala horietatik urruntzeko saiakerarik baden:

1. Boterea izatea
2. Emozioen kontrola izatea
3. Arrakasta izatea
4. Lehiakorra izatea
5. Indarkeria erabiltzea
6. Jarrera homofobikoak izatea
7. Autosufizientea izatea
8. Laguntzarik behar ez izatea
9. Eraginkorra izatea
10. Emakumeen gaineratik egotea
11. Ahotsa izatea
12. Bikote harremana osatzen dutenen generoa (heterosexualitatea eta homosexualitatea)
13. Familia babestea
14. Familia mantentzea
15. Lanbide mota (esparru publikoan ala pribatuan)
16. Potentzia sexuala izatea
17. Ideologia mota
18. Etxeko lanetan parte hartzea

3.3. **Pertsonaien arteko harremanak**

Narraziootan agertzen diren pertsonaiak gainerakoekin dituzten harremanen bidez ere definitzen direnez, egokia iruditu zaigu haien arteko harremanen garapenean pertsonaia horiek zer jarrera duten aztertzea.

4. Corpusaren azterketa

Joseba Sarrionandiak *Hitzen ondoezan* (1997) dioen bezala, haur literaturak hiru funtzio bete ditzake: bata, lo eginaraztea; bestea, amets eginaraztea; eta, azkena, ernaraztea. Hiru horietarik bi dira, gure iritziz, modu baikorrean ulertzekoak, unibertso literario berrietara bidaiatzeko parada eskaintzea (amets eginaraztea) eta aurkezten zaizkigun mundu horiekiko jarrera kritikoa bultzatzea (ernaraztea). Ildo horretan, gizartearen pitzadurak azalertzeko, egungo arazoez jarduteko, eta mundu ikuskera berrietara gerturatzeke, euskal haur eta gazte literaturako hiru obra hautatu ditugu: Mariasun Landaren *Alex* (1990), Patxi Zubizarretaren *Matias Ploff-en erabakiak* (1991) eta Imanol Azkueren *Kea airean bezala* (2006). Hiru sormen lan horietako pertsonaien bidez, arazo sozialen inguruan aritzeko beta izango dugu, ertz ezberdinetatik aritzen baitira gizartean arrunt edo ohikotzat ditugun jarrera eta pentsamoldeez. Beste hitz batzuekin esanda, pertsonaia horiek izango ditugu jomugan, haien diskurtso eta jokamoldeetatik abiatuta, zein maskulinitate mota irudikatzen duten ondorioztatzeko eta, bidean, ezinbestean, familia tradizionalari, edertasun kanonikoari, laguntasunari, indarkeriari eta hainbat gairi buruzko gogoetak agertuko dira, guztiek ere maskulinitateekin zerikusia duten neurrian.

Haur eta gazte literaturak, besteak beste, irudimenezko espazioa baliatzen du gizarteko zenbait joera erakusteko, horien alde edo kontra egiteko. Alabaina, gai jakin batekiko ikuspegia modu esplizituan edota inplizituan azaleratzen da narrazioan zehar, eta, horregatik, aldagai horiei antzemateko, jarrera kritikoa izan behar du irakurleak. Horrek berebiziko garrantzia dauka HGL-z dihardugunean, irakurlearen gaitasunen arabera erauziko baititu istorioetako mezu ideologikoak, eta, Xabier Etxaniz eta Maite Mendiburuk esan bezala, «argi eta garbi dago testu guztietan, nahita edo nahigabe, nolabaiteko gizarte mota isladatzen dela; molabaiteko (sic) ideologia azaltzen dela, mundua ikusteko ikuspegi bat» (1990: 88).

Horri guztiari begira, 90eko hamarkadako bi obra eta 2006ko beste bat aztertuko ditugu, maskulinitate ikuspegitik zer pertsonaia eredu ematen den jabetzeko, batez ere 80ko hamarkadako bost libururen azterketa egin ostean, Xabier Etxaniz eta Maite Mendiburuk hauxe ondorioztatu baitzuz-

ten: garai hartako «euskal haur literatura sexista d[el]a» (1990: 90) eta «ezer gutxi dagoela gure gizarteaz, oraingo familiatan dauden arazoei buruz, gaurengungo neska-mutilen errealitateaz edo antzeko gaietaz» (*ibid.*, 89). Egoera ez da askoz hobea 1994ko uzta aztertuz gero. Izan ere, urte horretako «(...) produkzio osoa hartuta, oso irudi markatua ematen da lan banaketari buruz. Gizonezkoek egiten dute lan ordaindua kasu gehienetan eta gainera gizonezkoena da boterea. Emakumeek lan egin dezakete, baina normalean etxean geratzen dira etxeko lanak egiten. Oso kasu bakanetan ageri zaizkigu lan egiten duten emakumeak eta hauek normalean irakasleak (andereñoak) edo dendariak izaten dira» (Etxaniz, 2001: 157).

Haur literaturan genero ikuspegitik hiru ildo bereizten dituzte Amelia Barkin, Miren Guillo eta Gema Lasartek: batetik, narrazio militantea duena, hau da, gai konkretu bat lantzeko bide berria eskaintzen duena, esaterako *Eta zer?* bildumako zenbait obratakoa; bestetik, eredu tradizionala jarraitzen duena; eta azkenik, literatur balioa duena, zeinetan aniztasuna paisaiaren ezaugarri den, eta ez gatazka iturri. Azken eredu hori da interesgarriena, balio literarioa mantenduz, eredu ezberdinak zeharka sartzea baita genero berdintasunerako eta aniztasunerako eraginkorra (Barkin, Guillo, Lasarte, 2015).

Sorkuntza lanek eskaintzen dutena gorabehera, irakurleen esperientzia sozio-literarioak ere eragiten du obren interpretazioan, eta, ildo horretan, Amelia Barkinek testu literarioetako irudikapenei beste inertzia bat gehitzen die, umek etxetik edota gizartetik ekartzen dituen kodeena hain zuzen, eta horren aurrean literatur bitartekariak sozializazioaren bidez haurrek barneratu dituzten eskema bitar eta heterozentristak deskodetzen lagundu behar dutela uste du (Barkin, Guillo, Lasarte, 2015).

Finen, ikusten da egun genero berdintasunaren inguruko diskurtsoa aurreratua egon arren, jendartea eta HGL atzerago dabilzala. Pertsonaiak aldatzen ari dira, emakumezko pertsonaiak areagotzen ari dira eta kasu askotan ezaugarri maskulinoak oso femeninoak direnekin nahasturik irudikatzen dira¹¹. Aitzitik, oraindik ere eskola liburutegietako liburuetao prota-

¹¹ Haatik, egia da batik bat emakume protagonisten maskulinizazio prozesua gertatzen ari dela. Agian, teoria feministak dioten bezala, genero aniztasunari mesede handiago egiten dio gizonezko

gonisten % 30 besterik ez da emakumezkoa (Lasarte, 2013) eta, gainera, Barkinen arabera, irakurle mutikoez gizonetako protagonistak maite dituzte (Barkin, Guillo, Lasarte, 2015).

Horrenbestez, generoaren ikuspegitik, HGL-ko joera orokorrak eta euskal HGL-ko panorama zehatza ezagututa, gure corpuseko pertsonaien erakuntza eta irudikapena nolakoa den ikusiko dugu, haien minetan eta esperientzietan arakatu. Has gaitezen, bada, hurrenkera kronologikoan, Alexen abenturen berri ematen, Matias Ploffen ibilerak ezagutzen, eta Lionelen kezkek konpartitzen. Modu horretan, pertsonaiengan antzematen diren ezberdintasunek gizartea aldatu ahala sortu diren kezkei erantzuten dietela jabetuko gara. Izan ere, aztergai ditugun obretan ikusiko den bezala, 90eko hamarkadatik 2000ko hamarkadara bitartean badaude zenbait berrikuntza nabarmen, genero-rolen eraikuntzari dagokionez.

4.1. Alex, egunerokoa(re)n protagonista

Obra honetako pertsonaia nagusia izenburuko Alex dugu. Protagonista da, berak hala nahi ez badu ere, ez baitzaio atentzioa ematea gustatzen. Haren guraso abenturazaleen desiraren aurka, kontrako norabidean eraiki du bere nortasuna, anti-abenturazalea izanik (halaxe dio ironikoki bere egunerokoa: «(...) abenturazale amorratuen sementa naiz eta horrek asko markatu du nire bizitza», 6). Bizitza, baina, apetatsua da, pertsonaiak ahalmen berezi bat baitu: epe laburrean etorkizuna ikusteko gaitasuna. Horri esker lapurreta bat ekidin eta bere lagun Nina onik atera eta haren gurasoen laguna den Mikel tabernariaren negozioa salbatuko du, eta ezustean heroi bilakatuko da bere gelakideentzat eta gurasoentzat. Gertaera horrek, baina, ospitalean egotera behartuko du, lapurrak buruan jo eta konorterik gabe utziko duelako mutila.

protagonisten feminizazioak, edota bi alderdiak subertitzeak, eta sinbiosian edota sinergian jartzeak. Kezkagarria da fikziozko literatur pertsonaia femeninoetan joera androzentrikoak kausitzea eta gizonetako pertsonaiekin aldez kontrako biderik egiten ez ikustea, dikotomiarekin behingoz ez apurtzea, eta aniztasunaren aldeko proposamenak urriak izatea (Lasarte, 2017).

Ez-leku gisa uler daitekeen ospitaleko gelatik, Alexek sentitzen duenaren berri ematen du, lehenengo pertsona baliatuz irakurlea haren behar eta sentipenetara gerturatzeko. Egunerokoa da bere ezinegonak azaleratzeko espazioa, eta hortxe husten ditu bere kezken inguruko gogoetak. Hortaz, irakurleak soilik jakingo ditu ardura horiek, modu pribatuan kontatzen baititu: «Mikelen tabernan lapur hura sartu zenetik ez dut Ninaren berririk eta horrek tristetzen nau» (8). Jendaurrean ezkutatu egiten ditu poz eta maitasun sentimenduak: «(...) Margak xake-aula ekarri zidanean egundoko poza sentitu nuen, bihotza saltoka jarri zitzaidan (...) baina disimulatu egin nuen, eta berriro galdezka hasi nintzaion ea zergatik ezin nuen Nina ospitalera ekarri» (15). Badirudi gizartean sentimenduak erakustea ez dela ohikoa, edo lotsagarria gertatzen zaiola. Horrek badu nolabait bere ahalmen bereziarekin zerikusirik; izan ere, gaitasun horri buruz gurasoekin hitz egin izan duenean, ez diote sinetsi, eta adarra jo diotenez, gai hori berriro ez ateratzea deliberatuko du, gainerako pertsonaiekin mesfidatia izateraino: «Bai, zeren nik batzuetan etorkizuna ikusten baitut. Txikitandik gertatzen zaidan fenomeno da, baina jadanik ez diot ia inori nire sekretua azaltzen» (19). Harik eta konfiantza ematen dion pertsona aurkituko duen arte: «(...) [Ninari] den-dena esaten nion, nik ez dakit oraindik zergatik, eta berak ulertzen ninduen (..)» (27). Bi emakumezko dira konfiantza hori lortuko dutenak: Kontxesi andereñoa eta Nina eskolakidea. Lehenengoak, bere gaitasunean sinetsita, zorteduna dela esaten dio, eta horrela Alexek bere buruarenganako konfiantza berreskuratuko du. Bigarrenak Alexen antzeko egoera bizi du: eskolan ez du lagunarte zabalik eta bakarrik ibiltzera ohitua dago, ezintasun fisiko bat dela-eta. Horixe da bi pertsonaiak batzen dituen, ezberdina izatea, «arraroak» izatea. Baina, denborarekin, Ninaren oztopo hori modu positiboan ikusteko gai izango da Alex: «Hasieran, arraroa egiten zitzaidan herren baten ondoan joatea; orain, (...) grazia egiten dit oso ibile-ra berezia duelako, oso airosoa, tramankulu eta guzti» (14).

Alexek badaki zer den gainerakoen begietara bitxia izatea. Baina ezberdintasun hori zer parametroren arabera neurtzen den aztertzen badugu, jabetuko gara *arraro* izate hori jarrera homofobikoei lotuta dagoela, Alex izendatzeko izengoitiak ez baitira nahi gabe hautatutakoak: «[Txantxo gelakideak] Oiloa, maritxika eta abar ere deitzen dit nirekin haserretzen de-

nean» (17). Haren gelakideek, baina, lapurretan Alexek izandako jokaeraren ondoren, ausarta dela pentsatu eta ordura arte haientzat «txakur berdea» zen horretaz harro daudela adieraziko dute: «(...) xakean eskolako txapelduna geratu nintzenetik ahaztu egin zitzaien [«txakur berdea» izen-goiti] hura eta (...) Orain ere, esan didatenez, nire gelakoak oso harro daude nirekin topo baten lapurketa galarazi dudalako eta egunkarian agertu naizelako» (17). Ausardia, ordea, ez da bere ezaugarria, haiek uste dutenaren kontra: «Baliente hitza etengabe entzuten ari naiz azken egun hauetan eta ni, edozer gauza izango naiz baina balientea ez. Nina ere ez» (16-17).

Hasiera batean paradoxikoa dirudien arren, paradigma aktantzialaren arabera deskribatuz gero, Alex ekintzaren subjektua dela esan beharrez gaude, bere burua anti-ekintzailatzat izanagatik. Gertaeraren eragilea Alexek Ninarekiko harremanari (eta zehazkiago, maitasunari) eusteko desirada, eta ekintzaren objektua Ninarekin egoteko nahia eta maite duela esateko gogoia. Ondorioz, hartzailea Alex bera da, erlazio horren onuraduna izan daitekeelako. Ama (gertatutakoa egunerokoan idaztera bultzatzen duelako) eta Marga erizaina (Ninarekin egon ezin daitekeenez, harekin gutun bidez komunikatzera bultzatzen duelako) dira desiratutako hori lortzen laguntzen diotenak, biek ala biek Alexek gertatu zein sentitutakoa egunerokoan kontatzera animatzen dutelako. Bestalde, ekintza narratiboak bi zati dituenek (bata gutuna bera idaztea, eta, bestea, gutuna bidaltzea), Mikel tabernaria ere laguntzaile gisa definienez, bera baita gutuna Ninari helaraziko diona. Bide horretan oztopoa, aurkaria, ospitaleko arauak izango lirateke, ez diotelako Alexi Ninarekin egoten uzten. Hein batean, ordea, lapurra ere izan liteke aurkaria, haren kontra borroka egiteagatik baitago ospitalean Alex.

Kontakizunetako narratzailearen ezaugarriak kontuan hartuz, irakurlea berehala jabetzen da haren bereizgarriek maskulinitate hegemonikoaren eredu apurtzen dutela. Alexen gelako mutil taldeak eta Alexek ez dute bata bestearrekin zerikusirik. Gelakideen jarrera oso maskulinoa da, hegemoniaren arabera gehientsuetan. Horrela, adibidez, parkean daudela, mutilek jolasik beldurgarri eta arriskutsuenetan ibiltzeko gogoia dute; Alexi, berriz, ez zaizkio halakoak atsegin: «Hara [Igeldoko parkera] ailegatu bezain pronto nire gelako mutilak «montaña rusa»ra abiatu ziren korrika, baina nik ez ditut

gora eta behera ibili behar bortitz horiek agoantatzen» (24). Gustuen arabeko hautuak, bere sinpletasunean, ezer adierazten ez duela pentsa badezakegu ere, presente izan behar dugu mutil horien nahiak askotan gizarteak mugatutako eta bideratutako gogoen arabera eraikiak direla eta, hortaz, ausardia neurtzeko bidea ere izan daitezkeela. Bestalde, ildo berean, Alexek ez du aitaren eskaladarako zaletasuna konpartitzen: «Eta gogoratzen dut orduan, beste askotan bezala, aitak zera marmartu zuela: «Ume honek ez du ematen nire semea denik...» (32). Indar fisikoa bainoago, nahiago du gaitasun intelektuala eskatzen duen xakean aritu. Are gehiago, tabernako lapurretan bortxa erabiltzen denean, bera ez da gai indarkeriaz erantzuteko, eta beldurraren eraginez, dardarka hasten da: «Gaizkilea bueltatu egin zen eta eskuan nera-man pioletari begira geratu zitzaion, nire belaunak txarlestona dantzatzen hasten ziren bitartean...» (33). Ez du indarkeriaren erabilera ulertzen, zentzugabea iruditzen zaio: «Gero autotxokeetara zuzendu ziren [gelako mutilak] eta han aspertzen hasi nintzen ez baitut inoiz ulertu jendea elkarri bultzaka eta kolpeka, mina hartuz, nola diberti daitekeen...» (24). Bertan jolasean ibili orde, lasaitasuna bilatzen du txalupatxoak dabilzan lakuan.

Alexen eredia, beraz, maskulinitate alternatiboarena da. Rol femeninoekin lotu ohi diren ezaugarriak ditu (sentibera da, beldurtia, anti-abenturoa, ez ditu bere sentimenduak guztiz kontrolatzen, etab.). Gainerako pertsonaia batzuen parean, maskulinitate hegemonikoaren ezaugarriak iraultzen ditu, aitaren eta lagunaren joerak konpartitzen ez dituela erakutsiz. Bi maskulinitate mota horiek *continuum* bateko muturrak direnez, esan liteke Alexen gustuak, erabakiak, jokabideak, etab. ez direla beti ohartuki egindako gogoeta baten emaitza, batzuetan gizartearen gehiengoak jarraitzen dituen jarrerak ere bereganatuta dituela antzematen baitzaio: batetik, Ninari bikote harremana osatzeko proposamena egiten dionean, adibidez, bere ametsa harekin ezkontzea dela ematen du. Une horretan gizartearen ahotsa nabarmentzen da, zeinak adierazten duen ezkontzea dela maitasunaren adierazlerik gorena; bestetik, ez da gai bere sentipenak jendaurrean adierazteko, eta bere sentimenduak eguneroko batean azaleratzen ditu. Isilpean gorde behar hori gizonezkoek esparru publikoan sentimenduak adierazteko ohitura faltarekin lotua dago, are gehiago maitasun gaiak badira: «(...) gainera Ninari idaztea oso zaila egiten zait» (16).

4.2. Matias Ploff-en erabakiak: gizentasuna onartzeko bide aldapatsua

Lan honetako protagonista ere izenburuan agertzen zaiguna da –Matias–, bere denbora gimnasiako eskolak saihesteko estrategien bila ematen duen mutil lodia. Izenburuan irakurleak pentsa dezakeenaren kontra, lehenengo pertsonan idatzitako kontaketa da, narratzaile-protagonistak gertaearen bere ikuspegia ematen digu, bere itxura fisikoak erabaki batzuk hartze-
ra behartzen baitu:

(...) gimnasia orduari berealdiko gorrotoa nion, ezer baino gehiago horixe gorrotatzen nuen. Ibiltzea-eta gustukoa nuen, izango ez nuen ba, baina astiro-astiro eta inongo presarik gabe; korrika ibili behar zoro hura, ostera, nire hirurogeitaka kilorekin eta arnasa hartu ezinik... hori gehiegixko zen eta halabeharrez, ez nik hala nahita, sastraka artean ezkutatu behar izaten nuen (361).

Lehenengo urratsa, beraz, gimnasiako klasean igo beharreko aldapari iskin egiteko, heziketa fisikoko klasearen ardura duen Urteaga ikaslearekin egindako tratua da. Hori da, hain zuzen, hurrengo ekintza katearen abiapuntua. Ikasgelako norbaitek, ordea, hitzarmen horren berri emango dio don Romualdo irakasleari, eta haren zigorra jasan beharko dute Urteagak eta Matiasek. Zigorrak lotura zuzena du protagonistaren ahulgune nagusiarekin: baraurik egon beharko du arratsaldera arte. Matiasek, orduan, egoera horrek beste okerrago batera eramango duela pentsatzen du: «Ez nuen pentsatu ere egin nahi amaren erreakzioaz, orduan bai barau egin behar, gutxienez hilabetean egon beharko nuen txokolaterik probatu ere egin gabe. Eta aita..., hobe ez pentsatzea, a ze oilo ipurdia atera zitzaidan!» (368).

Aipuan ikusten denez, gurasoak gertatutakoaren jakitun izatean etorriko zaionak kezkatzen du, amak irakaslearen zigorra hanpatuko duelako, baina, batez ere, aitaren irudi agintari eta zigortzailearen beldur delako. Hala eta guztiz ere, errealitatera bueltatuz, egoeraren alderdi positiboa ikusten saiatzen da Matias: «Hala ere, zer arraio, eguerdi hartako barauak kalte baino gehiago on egingo zidan. Modu aproposa zen erabakitako erregimena marxan jartzeko» (368). Haren bizimodua guztiz baldintzatzen duen ezaugarria da loditasuna, eta horrekin kezkatuta dago hasiera-hasieratik. Hori de-

la-eta, gizentasunari aurre egin eta hura gainditu behar duela pentsatzen du, ez soilik lagunarte handirik ez duelako, baizik eta gimnasia ikasgaia gainditu behar duelako, eta itxura fisiko horrek neskekin egotea eragozten diolako (haren ustez, neskek ez dutelako horrelako gorputza duen mutilik nahi bikotekidetzat): «Gimnasia kate eta gero, neskekin, seguru asko kale egingo duzu» (364) esaten dio bere buruari. Beraz, arazo fisikotik haratago, harremanetarako ere arazo bat da berarentzat gizentasuna.

Itxura fisikoak gainerako ikaskideekiko menpekotasuna dakarkio Matias. Ez da gai hari burla egiten dietenei aurre egiteko, harik eta Urteagaren laguntza jasoko duen arte. Zigorraz errukiturik, Urteagak ogitarteko bat emango dio Matiasi ezkutuan, eta orduz geroztik mutila sendotu egingo da, biziberritu, bere buruarenganako konfiantza handiagoa lortuko du eta, Urteagari mesedea itzultzearekin bat, iseka egin eta indarkeriaz kontra egingo dion Aldanondori ziria sartzea erabakiko du. Izan ere, ikaskide horren aginduz, matematikako azterketa lapurtu behar zuen berari emateko, ez bazuen zigor fisiko makurra jasan nahi. Halaxe esaten dio Aldanondok Matiasi:

(...) puzkailuaren jolasa frogatuko diat hirekin, horrela beharbada ez duk Altzagarateraino igotzeko arazorik izango, globo baten antzeria igoko haiz-eta. (...) gose izango haizela pentsatzen dudanez, ez ezak galdu ohar hau, gero nire aurrean merienda gisa jango duk-eta. Denbora ez daukak sobra, beraz, azti ibili (376).

Aldanondo da gelako liderra, boterea indarkeriaz aritzeko eta gainerakoak beldurtzeko erabiltzen duena. Bihurrikeriatan ez dabil bera bakarrik, bi jarraitzaile fin ere baditu: Uhartea eta Zufi, zeintzuek narrazio osoan zehar ez duten ezer esaten, eta berari men egiteko funtzioa duten bi pertsonaia isil gisa agertzen diren.

Egoera hori izanda ere, Matiasek hartutako erabakiak bere jarrera ez ezik, bizimodua ere aldatuko dio: Aldanondori pasako dion azterketa ez da egun hartan egin beharrekoa, eta, beraz, erantzunak ez dira zuzenak izango. Istoria sinesgarria izan dadin, Matiasek berak ere ez du azterketa gaindituko, eta harriturik agertuko da hiru ikaskideen aurrean. Urteagari, aldiz, erantzun egokiak ezkutuki eman eta gero, azterketa gaindituztat geldituko da: «Ez dut ukatuko: kostata gauzatu nuen nire erabakia astearte arratsalde

hartan, baina behin hura gauzaturik, harro sentitu nintzen, harro eta izebarenean meriendatu ostean bezain pozik» (382). Irakurlea jabetuko zenez, haren asetze maila psikologikoa beti fisikoki edo biologikoki beteta egotearekin konparatzen du. Hori da bere neurgailu eta ardatz.

Aipatutako ezaugarriak kontuan hartuz, beraz, bi pertsonaia nagusi horien arteko dikotomia garbia da, batez ere gizon kategoriaren parametroetan neurtuz gero, boterearen eta indarkeriaren erabilera zein emozioen kontrola oso ezberdina baita bien artean. Aldanondok, bere aginteari eusteko, guztien gainetik dagoela erakutsi behar du, eta horretarako azterketa gainditu eta bere jarraitzaile taldea izan behar du. Indarkeria erabiliz gainerako ikaskideen zein eskolakideen errespetua (edo, hobeto esanda, beldurra) irabaziko du. Matiasek une jakin batean soilik du boterea, hain zuzen ere, azterketa bere esku dagoenean. Baina egiten duen erabilera aginte nagusia duenaren kontra jotzeko denez, boteredunaren kontrako estrategia gisa ulertzen da. Zentzu horretan, Aldanondok kontrolpean du dena, emozioak barne; Matias, ordea, egoera deserosoak sortutako urduritasun eta larritasunak jota dago: «[Azterketa] Hura hartu eta dardara batean aldendu nintzen inguru hartatik, izan ere irakaslearen mahaia betiere sakratu samarra izaten baita» (381).

Bestalde, ikaskideak izendatzeko, abizenak erabiltzen dira beti: (Matias) Arizmendi, Uhartte, Aldanondo, Zufi eta (Mielmari) Urteaga. Haatik, Urteagak egindako mesedeari erantzunez, ogitartekoa eskaintzen dion unetik Matiasek bere izenez deitzen dio, pertsonaia harekiko sentitu duen gertutasunaren seinale: «(...) pentsatu nuen hura zela bere izenez deitzen nion lehendabiziko aldia: Mielmari. Eta halaxe deitzea erabaki nuen handik aurrera» (370). Alabaina, Matiasek bi ezizen ditu: *Irrintzi* eta *Ploff*. Lehenengoa bere jateko grinarekin loturik dago: «Oso maiz, atsedendietan-eta, «Goseak irrintzika nago» esaten omen nuen, eta hortixe zetorkidan ezizena. Ploff, ostera, Aldasoro astakirten hark bakarrik esaten zidan, eta berak jakingo du zergatik» (378). Bigarren hori istorioaren amaieran jakiten da, Aldanondori ziria sartu ondoren: «Eta nire aldamenetik igaro zenean, barre gaiztoa egin eta honela esan zidan: ‘Matias, egunen batean lehertu eta ploff egingo duk’. Baina nik ez nion kasurik egin. Ez zuen merezi» (391). Deitura onomatopeiko horrek, beraz, gizentasunari egiten dio erreferentzia, gorputz

heziketako aldapa igotzean eztanda egingo duela eta ezinean geratuko dela adierazteko.

Kontakizun horretan, paradigma aktantzialaren arabera aztertuz gero, nabarmena da ekintzaren subjektuarengan, Matiasengan, eragiten duen indarra haren itxura fisikoa dela. Horren inguruan harilkatzen da istorio guztia. Eta ekintzaren objektua Matiasek bere gorputza onartzeko duen beharra da. Hartzailea Matias bera da, prozesu psikologikoaren onuraduna delako. Eta, hain zuzen ere, narrazioko inflexio puntu den erabakiak –Matiasek Aldanondori azterketa eredu okerra ematearena– erabat aldatuko du Matiasen bizimodua, bi norabidetan, bederen:

- a) Mielmari Urteaga bere lagun bilakatzen da, eta Matiasen gorputz heziketako ordua arinagoa bihurtzen da (eta, bide batez, osasuntsuagoa): «Mielmariren ondoan pozaren pozez nindoan. Oso desberdina da aldapak bakarrik edo adiskide on baten laguntzaz igotzea; bigarren kasu honetan ez dira hain nekosoak egiten» (389).
- b) Bere buruarekin seguruago sentitzen da, konfiantza irabazten du, gainerako isekak harengan eragiteko gaitasuna galtzeraino: «Eta nire aldamenetik igaro zenean [Aldanondo], barre gaitoa egin eta hone-la esan zidan: «Matias, egunen batean lehertu eta ploff egingo duk.» Baina nik ez nion kasurik ere egin. Ez zuen merezi» (391).

Azken batean, erritu inizatiko bat gogorarazten duen kontaketa da, zeinetan pertsonaiak proba batzuk gainditu behar dituen bere burua kokatu eta beragan sinesteko. Bide horretan, baina, Urteaga izaten du laguntzaile, bere laguntasunak bakarrik ez dagoela sentiarazi eta bizitza beste modu batera ikusteko aukera emango diolako. Horren erakusgarri da Matiasek amaieran sentitzen duena, Mielmarik asteburuko plan batera gonbidatzen duenean: «(...) orduan goiz hartako eguraldiaren antzera jarri nintzen, pozik eta irribarretsu, txokolate asko duen ogitarteko bat bezala» (392). Azkenik, narrazioan aurkari funtzioa betetzen duena Matiasen loditasuna da, gizarteak ezarritako edertasun kanonikoaren eredutik kanpo geratzen baita mutila, eta gimnasiako klaseetan arin ibiltzea eragozten dionez, eskola ordu horiek saihesteko tranpak egitera bultzatzen baitu.

Matias Ploff-en erabakiak eleberriak haur eta gazteen kezka iturri izan diren betidaniko gaiak ditu hizpide: itxura fisikoaren gehiegizko garrantzia, gizentasunak baldintzatutako bizitza bakartia, interesagatik gerturatzen diren lagunak, etab. Baina deigarri gertatzen dena deskribatzen duen hezkuntza sistema zaharkitua da; izan ere, 90eko hamarkadan sortutako istorio honetako gimnasia eta matematika irakaslea –don Romualdo– apaiza da, eta gaur egun ere halako ikastetxe erlijiosoak badiren arren, hain ohikoa ez den irakaskuntza mota aurkezten digu: lehenik eta behin, eskolako testuinguruan emakumezko bakar bat ere ez agertzeak, gizonezkoena soilik den eskola batez ari garela pentsatzera garamatza (pertsoneiaren ama da aipatzen den bakarra). Gainera, irakaskuntza metodologia zigorretan oinarritzen da, garai bateko hezkuntza sistemaren erretratua eginez, non Kimiko deitzen dioten irakasleak «belarrondoko eta muturrekoen formularekin konpontzen zuen basapiztiak (...)» (372); «Kimikoa aipatuta, ostera, don Romualdo askoz ere finagoa zela pentsatu nuen, hark dena puntu positibo eta negatiboekin konpontzen baitzuen» (373).

Orain arte aipatutako ezaugarriak kontuan izanda, beraz, ondoriozta genezake Aldanondok maskulinitate hegemonikoari dagozkion ezaugarri guztiak dituela: borrokarako prest dago beti, lehiakorra da, ez du laguntzarik behar, bera da lortu nahi duen hori gauzatzeko gai den bakarra eta bere lorpenak txalotuko dituen taldetxo bat dauka, eskolako monopolioa du eta, guztien aurrean nagusitasuna erakusteko, indarkeria erabiltzen du («Halako batean, beheko ikasmilako mutil bati bizikletaren puzkailua ipurtzulotik sartu eta ez da ba hura puzten hasi!», 378). Horren aurrean, bestelako jarrerara agertzen duen Matias daukagu, maskulinitate alternatiboetatik gertuago dagoena: bere itxurak baldintzatutako bizimodua daraman pertsonaia bakartia, sentimenduak irakurleari –irakurketak iraun bitartean bere «entzule» izango denari– modu pribatuan adierazten dizkiona, sentikortasun literarioa duena (Enid Blytonen *Zazpi Sekretuen kluba* detektibe eleberri bildumaren irakurle amorratua da, hango pertsonaiak bere heroi literario direla erakusteraino), kirolzalea ez dena eta aldapan gora korrika egiteari zentzurik aurkitzen ez diona, agintearen kontra egiteko indarrak biltzen dituen, beldurra daukala adierazten duena, emozioak kontrolatzeko zailtasunak dituen («Eta ni are gehiago gorritu nintzen eta nekez eutsi nion

txiza egiteko gogoari eta ez nintzen ezertxo ere erantzuteko gauza izan», 366), etab. Tartean bigarren mailako pertsonaiak ditugu, batzuk (don Romualdo, esaterako) Aldanondoren bidetik eraikiak dira, eta, beste batzuk, berriz, Matiasen izaeratik gertuago daude (Urteaga, adibidez). Horrek, beraz, maskulinitatearen trataeran dagoen dikotomia indartzen du (hegemoniko vs alternatibo), betiere irakurketa bereizgarri positiboak eta eredugarriak dituen pertsonaia nagusiaren alde egitera bideraturik.

4.3. Kea airean bezala: ametssetako bidaiatik errealitatera

Aztergai ditugun hiru lanetatik haxe da guztietan ezberdinena, bai gaiaren trataerari dagokionez, baita pertsonaien eraketari eta haien arteko erlazioei dagokionez ere. Haatik, baditu gainerako bi obrekin antzekotasunak, besteak beste: narratzaile protagonista mutila da –bederatzi urteko Lionel izenekoa– eta bere bizi-esperientzia kontatzen digu, nitasunetik abiatuta.

Istorioaren abiapuntua Lionelek aitari ospitalean egiten dion bisita da. Hortik aurrera, Lionelek bere familiaren egoera kontatuko digu, gaur egungo gizartearen hainbat pitzadura agerian uzten dituela. Lionel bere arreba Krisekin bizi da harrera etxe batean, haien aitak buruko gaixotasuna baitu, esplizituki adierazten ez den alzheimerra: «Aita gaixorik dago. Burutik gaixo. Krisek esaten du buru barruko gauza batzuen korapiloak askatuta dituela, eta horregatik batzuetan ezin dituela ideiak elkarrekin behar bezala lotu. Eta arrazoi du» (24). Eritasunaren gorabeherak, ordea, ageriko egiten ditu: «Batzuetan ospitaletik abisua ematen diote Xabierri ez joateko bisitan. Esaten diote aita oso gaixo dagoela. Horrelakoetan, nik badakit, Krisek esanda, ez gintuzkeela ezagutu ere egingo» (25). Hala ere, ez dago dramarik, narrazioa oso modu neutroan eta errealistan kontatua dago. Sentimendu asko ageri dira, baina ez dago biktimizaziorik, ez eta gaixotasunaren inguruko taburik ere (eritasuna aipatzen ez bada ere, ez da gertatzen ari dena ulertzeko nahitaezkoa).

Lionelek aitaren promesa gogoan duela egiten duen hausnarketa da kontakizunaren ardatz:

Aitak beti esaten digu zerura eramango gaituela, «Hemendik irte-ten naizenean». (...) Esaten du eskuetatik helduko digula fuerte-fuerte, Krisi eta bioi, eta begiak itxita, gora eta gora egingo dugula hirurok, hegan, keak airean bezala. Hanken azpian ezer ez dugula sumatuko, lurrik ere ez, eta nahi dugun tokira joango garela elkarrekin (7).

Mutikoak, egoera hori noiz iritsiko zain, bere egunerokoaren nondik norakoak azalduko dizkigu, lehen lerrotik, baina oinak lurrean dituela beti. Oso pertsonaia sentibera da, bere arrebarekin duen harremanean antzeman daitekeenez: «Besarkatu egin ninduen [Krisek], makurtuta, eta nik bera ere bai, estu-estu» (12). Hain daude bat eginda, ezen askotan elkar ulertzeko hitzik ere ez duten behar, bata bestearen minaz jabetu eta konpartitzen baitute: «Ez genuen ezer ere esan. Ez ginen mugitu. Denbora dezente egon ginen horrela» (12); «Nik ez nion ezer galdetu eta berak ez zidan ezer erantzun» (13-14).

Bederatzi urte besterik izan ez arren, emozioak kontrolatzen saiatzen da eta kanporatu egiten ditu, bai bere egunerokoan (pribatuki), baita arrebarekin ere (ez hain pribatuki). Konturatzen da ezin duela gauza handirik egin bere etxea eta familia batuta izateko (aita, bere kasuan, ama ez baitu ezagutzen): «Zaila da imajinatzen gure etxea. Krisi eta biok etxe horretan gaude, baina ezin dut osatu irudia behar bezala (...) Horregatik, niretzat, errazagoa da ihes egitea. Ametsetan bada ere, nik urrutira joan nahi dut, alde egin, Krisekin» (18). Zentzu horretan, maskulinitate hegemonikoaren parmetroetan gertaera bati aurre egiteko joera badago, testuinguru berberean Lionelek ihes egin nahi du, egoerak gainezka egin eta ez delako horri eusteko gai sentitzen.

Horrez gain, amaren absentiak familia tradizionalaren eredia apurtzen du, nahiz eta Lionelek haren falta nabaritzen duen. Sentipen horren iturburua izan daiteke bi gurasoetako inor harengandik gertu ez izatea. Ama nor izan duen jakiteko grinak ere areagotzen dio min hori, eta bere jakiteko beharra gorde beharrean, Krisi galdetzen dizkio bere kezkek. Hark, baina, hamabost urteko neska izanda, nerabezaro bete-betean, amaren existentzia ukatzen dio, eta Lioneli kostatzen zaio hori onartzea: «Ama izan, izan genuen, noizbait, baina nik ez daukat gogoan, ez daukat bere oroitzapenik»

(32). Are gehiago, haren erreferentziarik ezean, ama idealizatzen du, eta babes emango dion pertsona gisa definitzen du, horixe baita berak behar duena:

Askotan, lotan, beti amets berbera egiten dut: beso batzuek, zabalik, deitu egiten didate, eta hurbiltzen natzaienean besarkatu egiten naute, eta ezpain gozo batzuek musu ematen didate masailean, eta gorputza gorputzaren kontra jarrita babes eta beroa sentitzen dut (34-35).

Bere arrez gain, eguneroko bizimoduan duen erreferentzia nagusia gizonetzkoa da, izan ere, harrera etxeko zaintzaileak –Xabierrek– du haien ardura, eta Lionelek askotan aita baten gisa sentitu du:

Gure benetako aita Luis da. Aita ospitalean dago gaixo. Baina Xabier ere bada pixka bat gure aita. Xabier egoten da egunero gurekin eta zaintzen gaitu, Xabierri kontatzen dizkiogu egunean zehar gertatutakoak, Xabierrekin ondo pasatzen dugu... (8).

Aita baten betebeharrak zein diren argi adierazten du Lionelek aipu horretan. Alabaina, horrek ez du esan nahi bere aita maite ez duenik, eta hartaz mintzo denean amultsuki egiten du: «Oso irribarre polita dauka aitak, barrea eragiten duen horietakoa» (28).

Kontaktetan zehar etengabe nabaritzen da Lionelen desira zein den: babes, maitasuna eta egonkortasuna lortzea. Eta hori familia baten baitan lortuko duela iruditzen zaio. Egoera horri aurre egiteko terapia gisa, baina, Kris arrebak ametsetako bidaia batean pentsatzeko esaten dio, eta horrela Kanadara bidaiatzen du, nahiz eta, amaieran ikusten denez, ez horrek, ez eta aitaren promesak («zerura elkarrekin hegan egiteak»), ez duten guztiz asebetetzen. Aita behar du, baina egunerokoan, haren ondoan: «Aitak hori esaten duenean, nik beti gauza bera pentsatzen dut: nik ez diodala lagundu nahi bidaia horretan. (...) Nik ez dut nahi zerura eramaterik. Inora joan gabe ere, uste dut egonean ere gustura egongo nintzatekeela, etxean, baina benetakoan, gure-gurean, (...)» (50-51).

Heldutasun maila handia erakusten du pertsonaia nagusiak istorio honetan, seguru aski bizitzaren gorabeherek zaildutako mutila delako. Haren desirak eta beharrak ez dira gainerako umeen antzekoak, bizipenak ere ezber-

dinak izan baititu. Horregatik, kontaketa ez dago ekintza handirik, plano psikologikoan mugitzen da gehienbat. Hortaz, paradigma aktantzialaren arabera, ekintzaren eragilea Lionelek familia egonkor batean bizitzeko duen nahia dela esan dezakegu. Ekintzaren subjektua Lionel bera da, berari sortutako sentimenduek bultzatuta kontaktzen baitizkigu familiak beragan sortzen dituen gabeziak eta pozak. Ekintzaren objektua Lionelen familia litzateke: Kris eta aita (baita, agian, ama ere, Lionelen desiren arabera). Hartzailea Lionel bera da, familia izatearen onuraduna izango litzatekeelako (baita gainerako sentitartekoak ere). Xabier da laguntzailea, Lionelen eguneroko bizitza ahalik eta arruntena izan dadin laguntzen duelako, baita anai-arrebak aitarengana eramaten dituelako ere. Krisek ere badu Lionelen desira lortzeko bidean zeresanik, haien arteko harremanak familiaren zati bat elkarturik dela eta haren babesa duela sentitzeko adina indar ematen baitio. Aurkaria aitaren gaixotasuna da, ospitalean egotera behartzen duelako eta haren seme-alabengandik berezita bizitzera kondenatzen duelako. Era berean, Lionelen ikuspegitik, amaren absentsia ere aurkari gisa identifika daiteke.

Kontaktaren tonuak eta gaiaren tratamenduak egoeraren laztasuna transmititzen diote irakurleari. Izenburuak iradoki bezala, kea airean desgertzen den gisan lausotzen dira Lionelen ametsak, poliki-poliki aienatzen dira. Hankak zeruan bainoago lurrean nahiago ditu, bere ingurukoekin batera.

Ondorioz, aipatu ditugun pertsonaia nagusiaren izaerak eta haren jarre-
rak ezohiko jokabideak eta pentsamoldeak azaleratzen dituzte, eta maskulinitate alternatiboetara gerturatzen. Pertsonaia maskulinoen genealogia bat ere badago –Luis (aita biologikoa), Xabier (harrera etxeko zaintzailea) eta Lionelen (semea) artean eraikitzen dena– eta agian hori da Lionelek familia tradizional baten beharra sentitzeko arrazoia: bere guraso ereduak gizonezkoak soilik izatea. Arrebaren presentziak eta harekin duen harreman onak ez dute amaren hutsunea betetzen, eta hura ez egotearen zioa ez jakiteak areagotu egiten dio hura hurbil izateko beharra. Gainera, autosufizientziaren aldetik, dependentzia afektiboa duela onartzen du pertsonaiak, eta gogo hori salbu (zeina tradiziozko familia baten beharraren isla den), gainerako ezaugarriek oso interesgarri bihurtzen dute lehoi gaztea, irakurlea gaur egun zenbait pertsonak bizi duten errealitatera hurbiltzen duela.

5. Ondorioak

Haur eta gazte literaturan, askotan, helduen literaturan gertatzen den bezala, gizarte batean naturaltzat hartzen diren hainbat jarrera eta pentsamolde nabarmentzen dira. Pertsonaien hitzek, haien jokaerek eta gertaerak ulertzeko moduak erakusten digute fikziozko gizarte horretan zer den ohi-koa eta zer ez. Hori dela-eta, maskulinitatearen ikuspuntutik, baieztza deza-kegu egon dela aldaketaren bat Xabier Etxanizek (2001) 1994ko euskal HGL-ko uzta aztertu ondoren lorturiko emaitzan (non gizon-emakume kategorien arteko dikotomia argia zen, emakumearen irudikapenak oso tradiziozialak eta sexistak ziren, emakumezkoen lanbideak kualifikatu gabeko ofizioak ziren, etab.).

Aztergai izan ditugun hiru obretan gizarte patriarkatuaren zenbait arrakala uzten dira agerian eta pertsonaien izaeraren eta portaeren bidez, pitzadura horiei buruzko gogoeta kritikoak egiten dira, gehienetan zeharbidez (Barkin, Guillo, Lasarte, 2015). Hiru lanetan aurkezten zaizkigun egoeretan pertsonaiak galdurik sentitzen dira, beren kezka eta gogoetetan murgilduta. Horregatik, irakurleari beren min edota desiren berri emateko, ahotsa altxatzen dute, kontaketa bera pertsonaien korapiloak askatzeko bidea izanik. Bakardadean eta bakardadeaz hitz egiten dute mutil hauek, gizarteak arbuaturiko naufragoak dira: Matiasek ez du lagunik, eta horren hutsunea asetzeko bere gorputza betetzen du; Alexen gaitasun bereziak eta sentiberatasunak ere ez dute lekurik eskolakideen artean eta horregatik dute arrarotzat; eta Lionel gurasorik gabe bizitzera kondenaturik dago. Guztiek lortzen dute aurrera egitea, bidean lagunak bat egiten dutelako (Matiasek eta Alexek), edota arrebaren babesa jasotzen duelako (Lionelek).

Formari dagokionez, hiru narrazioetako protagonistek beren bizipen pertsonalen kontaketa lehen pertsonan egiten dutela nabarmendu behar da, ezaugarri hori idazketa autobiografikoarekin partekatuz. Zentzu horretan, ausartzen gara esatera ez dela kasualitatea kontamolde hori baliatzea, batez ere kontuan hartzen badugu «(...) idazkera autobiografikoa dela oraindik zapalduta dauden taldeek beren arazo identitarioak konpontzeko erabiltzen duten adierazpen modurik erabiliena» (Lasarte, 2011: 68).

Horrez gain, gaiaren aldetik ere, emakumeek landutako tematika antzekoak jorratzen dituzte, batez ere *Alex* eta *Kea airean bezala* narrazioek:

(...) emakumeek landutako gai nagusiak hauek dira: identitatearen bilaketa oroimenaren bidez: inguru familiarra; niaren eta erreallitatearen arteko zatiketa; orainaren arbuioa eta etorkizunerako ezintasuna; barne eta kanpo espazioa; maitasunaren ideia erromantikoa; erotismoa eta homosexualitatea (debekua); aisialdia eta lan mundua, eta kanpoko munduari emaniko begiratu femeninoa (Lasarte, 2011: 75).

Egungo gizartean dauden eztabaidez jabetzeko eta gogoeta berriak sortzeko orduan euskal HGL-k bide luzea duen arren (Barkin, Guillo, Lasarte, 2015), pozgarria da irakurle txikiak eredu eta jarrera ezberdinak dituzten pertsonaiak topatu ahal izatea, zeren eta maskulinitate hegemonikoetatik ihes egiten duten maskulinitate berri horiek mundu ikuskera eta pentsamolde zabalago eta bidezkoagoetarako ateak irekitzen baitizkigute.

Bibliografia

ALONSO, I. (2010). *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. Bilbo: UPV/EHU.

ALVAREZ URIA, A. (2013). «Euskal trans literarioak. Trans ezkutuen kartografia bat XX. mendeko euskal literaturan». CASTILLO Isabel eta Iratxe RETOLAZA (koord.). (2013). *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo. 139-163.

——— (2013). «Glosategia». CASTILLO I. eta RETOLAZA, I. (koord.). (2013). *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo. 279-308.

ARESTI, N. (2010). *Masculinidades en tela de juicio: hombres y género en el primer tercio del siglo XX*. Madril: Cátedra.

AZPIAZU, J. (2012). *Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak: EAE-ko talde batzueganako hurbilpena*. EHU. Online: https://addi.ehu.es/bitstream/10810/15790/1/Gizon_Taldeak_Eta_Maskulinitatearen_Inguruko_Diskurtsoak.pdf [kontsulta: 2016-05-24].

BARKIN, A.; GUILLO, M. eta LASARTE, G. (2015). «Genero-berdintasuna HGLn mahai-ingurua», *Behinola* 32 , 12-32

BOBES, C. (1994). *La novela*. Madril: Síntesis.

cultural turn (Chaney 1994) delakoak memoriaren gaiari heltzeko eran izandako eragina. Postestrukturalismoak proposatutako giza errealitatearen testu izaeratik abiatuta, ordura arte iragana interpretatu eta idazteko Historiari emandako lehentasuna auzitan jarri zen, honen Fikzioarekiko antzekotasuna azpimarratuz (White 1978). Bide beretik etorri zen *memoria kulturalaren* (Assman 1999) ideia, Historiaren orokortzeetatik haratago memoria kolektiboaren egituraketan iraganeko gertaeren lekukotzek edo/eta errepresentazio artistikoez duten garrantziari erreparatzen diona. Bestalde, Gerra Zibilaren *euskal* memoria kulturalaren azterketa *euskal* eremutik egiteak, memoriaren indar homogeneizatzailerak sailhesteko beharrezko deszentralizazioa eskaintzen du. Izan ere, Estatu Espainiarrean den kultur talde bakoitzak modu ezberdinean eraiki du Gerra Zibilaren memoria bere kultur nortasun kolektiboaren baitan, baina memoriaren arteko gatazkan kultur talde txiki(tu)enak dauka galtzeko arrisku gehien (Resina 2000). Artikulu-bilduma honen osotasunak egiten dituen ekarpen nagusiak Euskal Ikasketen esparrutik Gerra Zibileko euskal kulturaren *memoria-lekuei* (Nora 1984) heltzeko eskaintzen duen ikuspegi aniztasuna eta gatazkaren memoriaren inguruan iradokitzen duen eztabaida kritikoa dira. Oraina nahiz etorkizuna argitzeko bidean memoria kulturalari balioa emateaz nahiz memoria deszentralizatu bati ekarpena egiteaz gainera, interesgarriena da ekarpen hori, tesi zurrunetatik ezin urrunago, memoria kulturalaren hatsarreetatik abiatuta parametro zabaleko eztabaidara irekitzen den elkarrizketa polifonikoa dela.

Liburu honen edukiak Kultur Ikasketen ikerketa-adar den Memoria Ikasketen esparruan kokatzen dira eta kultura antropologiaren eragin nabamena dute. Hala ere eta bereziki aberasgarriak suertatuko zaizkio Euskal Ikasketen arloan memoriaren nahiz, oro har, kulturaren gaineko azterketen azken joeretan interesa duen irakurleari. Gaur egun mundu mailako jarduerak badira ere, Kultur Ikasketak ez dira Europar gehiegi zabaldu (Casenave 2012) eta Euskal Ikasketak ez dira honetan gehiegi ezberdindu. 50eko hamarkadan Center of Contemporary Cultural Studies gisa Birminghameko Unibertsitatean instituzionalizatzen hasi zen unibertsitatearen eta Britainiako ezker berriaren arteko ikerketa-gune marjinaletik abiatu zen ikerketa-eremuak aldaketa ugari jasan du gaur arteko ibilbidean (Mattelart eta Neveu 2003). Horietariko asko 80-90etan izandako zabalkundearen ondo-

rioz gertatu dira, baina paradigma honek inoiz ez du guztiz alboratu sortze-tiko dituen jarduera intelektualaren ikuspegi epistemologiko irekia nahiz teoria kritiko emantzipatzaileko joera. Euskal Ikasketei dagokienez, Galfarsorok aipatzen du Kultur Ikasketekiko txertaketa bereziki zabala izan dela diasporan baina, antza, maiz falta izan dutela auresuposatzen zaien borondate eraldatzaile eta agenda politikoa (2005: 80). Egun ere gurean gehiegi garatu gabeko paradigma izaten jarraitzen badu ere, Memoria Ikasketen garapenarena salbuespen bat da Kultur Ikasketen gabezia panorama orokorrean, honen adibide da MHLIITren jarduna, bai eta mintzagai den liburua ere. Batetik, gaurko Euskal Herriko agenda politikoa den gatazka-ren gaineko memoriaren gaia jorratzen delako kultur ikuspegiak ekartzen duen berritasunarekin eta, bestetik, ikuspegi kritiko batetik egiten delako, esparru global nahiz lokalean memoriari lotutako eztabaidarako material ugari irakurleon eskura jarritz.

Monografikoa Izaro Arroita eta Lourdes Otaegik prestatutako sarrerarekin hasten da eta bertan ezin hobeto agertzen dira azalduta hala memoriari buruzko Kultur Ikasketen nondik-norako orokorrak nola artikuluetan jorratzen diren nozio zehatz nagusiak. Horietariko bat Pierre Norak (1984) garatutako *memoria-lekuaren* kontzeptua da, hau da, kultur talde batek bere memoria kolektiboaren osatze prozesuan hautatutako Historiako (g)une bat. Izenburuak adierazten duen bezala, Gerra Zibilaren memoria-lekua(k) d(ir)a liburua osatzen duten artikuluen artikulazio gune nagusia, baina leku(ar)en inguruko kultur memoria arakatzerako unean hartutako ikuspegiak nahiz analisisiek mugak hedatzen dituzte, egitate historiko horren memoria-leku(eta)ra gerturatzeak bertatik urruntzea ekarriko balu bezala. Diskurtso historiografikotik kanpo geratu ohi diren ahotsetan fokua jarritz, Gerra Zibilak euskal testuinguruan izandako lekukotzak, errepresentazio artistikoak, bai eta biak ala biak aldi berean gertatzen diren kasuak aztertuz erdiesten diren ondorioak egokiak gertatzen dira, bereziki, euskal nazionalisten memoria kolektiboaren eraketa ulertzeko nahiz etorkizuna proiektatzeko. Monografikoaren edukien diziplinartekotasunak areagotu egiten du memoria kolektiboarekiko gerturatze inklusiboa, izan ere autobiografiaren, literaturaren, kantagintzaren edo zinemagintzaren esparruetatik heldu zaio Gerra Zibilaren memoria-lekuaren konplexutasunari. Alde horretatik, esan

beharra dago artikulua buruaskiak direla eta diziplina horietarikoren batean interes berezia duena arazorik gabe lotu dakiokela testu bakarraren irakurketa isolatuari. Era berean, hitzaurreak bere horretan balio teoriko handia du. Aitzitik, azpimarratzekoa da liburuaren osotasunak eskaintzen duen ikuspegia gertatzen dela aberasgarrien, hitzaurrean ezartzen diren hatsarreetatik abiatuta artikuluen eduki nahiz posizionamenduen artean jazozen den elkarrizketagatik bereziki, bai eta irakurleari bertatik sortzen zaizkion galderengatik ere: euskal memoria kultural kolektiboan Gerra Zibilaren memoria-lekua(k) noiz/non hasi eta amaitzen d(ir)a? Gatazka-leku ere baden memoria-leku hori gertakari historiko bakan bati lotzen zaio edo/ala/ eta hau transzenditzen du?

Ludger Mees EHUko unibertsitate katedradunak «Gerra euskal nazionalisten memorian» artikuluan era orokorrean heltzen dio Gerra Zibilak memoria-leku gisa euskal nazionalisten memoria kolektiboan izan duen izaerari. Gerra baten ostean gizatalde baten memoria kolektiboak garatzen dituen mekanismoez mintzatu ondoren eta memoriaren izaera selektiboa argituta, ideia hauek aztergai den kasura ekartzen ditu, hausnarketa interesgarriak plazaratuz. Euskal nazionalisten Gerra Zibilaren memoriak ez du haustura izaerarik, iraganeko borrokekiko jarraitutasunarena baizik eta, bestalde, Gerra Zibilaren memoria-leku(ar)en baitan ez-lekurik ere badela argitzen du, hau da, oroitu nahi ez denik. Eztabaidarako materiala eskaintzeaz gain, hausnarketa orokor hauek sortzen dituzten galderen oihartzuna behin eta berriz itzultzen zaio irakurleari gainontzeko artikuluek jorratzen dituzten kasu konketuagoak aztertzerakoan.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio sailburu nahiz Gobernuaren bozeramaile denak eta Espainiako Gorteetako diputatu izana denak ikuspegi tradizionalaren arabera fikziotik aldentzen den Gerra Zibilaren errepresentazio bat eraikitzen du «Gerraren humanizazioa: Manuel Iruxo» artikuluan. II. Errepublika garaian Errepublikaren Gobernuan 1937ko maiatzaren 7tik abenduaren 11ra arte Justizia arduraduna izan zen Manuel Iruxo legegizonaren autobiografiatik nahiz beste iturri batzuetako testigantzetatik abiatuta marrazten du Erkorekak haren lekukotza. Testuan zehar ematen dituen datuen eta hauen interpretazioaren bidez, lekukotza horretatik abiatuta Iruxo Gerra Zibilaren memo-

ria-leku bilakatzen da, pertsonaiaren balio eta jokamolde humanista kristaua azpimarratuz eta, beraz, gerraren humanizazioaren sinbolo gisa zedarrirituz.

Gainontzeko artikuluetan Gerra Zibilaren memoria-leku(ar)en errepresentazio artistikoak aztertzen dira. Hor kokatzen da, hain zuzen ere, Joxean Fernández irakasle eta Euskal Filmategiko zuzendariak «Gerra Zibila Euskal Herrian euskal zinemaren bitartez» lanean eskaintzen duen ibilbide zinematografikoa. 1937an Euzko Jaurlaritzak sustatu zuen Nemesio Sobrevillaren *Gernika* filmetik mende honetako zinemagintzara Gerra Zibila memoria-lekutzat hartu duen euskal zinemagintzaren laburpena egiten du. Egilearen arabera, nabarmena da testuinguru ezberdinek asko baldintzatu dutela gerrari buruzko euskal zinemagintzaren garaian garaiko izaera.

Gerraren lekuko ez ezik memoria-leku ere baden norbaiten errepresentazio artistikoa lantzen du Inazio Mujika Iraola idazleak «Lauaxeta Atxilo» Kartzelako olerkien finkatu beharraz berriz» artikuluan. Bertan, Gerra Zibilean espetxean fusilatua izan zen Estepan Urkiaga «Lauaxeta» idazlearen hil aurreko idazlanen edizio kritiko zehatz bat egiteko beharra azpimarratzen du. Orain arteko argitalpenen eta eskuizkribuen artean ezberdintasun nabariak daudenez, bertsio ezberdinak alderatuz irakurketa-proposamenak eskaintzen ditu, etorkizunean olerkiak Lauaxetak idatzi bezala denon eskura jar daitezzen bidea irekiz. Asmo horren adibide dira artikuluan bertan agertzen diren Lauaxetak kartzelan idatzitako poemen nahiz egindako marrazkien kolorezko irudi biziki interesgarriak. Beste sortzaile-lekuko zenbaiten kasua lantzen du Pio Perez Aldasoro EHUko irakasleak «Gerlariak idazle: gerrako hainbat autobiografia eta testigantza euskaraz» lanean. Gerra Zibila bizi izan zutenen narrazio autobiografikoetan oinarritzen du azterketa: Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (1964), Agustin Zinkunegiren *Bizi naiak lege zorrotzak* (1995), Balendin Enbeitaren *Bizitzaren joanean* (1986), Santiago Onaindiaren *Oroi-Txinpartak* (1988) eta Salvador Zapirainen *Espetxeko negarrak* (1985) eta *Zigorpean* (1985). Hortik abiatuta, demokratikoa izan nahi duen gizarte batentzako norabide anitzeko memoria proposatzen du, memoria personalak esparru nahiz balio handiagoa izango lukeen memoria eredu bat. Azkenik, Lourdes Otaegi Imaz EHUko irakasleak ere Gerra Zibilearen lekuko izandako baten errepresentazio artistikoaz mintzo zaigu «Mikel Laboaren

Lekeitioak: esanezina oihu bilakatua» testuan. Kasu honetan Gerra Zibilaren memoria-leku garrantzitsu den Gernikaren bonbardaketaren gainean Mikel Laboa abeslariak eraikitako errepresentazio musikala aztertzen da oso modu diziplinartekoan, fokua bereziki «Gernika, Lekeitio 4» eta «Baga-biga-higa. Lekeitio 2» kantuetan ipiniz. Bereziki aberasgarria da, besteak beste, nola txertatzen duen autoreak Laboaren sorkuntza saminaren errepresentazio artistikoaren inguruko nazioarteko eztabaidetan, bai eta *lekeitioei* euskal kultur memoriaren garapenean aitortzen dien garrantzia ere.

Gainontzeko artikuluetan jorratzen diren errepresentazio artistikoen sortzaileak ez ziren Gerra Zibilaren lekuko izan. Daniela Bister doktoreak zinemagintza eta genero ikuspegitik heltzen dio gerraren memoria-lekuaren errepresentazio artistikoen analisiari «Espainiako Gerra Zibila eta frankismoa jasatea emakume gisa: *Silencio roto* (2001a) eta *Si te dicen que caí* (1989)» artikuluan. Aztergai diren Vicente Aranda eta Montxo Armendarizen filmetan emakumearen biktimizazioa aztertzen du egileak, kritikak orain arte gehiegi landu gabeko arloa. Poetika bisualak aztertu eta etorkizuneko ikerketarako proposamen interesgarriak plazaratzen ditu. Bestalde, Izaro Arroita doktoreak gudariaren errepresentazioa Gerra Zibileko memoria-leku gisa Ramon Saizarbitoria idazlearen nobelagintzan nolakoa den aztertzen du. Modu bikainean agertzen da deskribatuta Saizarbitoriak eraikitako errepresentazio hauek nola islatzen duten memoria negoziaketa nahiz idealismotik aldentzeko duten joera, diskurtso abertzale ofizialaren ez-lekuak azalerratz.

Liburu honek memoria kolektiboari egiten dion ekarpen handietariko bat da Gerra Zibilaren memoria-leku historikoa(k) gatazkaren memoria kultural kolektibo gisa espazio nahiz denbora (g)une zabalago batean txertatzen d(it)uela. Mikel Ayerbe EHUKo irakasleak zuzenean txertatzen du ikuspegi hori «Iban Zalduaren ipuingintza: guda eta gatazka» lanean Iban Zaldia idazlearen «Gerra Zibilak» ipuinaren azterketaren bitartez. Hala, eguneratu egiten da memoria kolektiboan Gerra Zibilak etengabeko gatazkaren une gisa duen izaera. Bestalde, oso interesgarria da ikuspegi horren eta «Zelula lokartua» ipuinaren edukien artean proposatzen duen konparaketa. Norabide berean baina pauso bat haratago kokatzen da Mari Jose Olaziregi EHUKo irakasle eta MHLITko zuzendari denaren «Hain hilik,

hain bizirik. Harkaitz Canoren *Twist*, edo belarrak ezabatu ez duena» artikuluko analisia. Izan ere, Trantsizio garaiko memoria-leku baten errepresentazio artistikoaren gainekoa baita egiten duen azterketa, Harkaitz Cano idazlearen *Twist* (2011) eleberrarena. Hala, diktadura garaietan desagertutako presentzia espektralari buruzko oinarri teoriko zabal batetik abiatuta oso irakurketa-proposamen aberatsa eskaintzen digu Olaziregik. Izua azaltzeko literaturak duen gaitasunari buruzko hausnarketa metafizionala ageri da istorioan eta, era berean, iraganeko mamuak maiz artean bizi direnaren froga da eleberria bera. Denboraren esparruan jazotzen den gatazkaren memoria kolektiboaren dilatazio horri espazio geografikoarena gehitzen dio Alexander Gurrutxaga doktoregaiaren «Gernika-Berlin. Berlinen balio sinbolikoak euskal poesia garaikidean» testuak. Hainbat euskal poetek Gernikaren memoria-lekua Berlinekin lotu dute euren errepresentazio artistikoetan, maila askotriko korrespondentzien bidez. Autoreak egoki azaltzen duenez, horietariko batzuk ezberdintasunean oinarritzen dira antzekotasunean bainoago. Zenbait euskal poeten Gernikaren errepresentazioek memoria kulturalari egiten dioten ekarpenaren bidez, Gerra Zibilaren memoria-leku(ar)en espazio geografikoa zabaltzera egin dute, kritika eta hurbilpen berriak ekarriz memorien negoziaketaren esparrura.

Amaitzeko gogoeta egokia ekartzen dio irakurleari Gorka Mercero Liverpoolleko Unibertsitateko irakasleak «Juan Luis Zabalaren *Agur, Euzkadi: modernitateko esentzia-egarri aseezina*» lanean. Juan Luis Zabalaren eleberraren istorioan oinarrituta, modernitateko joera esentzialistez haratago gaur euskal identitatea(k) eraikitzeke arazoaz dihardu eta, nola ez, baita iraganaren oroimenak prozesu horretan hartzen duen toki garrantzitsuaz ere. Lauaxeta da protagonistari laguntzen dion mamua, modernitateko abertzale eta Gerra Zibileko martiri. Liburu hau ere lagungarri gerta dakioke XXI mendeko euskal identitateak oroimen kritikoa, anitza eta dinamikoa behar duela uste duenari.

Aurreko lerroetan argudiatu bezala, interesgarri eta oso kontuan hartzea da *Oroimenaren lekukoak eta lekukoak* liburuak Memoria Ikasketei euskal testuinguruan egiten dien ekarpen akademikoa. Azken urteotan ikerketa akademikoetan gailendu diren kontzeptu eta metodologiez baliatuz, begirada berri eta beharrezkoa dakarkigu gure iragan historikoaz.



AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX
2016

ALTUNA, Olatz	
– <i>Euskeraren ahozko kale-erabilera: erronkak</i>	407-438
AMONARRIZ, Kike	
– <i>Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako.</i>	30-41
CILLERO, Jabi	
– <i>Martin Garaidiren fitxa: Eukal detektibeen aitonaren atzetik</i> .	463-483
DIAZ, Letizia	
– <i>Txirristi Mirristi</i>	569-605
ELIZALDE, Amaia	
– <i>Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontraera historiko-politikoa. Izaro Arroita - Lourdes Otaegi (arg.)</i>	777-783
ELUSTONDO, Miel A.	
– <i>Bederatzi kopla, hamahiru, hamabost egun Urgainen</i>	68-86
GARAIO, Beñat	
– <i>.EUS euskararen arnasmune digitalaren egoera eta etorkizuneko erronkak</i>	743-774
GARRIDO YEROBI, Iñaki	
– <i>José Antonio Loidi Bizkarrondo eta Irunen utzi digun ondarea: LUKT</i>	49-67

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto	
– <i>Caicedo Yuso arabar herrian dagoen lakuaren izenaz</i>	185-198
HIDALGO, Bittor	
– <i>Euskararen biziberritzea: ‘Irabazteko gidalerro bila’</i>	241-374
IÑARRA, Maialen	
– <i>Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak</i>	407-438
JANSEN, Win	
– <i>Word migration from Dutch to Basque</i>	607-664
JUARISTI, Patxi	
– <i>Hizkuntza-komunitateak harremanetan Euskal herrian: balio etikoetan oinarritutako diskurtsoaren beharra</i>	375-406
KORTAZAR, Jon	
– <i>Gabriel Arestiren lehen argitalpenaz berri ezezagunak</i>	551-567
LASARTE, Gema	
– <i>Maskulinitate berriak Euskal Haur eta Gazte Narratiban: Matias Ploff-en erabakiak, Alex eta Kea airean bezala eleberrietako pertsonaiak biluzten</i>	515-549
– <i>Txirristi Mirristi</i>	569-605
LOBERA, Gotzon	
– <i>Ekarpen bat exonomastikari, Homeroren ‘Odisea’ oinarri hartuta</i>	665-741
MENDIZABAL, Jasone	
– <i>Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako</i>	30-41
SAEZ, Patxi	
– <i>Beharra da giltza</i>	439-460

SARASOLA, Beñat	
– <i>Literatura konparatuaren lehen saiakerak euskal literaturan.</i>	
<i>Lauaxetatik Pott bandara</i>	485-513
SERRANO, Amaia	
– <i>Maskulinitate berriak Euskal Haur eta Gazte Narratiban: Matias Ploff-en erabakiak, Alex eta Kea airean bezala eleberrietako pertsonaiak biluzten</i>	515-549
TOLEDO, Ana	
– <i>Sarrera</i>	46-48
WALIÑO, Josu	
– <i>Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen</i>	42-44
ZABALETA, Patxi	
– <i>Miguel Javier Urmeneta Ajarnaute (1915-1988)</i>	13-25



Euskera agerkariaren idazketa arauak

Normas de redacción de la revista *Euskera*

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

Writing guidelines for the journal *Euskera*

Euskera. 2016, 61, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskera agerkariaren idazketa arauak

1. Euskera agerkariaren esparruak

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da. Bi motatako zenbakiak argitaratzen ditu: lehenik eta behin, instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, hizkuntza-arauak, *Iker* edo *Jagon* Sai-leko Jardunaldiak eta antzekoak jasotzen dituztenak, eta, bigarrenik, Euskaltzaindiaren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak. Ondoren zehazten diren irizpideak soilik bigarren motako zenbakietako ikerketa-artikulu originalei eta liburu-aipamenei dagozkie, eta bete beharrekoak dira aintzat har daitezzen argitaratze-bidean. Gainerakoetan, bete beharrekoak dira Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Hauxek dira *Euskera* Agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal filologia
- Hizkuntzalaritza orokorra
- Gramatika
- Dialektologia
- Lexikografia / lexikologia
- Literatura
- Toponimia / Onomastika
- Fonetika eta Fonologia
- Semantika eta pragmatika
- Hizkuntzaren historia
- Hizkuntzaren normatibizazioa
- Hizkuntzaren normalizazioa
- Soziolinguistika
- Teknologia berriak eta hizkuntza

- Iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea
- Itzulpengintza
- Zientzia-arlo desberdinetako euskara teknikoak.

Orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskarekin zerikusirik duten neurrian.

Ikerketa-artikulu originalen eta testuen proposamenak Argitalpen arduradunari zuzenduko zaizkio, ondoko helbidera:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Argitalpen arduraduna
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Hizkuntzak

Ikerketa-artikulu originalak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan idatziak izan daitezke, baina euskaraz idatzitakoak hobetsiko dira.

3. Luzera

Bi motatako testuak argitaratuko dira: artikulu akademikoak eta liburu-aipamenak (erreseinak). Lehenak ez dute luzera jakinik, baina oro har ez dute izango 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago (15-30 orrialde). Liburu-aipamenak bi motatakoak izango dira: 3 orrialdekoak (6.000 karaktere) edo 5 orrialdekoak (10.000 karaktere), salbuespenak baztertzeke.

4. Laburpenak

Ikerketa-artikuluarekin batera haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta artikuluaren hitz-gakoak (gehienez ere, sei) entregatuko dira, artikulua idatzia den hizkuntzan.

5. Onarpena

Ikerketa-artikuluak eta testuak onartzea *Euskera* Agerkariko Idazketa Kontseiluari dagokio. Honek artikulua bakoitzerako bi kanpo-ebaluatzaile izendatuko ditu eta haien iritzia entzun ondoren hartuko du azken erabakia. Artikulua onartzerakoan egileari oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda emango zaio, hala balegokio. Egileak bere adostasuna jasotzen duen agiria sinatuko du. Hortik aurrera ez da muntazko aldaketa edo zuzenketarik onartuko ez egilearen aldetik ez argitaratzailearen aldetik.

6. Epeak

Ikerketa-artikuluak eta testuak urtean zehar aurkeztuko dira, urtea bukatu arte eta hurrengo urteko lehen seihilekoan argitaratzekotan. Argitaratze-prozesuan ezarritako epeak ez betetzeak artikulua argitalpena bertan behera uztea ekar diezaiolke autoreari, argitaratzailearen erabakiz.

7. Artikuluaren euskarriak

Artikuluak ordenagailu formatuan aurkeztuko dira, bertsio inprimatu bat erantsiz. Euskal Herrian arruntak diren testu-prozesadoreak erabiliko dira.

8. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikulua bukatu erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi, 1729) edo Mitxelena (1961, 123). Edozein arrazoiengatik mota horretakoak erabiltzea baztertzeko denean ere, eman bitez erreferentzia zehatzak, *op. cit.* edo *ibidem* bezalakoak saihestuz eta erreferentzia osoak bibliografian eskainirik.

9. Bibliografia

Bibliografia artikuluauren bukaeran emango da, oinarritzko eredu honi segituz:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

Egileak artikuluauren bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

10. Ordainketak

Egileak modu eskusiboan lagatzen dizkiote Euskaltzaindiari argitaratutako artikuluen gaineko erreprodukzio-eskubideak. Halaber, ikerketa-artikulu eta testu guztiak ordainduko dira Euskaltzaindiaren Argitalpen batzordeak kasuan-kasuan erabakitzen dituen tarifaren arabera.

Normas de redacción de la revista *Euskera*

1. Ámbitos de la revista

Euskera es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Publica dos tipos de números: en primer lugar, aquellos que recogen discursos de ingreso de los nuevos miembros de la institución, trabajos de la Academia, actas, normas lingüísticas, coloquios organizados por las secciones de Investigación (*Iker*) y Tutelar (*Jagon*) o análogos y, en segundo lugar, los que publican artículos de investigación originales en los ámbitos de interés de la Academia, reseñas de libros y similares. Los criterios que se especifican a continuación sólo corresponden al segundo tipo, es decir, a artículos originales de investigación y reseñas de libros, y son de obligado cumplimiento para poder ser aceptados en el proceso de publicación. Para el resto de textos deberán cumplirse las condiciones establecidas por Euskaltzaindia en «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Los ámbitos de interés de la revista *Euskera* son los siguientes:

- Filología vasca
- Lingüística general
- Gramática
- Dialectología
- Lexicografía / Lexicología
- Literatura
- Toponimia / Onomástica
- Fonética y Fonología
- Semántica y Pragmática
- Historia de la lengua
- Normativización lingüística
- Normalización lingüística
- Sociolingüística
- Lengua y nuevas tecnologías

- Iurilingüística y Derecho de lenguas
- Traducción
- Euskera científico en los diversos campos del saber.

Asimismo, se tomarán en consideración otras disciplinas en la medida en que tengan relación con la lengua vasca.

Las propuestas de publicación de artículos de investigación originales deberán remitirse al responsable de Publicaciones a esta dirección:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Responsable de Publicaciones
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Lenguas

Los artículos de investigaciones originales podrán ser redactados en cualquiera de las lenguas que habitualmente se emplean en los ámbitos académicos de Euskal Herria, aunque se dará preferencia a los redactados en euskera.

3. Extensión

Se publicarán dos tipos de textos: artículos académicos y reseñas de libros. Los primeros no tienen una extensión previamente establecida, pero en general no tendrán un número de caracteres inferior a 30.000 o superior a 60.000 (15-30 páginas). Las reseñas de libros serán de dos tipos: de tres páginas (6.000 caracteres) o cinco páginas (10.000 caracteres), aunque se admitirán excepciones.

4. Resúmenes

Los artículos de investigación deberán estar acompañados por un resumen (máximo de 500 caracteres) y sus correspondientes palabras clave (máximo de seis), ambos en la lengua original del artículo.

5. Admisión

La admisión de artículos originales y textos es competencia del Consejo de Redacción de la revista *Euskera*, el cual designará dos evaluadores externos para cada artículo y, tras tomar en consideración su dictamen, tomará la decisión definitiva, en su caso. Al comunicar la aceptación del artículo se facilitará al autor una lista de errores o cuestiones sujetas a corrección. El autor firmará un documento manifestando su acuerdo. A partir de ese momento no se aceptará ninguna modificación o corrección sustancial ni por parte del autor ni del editor.

6. Plazos

Los artículos de investigación y textos se podrán presentar hasta final de año, en el caso de que vayan a ser publicados en el primer semestre. El incumplimiento de los plazos establecidos en el proceso de publicación puede acarrear la anulación de la publicación del artículo por decisión del editor.

7. Soportes del artículo

Los artículos se presentarán en formato de ordenador junto con una versión impresa. Se utilizará un procesador de textos de uso habitual en Euskal Herria.

8. Referencias y notas

Se favorecerán los intentos de limitar el uso exagerado de notas. A ser posible todas las referencias se integrarán en el texto, conectándolas con la bibliografía que se coloca habitualmente al final del artículo, de este modo: (Larramendi, 1729) o Mitxelena (1961, 123). Cuando por cualquier razón se decida prescindir de ese tipo de referencias, éstas deberán facilitarse de forma exacta, rehuendo los *op. cit.*, *ibidem* o similares y ofreciendo las referencias completas en la bibliografía.

9. Bibliografía

La bibliografía se colocará al final del artículo, siguiendo este modelo básico:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

El autor organizará la bibliografía de acuerdo con este modelo básico. Las peculiaridades o especificaciones que puedan darse en cada caso deberán ser resueltas de acuerdo con el responsable de Publicaciones.

10. Retribuciones

El autor cede a Euskaltzaindia los derechos de reproducción de su artículo de forma exclusiva. Asimismo, los artículos originales de investigación así como todos los textos serán objeto de retribución de acuerdo con las tarifas que establezca en cada caso la Comisión de Publicaciones de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

1. Domaines de la revue

Euskera est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia. Deux types de numéros sont publiés: tout d'abord, ceux qui rassemblent les discours d'intronisation des nouveaux membres de l'institution, les travaux de l'Académie, les procès-verbaux, les normes linguistiques, les colloques organisés par les sections de Recherche (*Iker*) et Tutélaire (*Jagon*) ou similaires et, ensuite, ceux dans lesquels sont publiés des articles originaux de recherche qui portent sur l'un des domaines d'intérêt de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications. Les critères qui sont précisés ici correspondent seulement au deuxième type de numéros de la revue, c'est-à-dire aux articles originaux de recherche et comptes rendus de livres, et sont à respecter impérativement pour pouvoir être acceptés dans le processus de publication. Pour les autres textes, il faudra remplir les conditions prévues par Euskaltzaindia dans «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Les domaines d'intérêt de la revue *Euskera* sont les suivants :

- Philologie basque
- Linguistique générale
- Grammaire
- Dialectologie
- Lexicographie / Lexicologie
- Littérature
- Toponymie / Onomastique
- Phonétique et Phonologie
- Sémantique et Pragmatique
- Histoire de la langue
- Normativisation linguistique
- Normalisation linguistique

- Sociolinguistique
- Langue et nouvelles technologies
- Jurilinguistique et Droit des langues
- Traduction
- Le basque scientifique dans les divers domaines du savoir.

D'autres disciplines seront également prises en considération dans la mesure où elles ont trait à la langue basque.

Les propositions de publication d'articles originaux de recherche devront être remises au responsable des Publications à cette adresse :

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.
Responsable des Publications
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

2. Langues

Les articles originaux de recherches pourront être rédigés dans l'une des langues qui sont habituellement employées dans les domaines académiques du Pays Basque, même si une préférence sera accordée à ceux rédigés en basque.

3. Longueur

Deux types de textes seront publiés : les articles académiques et les comptes rendus de livres. Les premiers n'ont pas de longueur préalablement établie, mais en général le nombre de caractères ne sera pas inférieur à 30 000 ni supérieur à 60 000 (15-30 pages). Les comptes rendus de livres seront de deux types: de trois pages (6 000 caractères) ou cinq pages (10 000 caractères), même si des exceptions seront autorisées.

4. Résumés

Les articles de recherche devront être accompagnés d'un résumé (500 caractères maximum) et de leurs mots-clés correspondants (six maximum), tous deux dans la langue originale de l'article.

5. Admission

L'admission d'articles originaux et de textes relève de la compétence du Comité de Rédaction de la revue *Euskera*, qui désignera deux évaluateurs externes pour chaque article et, après avoir tenu compte de leur avis, prendra la décision définitive, si cela s'avérait nécessaire, le Comité de Rédaction fournira à l'auteur une liste des erreurs ou points susceptibles d'être sujets à révision lors de la communication de l'acceptation de l'article. L'auteur signera un document exprimant son accord. Dès lors, il ne sera accepté aucune modification ou correction substantielle ni de la part de l'auteur ni de la part de l'éditeur.

6. Délais

Les articles de recherche et textes seront présentés tout au long de l'année, jusqu'au 31 décembre et seront publiés au plus tard au cours du premier semestre de l'année suivante. Le non-respect des délais fixés dans le processus de publication peut entraîner l'annulation de la publication de l'article sur décision de l'éditeur.

7. Supports de l'article

Les articles seront présentés au format informatique avec une version imprimée. L'auteur utilisera un traitement de texte couramment utilisé au Pays Basque.

8. Références et notes

Les tentatives de limiter l'utilisation exagérée de notes seront appréciées. Dans la mesure du possible, toutes les références seront insérées dans le texte, et seront reliées à la bibliographie placée à la fin de l'article, de la manière suivante : (Larramendi, 1729) ou Mitxelena (1961, 123). Si pour une raison ou pour une autre, l'auteur décide de se passer de ce type de références, celles-

ci devront être indiquées de façon exacte, en évitant les *op. cit.*, *ibidem* ou similaires et en offrant les références complètes dans la bibliographie.

9. Bibliographie

La bibliographie se place à la fin de l'article, en suivant ce modèle de base :

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los *Refranes y sentencias en vascuence* de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », dans *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

L'auteur organisera la bibliographie de son article en fonction de ce modèle de base. Les particularités ou précisions susceptibles de se présenter dans chaque cas devront être résolues en accord avec le responsable des Publications.

10. Rémunérations

L'auteur cède de manière exclusive à Euskaltzaindia les droits de reproduction de son article. De même, les articles originaux de recherche ainsi que tous les textes feront l'objet d'une rémunération conformément aux tarifs qu'établira dans chaque cas la Commission des Publications de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia.

Writing guidelines for the journal *Euskera*

1. Overview of the journal

Euskera is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia. It publishes two types of issue: one containing induction speeches of the newest members of the institution, the Academy's work, publications, language rules, symposia organised by the Research (*Iker*) and Tutelary (*Jagon*) sections and so on, and a second containing original research articles on topics of interest to the Academy, book reviews and the like. The criteria specified below only concern original research articles and book reviews appearing in the second type of issue and are mandatory for manuscript acceptance. All other manuscripts must meet the conditions set by Euskaltzaindia in «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

The following topics are covered in *Euskera* journal:

- Basque philology
- General linguistics
- Grammar
- Dialectology
- Lexicography / Lexicology
- Literature
- Toponymy / Onomastics
- Phonetics and Phonology
- Semantics and Pragmatics
- History of language
- Corpus planning
- Status planning
- Sociolinguistics
- Language and New Technologies

- Jurilinguistics and Language Law
- Translation
- Scientific Basque in the various fields of knowledge.

Likewise, other disciplines will be taken into consideration insofar as they relate to the Basque language.

Proposals for publication of original research articles must be submitted to the Publications Manager at the following address:

Euskaltzaindia
Publications Manager
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Spain

2. Languages

Original research articles may be written in any of the languages that are normally used in academic circles in the Basque Country, although preference will be given to those written in Basque.

3. Length

Two types of texts will be published: academic articles and book reviews. The former do not have a set length, but generally will not have less than 30,000 characters or more than 60,000 (15-30 pages). Book reviews are of two types: three pages long (6,000 characters) or five pages (10,000 characters), although exceptions are allowed.

4. Abstracts

An abstract (maximum of 500 characters) and the corresponding key words (maximum of six), both in the original language of the article, must be submitted together with research articles.

5. Acceptance

Acceptance of original articles and texts is the responsibility of the Editorial Board of the journal. Two external reviewers will be designated for each article and, after taking their opinion into consideration, the Board will make its final decision, if necessary. Upon notification of the acceptance of the article the author will be provided with a list of problems, errors or issues subject to correction. The author will sign a document stating his/her agreement. From that moment on, no substantial modification or correction by either the author or the editor will be accepted.

6. Deadlines

Research articles and texts can be submitted throughout the year for publication by the end of the following half-year. Failure to comply with publishing deadlines may result in cancellation. The editor's decision is final.

7. Article Format

Manuscripts must be submitted in digital format together with a printed version. Any format commonly used in the Basque Country is acceptable.

8. References and Notes

Attempts to limit the excessive use of notes will be looked upon favourably. If possible, all references should be incorporated into the text, connected to the bibliography that is usually placed at the end of the article, as follows: (Larramendi, 1729) or Mitxelena (1961, 123). If for any reason an author decides not to use that reference format, precise mention should be made, avoiding the use of *op. cit.*, *ibidem* or similar and providing full references in the bibliography.

9. Bibliography

The bibliography will be placed at the end of the article, following this basic model:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller and Zavaleta.

Mixelena, K., 1959, «Euskal-itzak zein diren», *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596», *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques» in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris, 331-337.

The author will organise the bibliography according to this basic model. Any additional features or specifications must be agreed with the Publications Manager case by case.

10. Remuneration

Authors must vest copyright in their articles exclusively to Euskaltzaindia. Original research articles and other texts will be remunerated in accordance with the rates established in each case by the Publications Committee of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia.

Harpidetzak eta eskariak / Pedidos y suscripciones

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

Izen-deiturak / Nombres y apellidos: _____

Erakundea / Institución: _____

Helbidea / Dirección: _____

Posta kodea / C.P.: _____ Udalerria / Población: _____

Lurralde / Provincia: _____ Estatua / Estado: _____

NAN/IFK · DNI/NIF: _____ Telefonoa: _____

Faxa: _____ E-mail: _____

Eskaera data / Fecha de pedido: _____ - _____ - _____

2017rako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el año 2017:

Espainia: 18 €

Atzerria / Extranjero: 20 €

Zenbaki solteak / Números sueltos:

Kopurua Cantidad	Aldizkaria Revista	Urtea / Año	Bolumena Volumen	Zenbakia Número

Zenbaki solteen prezioa 2017rako / Precios de los números para el 2017

Euskera 2016, 61, 2, 20 €

Ordainketa era / Modo de pago

- Transferentziaz / Transferencia
 - Postordainez / Contrareembolso
 - Errezibuz (kontu korrante zenbakia) / Recibo (número de cuenta corriente):
-

Salmenta eta banaketa / Venta y distribución

Euskaltzaindiko Argitalpen Zerbitzua
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: jartza@euskaltzaindia.eus

* * *

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituzenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena eman du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezenez; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira.

Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.net. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

* * *

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo.

El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección info@euskaltzaindia.net. En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.



